

Irisingarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia



ISEK

IRISGARITASUNA SUSTATZEKO
EUSKAL KONTSEILUA
CONSEJO VASCO PARA LA
PROMOCIÓN DE LA ACCESIBILIDAD



Euskadi, auzolana

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia



ISEK

IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO
EUSKAL KONTSEILUA
CONSEJO VASCO PARA LA
PROMOCIÓN DE LA ACCESIBILIDAD



INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la red *Bibliotekak* del Gobierno Vasco:
<http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a 2020ko urtarrila

Ale-kopurua: 100 ale

© Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Disenua: Canaldirecto · www.canal-directo.com

Aurkibidea

Sarrera	6
01. Aurrekariak	8
02. Arauditik helburura	10
2.1. Araudi testuingurua	11
2.2. Erreferentziako estrategiak eta planak	17
2.3. Gako-kontzeptuak: oztupoak erretiratzetik irisgarritasun unibertsalera	22
03. Irisgarritasun unibertsala Euskadin	26
3.1. Datu kuantitatiboak	27
3.2. Diagnostikoa	51
04. Irisgarritasun unibertsalaren Euskadiko estrategia	56
4.1. Printzipio inspiratzaileak	57
4.2. Jarduera eremuak	58
4.3. Egitekoa eta etorkizuneko ikuspegia	59
4.4. Helburu orokorra	59
4.5. Helburu estrategikoak eta jarduera - hildoak	60
05. Kudeaketa-, jarraipeneta ebaluazio-eredua	68
A eranskina	72
B eranskina	73
C eranskina	104
D eranskina	108
E eranskina	112

00.
Sarrera

Dokumentu honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan irisgarritasun unibertsala sustatzeko estrategia-proposamena definitzen da. Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren (ISEK) Batzorde Iraunkorren prestatu da, honako hauen parte-hartzearekin: idazkaritza teknikoa (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritza) eta kanpoko hiru aholkularitza-zerbitzu (Ikei Research&Consultancy, Ingartek Consulting SL eta pr4 tecnología social).

Dokumentuak bost kapitulu ditu.

Lehendabizikoan, aurrekari modura, adierazpen instituzional bat dago jasota, eta, bertan, Euskal Autonomia Erkidegoak irisgarritasun unibertsaleko estrategia propio bat izateak dakarren konpromisoa nabarmentzen da.

Bigarren kapituluan, Espainiako eta nazioarteko arau-testuingurua aurkezten da: Nazio Batuen Erakundearen desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioa, Europar Batasuneko oinarritzko eskubideen Gutuna, eta Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea, besteak beste. Era berean, irisgarritasunaren esparruan erreferente diren estrategia eta plan nagusiak aztertzen dira.

Hirugarren kapituluan, irisgarritasun unibertsalak Euskal Autonomia Erkidegoan duen egoera aztertzen da, irisgarritasunaren esparruan populaziorik hauskorrenaren — desgaitasuna duten pertsonak, adinekoak eta abar— zenbatespenari eta bilakaerari arreta ipiniz. Egoera gaika aztertzen da, bai eta irisgarritasuna hobetzeko gauzatu diren jarduketa publikoen arabera ere. Kapitulu honetan, ISEKek 2018an egindako aurrediagnostikoaren emaitza nagusiak ere aurkezten dira, eta gerturatze kualitatibo bat egiten zaio egungo egoeraren balioespenari, hainbat eragileren ikusmoldetik.

Laugarren kapituluan, Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia aurkezten da: inspiratu duten printzipioak, egitekoa, etorkizuneko ikuspegia, ardatz estrategikoak eta jarduketa-ildoak.

Bosgarren kapituluan, berriz, estrategia nola ezarriko den xehatuko da, bai eta jarraipena eta ebaluazioa nola egingo diren ere.

Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren definizio hori oinarri gisa hartuko da, aurrera begira Euskal Autonomia Erkidegoko irisgarritasun unibertsalaren alorrean ekintza-plan bat formulatzeko eta abian ipintzeko.



01. Aurrekariak

Hogei urte bete dira Eusko Jauraritzak Irisgarritasuna Sustatzeko Legea onartu zuenetik. Arau hura aitzindaria izan zen, eta honako xede hauxe zuen: bizitza sozial eta komunitarioa oztopatzen duten barrera fisikoak eta komunikazioaren alorrekoak desagerraraztea.

Horren aurrean, euskal gizarteak erronka bat izan du aurrez aurre: gure erkidegoko irisgarritasun unibertsalerako estrategia baten oinarriak ezartzea, Euskadi erabat irisgarria lortzeko. Eta irisgarria diogunean ez gara ari hiri-espazioei, eraikin publikoei, lantokiei eta etxebizitzetarako buruz bakarrik; horiez gain, komunikazio digitalaren horizonte berriak irekitzen dituzten ingurune ez-fisikoak eta herritarren eskubide guztiak ere hartzen ditugu kontuan.

Zehazki, irisgarritasun unibertsala sustatzeko konpromisoa hartu du Euskadik, lehendakariak, Irisgarritasuna Sustatzeko Legearen onarpenaren 20. urteurrena ospatzeko, Irisgarritasunaren Euskal Kontseiluaren 2017ko abenduaren 4ko osoko bilkura berezian egindako adierazpenaren bidez (ikusi A eranskina).

- «Ezinbestekoa da legealdi honetan gure erkidegoan irisgarritasun unibertsaleko estrategia baten oinarriak ezartzea».
- «Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia modu zeharkakoan gauzatu behar da, hainbat diziplinan eta sektoretan».
- «Irisgarritasun-kontzeptu berri bat definitu behar dugu, era guztietako diskriminazioak saihesten lagunduko duena...».
- «Aukera apartekoa da Euskadi gizarte inklusibo eta bidezko bilakatzeko, gizarte modernoagoa eta hobea bihurtzeko».

Aldi berean, 20. urteurrena dela eta, Eusko Legebiltzarrak «EUSKADIK BAT EGITEN DU GURE HERRITARREK

IRISGARRITASUN UNIBERTSALERAKO DUTEN ESKUBIDEAREKIN» izeneko adierazpen instituzionala kaleratu zuen. Izan ere, «oraindik ere, pertsona askok Euskadin ez daukate bizitza politikoan, ekonomikoan, sozialean, hezkuntzakoan, lanekoan eta kulturakoan bete-betean eta berdintasunean parte hartzeko duten eskubidea, ez baitago irisgarritasun unibertsaleko baldintzarik produktu, ondasun, ingurune eta zerbitzuetan, eta bazterketa eta desparekotasun sozialeko egoerak sortzen dira» (ikusi D eranskina).

Hori hala, erakunde-politiken jarduketak eta ikuspegia dira EAEko irisgarritasunaren bizkarrezurra. Politika horiek potentziala dute espazio unibertsalak eskuratzeko eta baliatzeko bidea gidatzeko. Espazio unibertsal horietan, berdintasun-baldintzetan parte hartu ahal izango dute pertsona guztiek, eta, horrela, bakoitzaren aniztasun funtzionalaren ondoriozko diskriminazio oro saihestuko da.

Irisgarritasuna sustatzeko Euskadiko Legeak Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua sortu zuen, edukien garapena bultzatzeko parte hartzeko organo gisa. Organo horretan, ordezkaturik daude Eusko Jauraritzak eta gainerako euskal administrazioak, desgaitasun funtzionalen bat duten pertsonak ordezkatzeko dituzten elkarteak, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak, sustatzaileen eta eraikitzaileen elkarteak eta elkargo profesionalak. Kontseiluaren osatura zeharkakoa kontuan hartzen baldin badugu –ikusirik erakunde publiko zein pribatuak dituela, esparru eta sail desberdinekin, desgaitasuna duten pertsonen ordezkariekin eta abarrekin–, organo egokia da Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren idazketa gidatzeko, bai eta, gero, haren jarraipena eta ebaluazioa egiteko ere.

02. Arauditik helburura

Kapitulu honetan, indarrean den araudiaren laburpen bat egingo dugu, bai eta erreferentziako beste hainbat dokumenturena ere.

2.1. Araudi-testuingurua

2.1.1. Nazio Batuen Erakundea

2006ko abenduaren 13an onartu zuten **Nazio Batuen Erakundearen desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioa**, eta huraxe izan zen nazioartean lehendabiziko erreminta juridikoki loteslea giza eskubideen alorrean. Hala, estatuei eskatzen die babestu eta zaindu ditzatela desgaitasuna duten pertsonen oinarrizko eskubide eta giza eskubide guztiak.

3. artikuluan jasotzen dira konbentzioaren printzipio nagusiak:

- a) Pertsonen berezko duintasuna eta banakako autonomia errespetatzea, erabakiak beren kabuz hartzeko askatasuna barne, bai eta burujabetza ere.
- b) Bazterkeriarik eza.
- c) Gizarteratze eta parte-hartze erabatekoa eta eraginkorra.
- d) Desgaitasuna duten pertsonen bestelakotasuna errespetatzea eta onartzea, aniztasunaren eta giza izaeraren parte den aldetik.
- e) Aukera-berdintasuna.
- f) Irisgarritasuna.
- g) Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna.
- h) Desgaitasuna duten haurren gaitasunen bilakaera eta haur horiek beren nortasunari eusteko duten eskubidea errespetatzea.

Bestalde, 9. artikulua haxe ezartzen du: «Estatu alderdiek neurri egokiak hartuko dituzte pertsona desgaituei ziurtatzeko eskuragarri izatea, gainerako pertsonen baldintza berdinetan, ingurune fisikoa, garraioa, informazioa eta komunikazioak, barnean direla informazioaren eta komunikazioen sistemak eta teknologiak, eta jendaurreko edo erabilera publikoko beste zerbitzu eta instalazio batzuk, hiriguneetan nahiz nekazaritza-guneetan. Neurri horiek, eskuragarritasunerako trabak eta oztopoak

identifikatu eta ezabatzea barne hartuko dutenak, aplikatuko dira, besteak beste, hurrengoei begira: Eraikinak, bide publikoak, garraioa eta barruko nahiz kanpoko beste instalazio batzuk, hala nola, eskolak, etxebizitzak, mediku-instalazioak eta lan egiteko lekuak; Informazioko, komunikazioko eta beste era bateko zerbitzuak, barnean direla zerbitzu elektronikoak eta larrialdi zerbitzuak ere» (ikus 1. Taula).

Desgaitasuna duten pertsonen eskubideen

Batzordeak biltzen ditu Konbentzioa interpretatzeko kontuan izan beharreko elementu nagusiak, orain arte emandako zazpi ohar orokorretan. Dokumentu horiek nazioarteko konbentzioaren garrantzi bereziko manuak osatzen, zehazten edo interpretatzen dituzte. Zehazki, bigarrenak egiten dio erreferentzia irisgarritasunaren gaineko 9. artikuluari. Ondoren, batzordeak egindako hainbat argibide biltzen dira, euskal estrategiarako interesgarrien izan daitezkeenak:

- (1) ***Irisgarritasuna aldez aurreko baldintza da, desgaitasuna duten pertsonak modu independentean bizi ahal izan daitezen eta gizartean erabat parte hartu ahal izan dezaten, berdintasun-baldintzetan.*** Ingurune fisikoa, garraioa, informazioa eta komunikazioak eskura izan gabe (informazioaren eta komunikazioen teknologiak eta sistemak barne), eta publikoari irekitako edo erabilera publikoko bestelako zerbitzuak eta instalazioak erabiltzeko aukera gabe, desgaitasuna duten pertsonak ez lukete gizartean parte hartzeko aukera-berdintasunik edukiko.
- (14) ***Irisgarritasuna argi eta garbi sendotzen da aldez aurreko baldintza gisa, desgaitasuna duten pertsonak modu independentean bizi ahal izan daitezen, parte-hartze erabatekoa eta berdintasunezkoa izan dezaten gizartean, eta mugarik gabe balia ditzaten beren giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztiak, gainerakoen berdintasun-baldintza berberetan (...).***

12 Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia

(15) Ondasun, produktu, instalazio, teknologia eta zerbitzu berri guztien diseinu unibertsalaren aplikazio zorrotzak erabateko irispidea bermatu behar die kontsumitzaile potentzial guztiei, berdintasunean oinarrituta eta inolako murrizketarik gabe, bai eta desgaitasuna duten pertsonen ere, haien duintasun eta aniztasun inrintrisekoak erabat kontuan izanda. Lagungarria izan behar du **persona espazio batetik bestera joateko mugapen gabeko kate bat sortzeko, baita espazio baten barruan ere, inolako oztoporik gabe (...).**

Diseinu unibertsalaren aplikazioaren ondorioz, gizartea irisgarria izango da gizaki guztientzat, eta ez desgaitasuna duten pertsonentzat bakarrik.

(24) Argi eta garbi bereizi behar dira, batetik, diseinatzen, eraikitzen edo ekoizten diren objektu, azpiegitura, ondasun, produktu eta zerbitzu berri guztien irispidea bermatzea eta, bestetik, oztopoak ezabatzeko obligazioa eta lehendik publikoarentzat irekita dauden ingurune fisikoak, garraioa, informazioa eta komunikazioa, eta zerbitzuak irisgarriak direla bermatzea.

(25) ***Irisgarritasuna pertsona taldeekin lotzen da; doikuntza arrazoizkoak, berriz, kasu indibidualekin daude lotuta. Horrek esan nahi du irisgarritasuna bermatzea ex ante obligazio bat dela (...).***

(26) ***Arrazoizko doikuntzak egitea ex nunc obligazioa da; horrek esan nahi du doikuntza horiek eskatzeko modukoak direla desgaitasuna duen pertsona batek egoera jakin batean behar baldin baditu (...).***

Desgaitasuna duten pertsonen eskubideen Konbentzioarekin eta ebaluazio-batzordearekin loturik, Nazio Batuen esparruan, garrantzitsua da **Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusiak** 2015eko irailean onartutako **garapen jasangarrirako helburuak** ezagutzea, zeinak **Garapen Jasangarrirako 2030erako Agendan** bildu baitzituzten (pertsonek, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza-plana, zeinaren beste helburu bat baita mundu osoan bakea indartzea eta justizia eskuragarri egitea).

1. taula

Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioa, Nazio Batuen Erakundea.

9. artikulua (Irisgarritasuna): Estatu alderdiek hartu beharreko neurri egokiak.

9. artikulua (Irisgarritasuna): Estatu alderdiek neurri egokiak hartuko dituzte hurrengoegi begira ere:

- a) Jendaurreko edo erabilera publikoko instalazioen eta zerbitzuen eskuragarritasunaren inguruan aplikatu beharreko gutxieneko arauak eta jarraibideak garatu, aldarrikatu eta gainbegiratzea;
- b) Jendaurreko edo erabilera publikoko instalazioak eta zerbitzuak eskaintzen dituzten erakunde pribatuek instalazio eta zerbitzu horiei dagokienez pertsona desgaituen eskuragarritasunerako alde guztiak kontuan har ditzatela ziurtatzea;
- c) Pertsona desgaituen eskuragarritasun-arazoetan inplikaturako pertsona guztiei prestakuntza eskaintzea;
- d) Jendaurreko eraikinak eta instalazioak hornitzea, Braille sisteman eta erraz irakurri nahiz ulertzeko formatuetan dauden seinaleekin;
- e) Giza edo animalia bidezko asistentzia-moduak eta bitartekariak eskaintzea, gidak, irakurgailuak eta zeinu-hizkuntzaren interprete profesionalak barne, eraikinetara eta jendaurreko beste instalazio batzuetara sartzeko errazteko;
- f) Pertsona desgaituei laguntza eta babesa emateko beste modu egoki batzuk sustatzea, horiek informazioa lortu ahal izatea ziurtatzeko;
- g) Pertsona desgaituek informazio eta komunikazioetarako sistema eta teknologia berriak, Internet barne, eskuragarri izan ditzatela sustatzea;
- h) Informazio eta komunikazioetarako sistema eta teknologia eskuragarrien diseinua, ekoizpena eta zabalkundea sustatzea etapa goiztiarrean, sistema eta teknologia horiek ahalik eta kosturik txikienez eskuratzeko modukoak izan daitezten.

Iturria: Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioa, Nazio Batuen Erakundea.

2.1.2. Europar Batasuna

Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen

Gutunak dioenez, «giza duintasuna urraezina da. Giza duintasuna errespetatu eta babestu egingo da», eta hauxe gaineratzen du: «Batasunak aitortu eta errespetatu egiten du desgaitasunen bat duten pertsonen autonomia izateko, gizartean eta lanean integratzeko, eta gizartearen bizitzan parte hartzeko duten eskubidea, eta hori bermatzeko hartzen diren neurriez baliatzekoa», eta galarazi egiten du desgaitasunaren ondoriozko diskriminazio oro. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (EBFT) arabera, Batasuna desgaitasun-arrazoiengatiko diskriminazio ororen kontra borrokatzen ahaleginduko da, eta desgaitasun arrazoiengatiko diskriminazio ororen aurkako neurri egokiak har ditzake.

Bestalde, **Desgaitasunari buruzko 2010-2020 aldirako Europako Estrategiak** ekintza-esparru bat ematen du, konbentzioan zehaztutako alderdiak aplikatzeko, estatu bakoitzak definitutakoaren osagarri.

2.1.3. Espainia

Estatuko arau-esparruari dagokionez, nabarmentzekoa da **1/2013 Legegintzako Errege Dekretua**, azaroaren 29koa, **desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bategina onartzen duena**. Lege-testu horrek aukera- eta tratu-berdintasunerako eskubidea bermatzen du, eta, horretaz gainera, bermatzen du desgaitasuna duten pertsonen modu errealean eta efektiboan balia ditzaketela eskubideok, gainerako herritarren baldintza berberetan. Hori lortzeko, honako alderdi hauek sustatzen ditu: autonomia pertsonala, irisgarritasun unibertsala, enplegua eskuratzea, komunitatean txertatzea eta bizimodu independentea, bai eta era guztietako diskriminazioak desagerraraztea ere.

Legegintzako Errege Dekretuaren **3. artikulua** legearen printzipioak nabarmentzen ditu:

- a) Pertsonen duintasuna, banakako autonomia, hor sartzeko delarik pertsonen dagozkien erabakiak hartzeko askatasuna ere, eta independentzia errespetatzea.

- b) Bizimodu independentea.
- c) Diskriminaziorik eza.
- d) Desberdintasuna errespetatzea eta pertsona desgaituak onartzea, giza aniztasunaren eta gizaki izatearen alderdi gisa ikusita.
- e) Aukera-berdintasuna.
- f) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.
- g) Normalizazioa.
- h) Irisgarritasun unibertsala.
- i) Diseinu unibertsala edo pertsona guztientzako diseinua.
- j) Gizartean erabat eta eraginkortasunez parte hartzea eta modu horretara jardunez gizarteratzea.
- k) Elkarrizketa zibila.
- l) Desgaitasunen bat duten pertsonen nortasunaren garapena errespetatzea, eta, bereziki, desgaitasunen bat duten haurrena, eta orobat errespetatzea haiek beren nortasuna zaintzeko duten eskubidea.
- m) Desgaitasunaren arloko politiken zeharkakotasuna.

1/2013 Legegintzako Errege Dekretuko **I. tituluak** alderdi bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak definitzen ditu. Eskubide hauexek zehazten eta sakontzen dira aipatu lege horretan:

- Berdintasunerako eskubidea.
- Prestazio sozial eta ekonomikoak eskuratzeko eskubidea.
- Osasuna babesteko eskubidea.
- Osoko arreta jasotzeko eskubidea.
- Hezkuntza-eskubidea.
- Bizimodu independentea izateko eskubidea (ekintza positiboko neurriak).
- Lanerako eskubidea (ohiko enplegua, babestua eta autonomoa).
- Babes sozialerako eskubidea.
- Gai publikoetan parte hartzeko eskubidea (bizitza politikoa eta publikoa).

14 Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia

Aipatu dekretuak 2017ko abenduaren 4a ezartzen du muga-egun gisa, esparru hauetan irisgarritasuneko eta diskriminaziorik ezeko oinarritzko baldintzak bermatzeko:

- Espazio publiko urbanizatueta eta eraikinetako irispidea eta erabilera (baliteke arrazoizko doikuntzak egiteko premian izatea).
- Garraiobideetako irispidea eta erabilera (baliteke arrazoizko doikuntzak egiteko premian izatea).
- Herritarren arretarako bulego publikoetan, dispositiboetan eta zerbitzuetan dauden inguruneak, produktuak eta zerbitzuak eta auzi publikoetan parte hartzekoak (Justizia Administrazioari, bizitza politikoari eta hauteskunde-prozesuei dagozkienak barne).

Informazioaren gizartearekin lotutako eta edozer hedabide sozialetako teknologiak, produktuak eta zerbitzuak eskuratzeko eta baliatzeko, 2013ko abenduaren 4a zen doikuntzak egiteko muga-eguna.

Hauak dira **indarrean dauden araudi eta dekretu** garrantzitsuenak:

- **1494/2007 Errege Dekretua**, azaroaren 12koa, desgaitasuna duten pertsonen informazioaren gizartearekin eta gizarte-hedabideekin lotutako teknologiak, produktuak eta zerbitzuak eskuratzeko oinarritzko baldintzei buruzko Erregelamendua onartzen duena.
- **505/2007 Errege Dekretua**, apirilaren 20koa, irisgarritasunerako oinarritzko baldintzak onartzen dituena, desgaitasuna duten pertsonen, diskriminatuak izan gabe, urbanizatueta eremu publikoetara eta eraikinetara sartu, eta horiek erabili ahal izateko.
- **VIV/561/2010 Agindua**, otsailaren 1ekoa, espazio publiko urbanizatuak irisgarri egiteko eta erabili ahal izateko irisgarritasuneko eta diskriminaziorik ezaren oinarritzko baldintzen dokumentu teknikoak garatzen duena.
- **314/2006 Errege Dekretua**, martxoaren 17koa,

Eraikingintzaren Kode Teknikoa onartzen duena.

- **Real Decreto 1544/2007**, azaroaren 23koa, ezinduek garraiobideetan sartzeko eta erabiltzeko irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren baldintzak arautzen dituena.
- **366/2007 Errege Dekretua**, martxoaren 16koa, desgaitasuna duten pertsonen Estatuko Administrazio Orokorrarekiko harremanetan behar dituzten irisgarritasun-baldintzak eta diskriminaziorik ezari lotutakoak ezartzen dituena.
- **27/2007 Legea**, urriaren 23koa, Espainiako keinu-hizkuntzak errekonozitu eta gorak, gor-itsuak eta entzumen urritasuna duten pertsonentzako komunikazio laguntzak jasotzen dituena.
- **1112/2018 Errege Dekretua**, irailaren 7koa, sektore publikoko webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen irisgarritasunari buruzkoa.

Estatuko araudiaren barruko beste xedapen interesgarri batzuei dagokienez, nabarmentzekoa da **9/2017 Legea**, azaroaren 8koa, **Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa**, batez ere kontratazio publikoan irisgarritasun-klausulak txertatzeari begira. Lege horren helburu nagusia da bermatzea sektore publikoko kontratuek betetzen dutela askatasun-printzipioa prozeduretako lizitazioak eskuratzeari, publizitateari eta gardentasunari dagokienez, eta, halaber, diskriminaziorik gabe eta tratu-berdintasunez gauzatzen dela lizitatuzaileen arteko lehia. Era berean, gizarte- eta ingurumen-irizpideak txertatzen ditu, modu zeharkakoan eta nahitaezkoan, betiere kontratuaren xedearekin loturik badaude.

2.1.4. Euskadi

Lege-testu hauen bidez etorri ziren Euskal Autonomia Erkidegoan irisgarritasunaren bidean egindako lehendabiziko urratsak: **59/1981 Dekretua**, martxoaren 23koa, **hirigintza-oztopoak kentzeko araubideei buruzkoa**, eta 16/1983 Dekretua, abenduaren 19koa, **etxegintzatikako oztopoak kentzeko araubideari buruzkoa**.

Dekretu horiek aitortu zuten euskal gizarteak erantzukizun

komunitario gisa hartu behar duela beharrezko bitartekoak ipintzea, desgaitasun fisikoak dituzten pertsonak dituzten mugak gainditu ahal izan ditzaten, gizartean eta alor profesionalean modu asegarri eta naturalean txertatzea eragozten dieten aldetik. Txertatu beharreko neurrien artean, legegileek iritzi zioten oinarritzkoa, lehendabizikoa eta premiazkoena dela oztopo fisikoekin loturikoa, desgaitasun fisikoak dituzten pertsonen irisgarritasuna eta mugikortasuna nabarmen baldintzatzen dituzten heinean. Oztopo fisikoen banaketa orokor bat egin zen: hirigintzakoak eta arkitektonikoak. Zatiketa horrexen ondorioz sortu zituzten lehen aipatu ditugun bi dekretuak.

- **Hirigintza-oztopoak:** eraikuntzarik gabeko espazioetan egon litezkeen oztopoak, eremu irekietakoak edo herritar guztien esku ipinitako tokietakoak.
- **Arkitektura-oztopoak:** eraikitako espazioetan daudenak; sarri, toki eta inguruabar indibidualizatuagoei egiten diete erreferentzia.

Era berean, dekretuaren artikuluek kontuan izan beharreko beste hainbat alderdi ere biltzen dituzte, hala nola definizio nagusiak (irisgarritasuna, hiriko altzariak eta urbanizazio-elementuak), nola jaso eskatutakoa betetzen dela egiaztatzen duen justifikazioa, nola diseinatu urbanizazioko eta hiri-altzarietako elementuak (bideak; zoladurak; espaloiak; zebra-bideak; eskailerak; arrapalak; aparkalekuak; parkeak, lorategiak eta plazak; komun publikoak; semaforoak; seinale bertikalak; iturri publikoak; telefono-kabinak; eta adierazpen-seinaleak.

Bigarren dekretuari dagokionez, helburu nagusia da eraikinak osatzen dituzten elementu arkitektonikoak diseinatzeko behar den araudia definitzea, edozer eratako minusbaliotasuna duten pertsonen beharrezko jarduna zaildu ez dezaten eraikinaren barruan irispide publikokoak diren espazioetan —izan minusbaliotasun hori organikoa edo zirkunstantziala, hala nola haurrak, haurdunak, zama daramaten pertsonak eta abar—, baldin eta ondoren zerrendatutako erabilera edo jardura batera bideratuak badira eremu horiek, titulartasuna publikoa edo pribatua izanik ere.

Dekretuak artikuluetan zehazten du nola egin arauok betetzearen justifikazioa eta nola diseinatu eraikinak eta hari atxikitako objektuak osatzen dituzten arkitektura-elementuak honako kasu hauetan: aparkalekuak,

sarrerak, igarobidea eta barne-komunikazioak, eskailerak, arrapalak, barruko ateak, eskubandak, igogailuak, telefonoak, komunak, aldagelak eta dutxak, ikasgelak eta bilera- eta ikuskizun-gelak.

Aurrekariok ikusirik, Eusko Legebiltzarrak beste lege bat onartu zuen: **20/1997 Legea, abenduaren 4koa, irisgarritasuna sustatzeko**. Lege horren xedea da hiri-ingurunearen, gune publikoen, eraikinen, garraibideen eta komunikazio-sistemen irisgarritasuna bermatzea, pertsona guztiek era autonomoan erabil eta balia ditzaten, eta, bereziki, mugikortasun murriztua, komunikatzeko zailtasunak edo beste edozein muga psikiko edo sentsorial (aldi baterakoa edo iraunkorra) dituzten pertsonak. Halaber, legeak zehazten du botere publikoek ekintza positiboko beharrezko neurriak hartzea bultzatuko dutela, eraginkortasunez aplika daitezten; halaber, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren sorrera ezartzen du.

Besteak beste, Irisgarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legeak hainbat xedapen orokor biltzen ditu irisgarritasunari buruz (hiri-inguruneak, espazio publikoak, eraikingintza, garraioa eta komunikazio-sistemak hizpide harturik). Horretaz gainera, erreserbak ezartzen dira hiri-ingurunean, espazio publikoetan eta erabilera publikoko eraikinetan (aparkalekuak, zerbitzu higienikoak, aldagelak eta dutxak...), ostatu turistikoetan eta bestelako establezimenduetan, etxebizitzatara bideratutako eraikinetan, garraioan eta komunikazio-sistemetan.

Era berean, irisgarritasuna bermatzeko eta sustatzeko lehendik dauden hiri-inguruneetan, espazio publikoetan, eraikinetan, garraibideetan eta informazio- eta komunikazio-sistemetan —titulartasun, erabilera edo zerbitzu publikokoak—, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek, udalek eta gainerako erakunde publikoek lau urteko programak egin beharko dituzte irisgarritasuna sustatzeko, guztia ere elementu horiek guztiak poliki-poliki aurreikusitako irisgarritasun-baldintzetara egokitzen joateko.

Bestalde, 20/1997 Legeari jarraipena emanez, zeinaren azken xedapenetatik bigarrenak aurreikusten baitu dagozkion arau teknikoak prestatzea, **68/2000 Dekretua onartu zen, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak**

16 Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia

onartzen dituen. Hau da, lege-erreminta horrek «pertsona guztientzako moduko diseinu unibertsala» taxutzeko garaian kontuan hartu beharreko baldintza teknikoak biltzen ditu, guztiak ere hiri-ingurunearekin, eraikingintzarekin eta komunikazio-sistemekin loturik (haiek guztiak 20/1997 Legea garatzeko araudi teknikoaren zati handi bat osatzen duten eranskinetan daude jasota).

Alde horretatik, 68/2000 Dekretuak irisgarritasunaren alorreko oinarrizko definizioak biltzen ditu, eta, horrekin batera, irisgarritasunean zailtasunak dituzten pertsona-taldeak identifikatzen. Halaber, neurriak, gorputz-dimentsioak, irismen- eta kontrol-egoerak, mugitzeko eta joan-etorrietarako espazio-beharrizanak eta beste hainbat alderdi biltzen ditu, guztiak ere kontuan hartu direnak edo hartu beharrekoak hiri-inguruneak, eraikingintza, garraioa eta komunikazio-sistemak taxutzeko (funtsezkoak 20/1997 Legearen garapenerako).

Garraioari dagokionez, Irisgarritasunaren Euskal Legea honako dekretu honek garatzen du: **126/2001 Dekretua, uztailaren 10ekoa, Garraioan Irisgarritasun-baldintzei buruzko Arau Teknikoak onesten dituen.**

Aurreko araudiaren ildo beretik, baina parte-hartze publikoaren garrantzia ardatz hartuta, nabarmentzekoa da **6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa.** Lege horren xedeak honako hauek dira: «Lehenik, hirugarren sektore soziala eratzea eta bere ezaugarriak ezartzea, hura osatzen duten erakunde eta sareen bitartez; bigarrenik, erakunde eta sare horiek indartzeko neurriak hartzea eta sustatzea; hirugarrenik, erakundeen lankidetzeta eta elkarlana bultzatzea, elkarrekiko eta sektore publikoarekin nahiz enpresekin izan beharrekoa; eta azkenik, hirugarren sektore sozialaren parte-hartzea sustatzea eta ekarpena egitea, oro har, esku-hartze sozialean, eta zehazkiago, esparru horrekin lotutako erantzukizun publikoko politika eta sistemetan».

Hori hala, bereziki interesgarritzat jotzen dira elkarrizketa zibilar eta demokrazia partizipatiboari buruzko xedapenak, legearen 6. eta 7. artikuluetan zehazten direnak:

(6d) Euskal administrazio publikoek Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeei eta sareei bermatuko diete Administrazioaren jardun-esparru guztietan beren iritzia publikoki elkarri adierazteko eskubidea, eta erakunde eta sare horiekin elkarrizketa irekia,

gardena eta ohikoa izango dute politika sozialen gainean; horretarako, elkarrizketa zibileko mahaiak abiaraziko dituzte, eta kontsulta-organoetan edo horretarako abiarazitako prozesu espezifikoetan parte hartuko dute.

- (7.1) Elkarrizketa zibilarren printzipioari jarraiki, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakunde eta sareek, eta horien bitartez esku-hartze sozialaren hartzaile eta protagonista diren pertsona, familia, kolektibo eta komunitateek, eskubidea izango dute ukitzen dituzten politika publikoetan parte hartzeko, politika publiko horien edozein fasetan, egikaritze-fasea barne, betiere lege honetan eta sistema bakoitza erregulatzen duen araudian jasotako baldintzei jarraiki, kaltetu gabe hala ere erakunde bakoitzaren gobernu-organoei dagozkien erabaki-gaitasunak.
- (7.2) Sektore publikoaren eta hirugarren sektore sozialeko erakunde eta sareen arteko elkarrizketarako eta lankidetzarako prozesu formala da elkarrizketa zibila, helburu duena orientatzea, bultzatzea eta ebaluatzea sektore publikoak eta hirugarren sektore sozialak esku-hartze sozialaren esparruan abiarazi beharreko politika sozialak eta bestelako ekimenak.
- (7.3) Eusko Jaurlaritzak, Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren edo hura ordezkatzeko duen erakundearen bitartez, elkarrizketa etengabe, operatibo eta binoranzkoa edukiko Euskadiko hirugarren sektore sozialeko sareekin, gobernu-ekintzari dagokionez, eta baita erakunde eta sareek esku-hartze sozialaren esparruan gauzatutako ekintzari dagokionez ere, baldin eta ekintza horrek ekimen jakin batzuk sortzen baditu alderdietako edozeinek bultzatu beharrekoak edo lankidetzan bultzatu beharrekoak, horien jarraipena eta ebaluazioa eginez.
- (7.4) Era berean elkarrizketa horren helburua izango da aurrerapenak egitea eskubideak errekonozitzen eta benetan erabilgarri egiten horiek baliarazteko zailtasun handienak dituzten pertsona, familia, kolektibo eta komunitateei.
- (7.5) Foru-aldundiek eta toki-erakundeek ere ezaugarri horietako beretako elkarrizketa edukiko dute, egokituz jotzen dituzten baliabideen bitartez, beren lurraldeetan jarduerak gauzatzen dituzten Euskadiko hirugarren

(7.6) Eusko Legebiltzarrak eta lurralde historiko bakoitzeko batzar nagusiek, halaber, elkarrizketa zibila sustatuko dute hirugarren sektore sozialeko sareekin.

(7.7) Euskal sektore publikoak neurriak bultzatuko ditu hirugarren sektore sozialak hirugarren sektore sozialarekin eta esku-hartze sozialarekin zerikusia

duen jarduera publikoko politketan eta ildoetan eduki beharreko partizipazio erreal eta efektiboan sakontze aldera, aholku-ematetik harago joanik, kontuan hartuz ukitutako pertsona eta kolektiboen beharizanak eta eskaerak, eta bermatuz pertsona eta kolektibo horiek eta erakundeek partizipazio efektiboa eta eragina edukitzea aipatutako politiken eta ekintza-ildoen diseinuan, exekuzioan, jarraipenean eta ebaluazioan.

2.2. Erreferentziako estrategiak eta planak

2.2.1. Desgaitasunari buruzko europako estrategia, 2010-2020

sektore sozialeko sareekin..

Europar Batasunak eta estatu kideek planteatu dute desgaitasuna duten pertsonen egoera soziala eta ekonomikoa hobetzea, eta, horretarako, oztoporik gabeko Europaren aldeko konpromisoa berritu dute, **Desgaitasunari buruzko Europako 2010-2020 aldirako Estrategian**. Estrategia horren helburua hauex da: «Desgaitasuna duten pertsonak gaitzea, eskubide guztiez gozatu eta erabateko partaidetza baliatu ahal izan dezaten Europako gizarte eta ekonomian, bereziki Europar Batasuneko barne-merkatuaren bidez».

Desgaitasunari buruzko Europako 2010-2020 aldirako Estrategiak desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa du oinarri, eta Europa 2020 Estrategia osatzen du (EBren estrategia, hazkunde adimentsua, jasangarria eta bateratzailea lortzeko), bai eta Lisboako Itunean bildutako Europar Batasuneko Oinarriko Eskubideen Gutuna ere. Estrategia horretan, Batzordeak zortzi jarduerasparru funtsezko identifikatu ditu: irisgarritasuna, parte-hartzea, berdintasuna, enplegua, hezkuntza eta prestakuntza, gizarte-babesa, osasungintza eta kanpo-harremanak (ikusi 2.Taula)

Zehazki, irisgarritasunarekin loturik, estrategiak adierazten du irisgarritasuna alde zuzeneko baldintza dela gizartean eta ekonomian parte hartu ahal izateko. Hori dela medio, legegintzako

eta bestelako erremintak baliatzea proposatzen du, hala nola normalizazioa —irisgarritasuna optimizatzeko eraikitako inguruetan—, garraioa eta IKTak. Erregulazio adimentsuago baten printzipioetatik abiatuz, Batzordeak aztertu nahi du zer onura ekar ditzakeen produktuen eta zerbitzuen irisgarritasuna bermatzeko legegintza-neurriak hartzeak, kontratazio publikoa areagotzera bideratutako neurriak ere barnean hartuz. Era berean, hezkuntzako eta lanbide-heziketako ikasketa-planetan ere txertatu nahi da irisgarritasuna eta «guztientzako diseinua», eta, horretaz gainera, babes-teknologiaren alorreko EBko merkatu bat ere sustatu nahi da.

Bestalde, Desgaitasunari buruzko Europako 2010-2020 aldirako Estrategiak hainbat erreminta orokor biltzen ditu, guztiak ere beharrezkoak hura praktikan ipintzeko. Hauexek dira:

1) Sentsibilizazioa: Desgaitasunaren alderdi guztiei buruzko kontzientzia piztea gizartean, eta desgaitasuna duten pertsonen neurri handiagoan ematea informazioa, bai haien eskubideen gainean, bai eskubide horiek egikaritzeko moduaren gainean.

2) Finantza-babesa: EBko finantzaketa-erremintak erabilera optimizatzea, irisgarritasuna eta diskriminaziorik eza sustatzeko eta 2013 osteko programetako finantzaketa-aukerei ikusgarritasuna

18 Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia

2. taula

Desgaitasunari buruzko Europako 2010-2020 aldirako Estrategia: Lehentasunezko jarduera-esparruak.

Irisgarritasuna

Asegurar que las personas con discapacidad tengan acceso a bienes, servicios y dispositivos de asistencia.

Parte-hartzea

Desgaitasuna duten pertsonen ondasun, zerbitzu eta laguntza-dispositiboak eskuratzeko modua badutela ziurtatzea.

Berdintasuna

Berdintasuna sustatzen duten politikak aplikatzen direla bermatzea (EBkoak nahiz estatu mailakoak).

Enplegua

Desgaitasuna duten langileen kopurua areagotzea lan-merkatuan, eta pertsona horiei irisgarritasun hobea bermatzea lantokietarako.

Hezkuntza eta prestakuntza

Desgaitasuna duten ikasleek hezkuntza-sistema irisgarria eta etengabeko ikaskuntza-programak eskuratzeko dituztela bermatzea. Europako Batzordeak hainbat ekimen ipini ditu martxan hezkuntzarekin loturik, hala nola Hezkuntza Berezia Garatzeko Europako Agentzia.

Gizarte-babesa

Desgaitasuna duten pertsonen bizi dituzten erronka sozialei aurre egitea, hala nola diru-sarreraren desberdintasuna, pobrezia-arriskua eta gizarte-bazterkeria. EBko egitura-funtsak ez ezik, EBko estatu kideetako neurri nazionalak ere baliatu litezke gizarte-babes hori bermatzeko.

Osasuna

Desgaitasuna duten pertsonen modu berean eta eskuragarrian baliatu ahal izatea osasun (mentaleko) zerbitzuak eta instalazioak.

Kanpo-harremanak

Desgaitasuna duten pertsonen eskubideak nazioartean sustatzea.

emateko, betiere desgaitasunarekin loturik.

3) Estatistikak eta datuen bilketa eta jarraipena:

Desgaitasunarekin lotutako alderdiei buruz aldiari-aldiari egiten diren estatistikak osatzea, eguneratuta egoteko kolektibo horretako pertsonen egoerari buruz.

4) Konbentzioak eskatzen dituen mekanismoak:

Koordinazio-mekanismoak ezartzea, bai Batzordeko eta Batasuneko erakundeen arteko zerbitzuen arteko erremintetan oinarrituta, bai EBko eta estatu kideen arteko zerbitzuetan oinarrituta, eta jarraipen-esparru bat osatzea, mekanismo independente bat edo gehiago biltzen dituen, desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa aplikatzen dela sustatzeko, babesteko eta gainbegiratzeko.

Azkenik, nabarmentzekoa da Desgaitasunari buruzko Europako 2010-2020 aldirako Estrategiaren esparruan, orain arte, hainbat aurrerapen gertatu dela. Adibidez:

- 2016ko urriaren 26ko Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2016/2102 Zuzentaraua (EB) onartzea, sektore publikoko erakundeen webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen irisgarritasunari buruzkoa. Espainiaren kasuan, 2018ko irailaren 7ko 1112/2018 Errege Dekretuak ekartzen du zuzentarau hori lege-ordenamendu nazionalera.
- 2015eko abenduan, Europako Batzordeak Europako irisgarritasunari buruzko lege-proposamena argitaratu zuen; haren bidez, hainbat produktuk eta zerbitzuek gutxienezko hainbat irisgarritasun-eskakizun bete beharko dituzte, desgaitasuna duten pertsonen begira. Oraindik ere izapidetze-lanak egiten ari dira lege hori onartzeko. Europako Irisgarritasun Legeak Europar Batasuneko herrialde batzuen eta besteen artean irisgarritasun-eskakizunetan aldeak sortzeko arrisku handiena duten produktuak eta zerbitzuak estaltzen ditu, eta, bereziki, honako hauek hartzen ditu barnean: ordenagailuak eta sistema eragileak; kutxazainak, sarrerak saltzeko makinak, eta tankerakoak; smartphoneak, telebista digitaleko ekipamenduak eta telefonia-ekipamenduak; bidaiarien aireko garraioa, autobusak, trenbidea; ura; banku-zerbitzuak; liburu elektronikoak... Europako Legebiltzarraren aurreikuspena zen lege hori 2019ko apirilean

2.2.2. Desgaitasunari buruzko espainiako estrategia 2012-2020

onartzea behin betiko.

Desgaitasunari buruzko Espainiako 2012-2020

aldirako Estrategiaren xedea da Europa 2020

Estrategiako helburuak betetzen laguntzea, desgaitasuna duten pertsonen egoera hainbat esparrutan hobetzera bideratutako ekintzen bidez —hala nola lan-merkatuan, hezkuntzan edo pobrezia-ekin eta bazterkeriarekin loturik—.

Estrategia horren xedea, horrenbestez, desgaitasuna duten pertsonak eskubide guztiak baliatu ahal izatera dago bideratuta: gizarteak, oro har, eta desgaitasuna duten pertsonak, bereziki, izan dezatela azken horiek ekonomiari egindako ekarpenaren onurak jasotzeko aukera, guztia ere aukerak sortuz eta eskubideak irmotuz. Horretaz gainera, hainbat helburu nagusi identifikatzen dira. Hona hemen:

a) Irisgarritasuna: ulertzen da desgaitasuna duten pertsonak gainerako biztanleen baldintza beretan iritsi behar dutela ingurune fisikora, garraiora, informazio eta komunikazioen teknologia (IKT) eta sistemetara, eta gainerako instalazio eta zerbitzuetara.

b) Jakintza: desgaitasuna duten pertsonak Espainian

bizi dituzten baldintzen gaineko egiazko ezagutza hobetzea, hobeto jakitea zer oztopo izaten dituzten pertsona horiek eguneroko bizimoduan.


c) Parte-hartzea: desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzea sustatu behar da ekintzetan, jardunaldietan, instalazioetan, ondasun eta zerbitzuetan, barnean harturik kirola, aisialdia eta abar. Halaber, haien parte-hartzea bultzatu behar da erabakiak hartzeko prozesuetan eta politika publikoak egikaritzean.

d) Berdintasuna: tratu-berdintasuna bultzatuko da desgaitasuna duten pertsonakiko; alde batetik, indarrean den legeria baliatuko da era guztietako diskriminazioetatik babesteko eta halako egoerak debekatzeko, desagerrarazteko eta zigortzeko, eta, bestetik, ekintza positiboko neurrien politika aktibo bat aplikatuko da, aukera-berdintasuna bultzatzeko eta desgaitasuna duten pertsonak esparru guztietan barneratzeko.

e) Diskriminaziorik eza: neurriak sustatuko dira, desgaitasuna duten pertsonak eta haien familiek aurre egin beharreko gainkostuek eragiten duten konparazio bidegabea desagerrarazteko —gainerako biztanleekin alderaturik, garestiago baitzaie bizimodu normalizatua garatzea—.

1. grafikoa

Desgaitasunari buruzko Espainiako 2012-2020 aldirako Estrategia inspiratu duten printzipioak



20 Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia

Arretagunea irisgarritasunaren esparruan ipiniz, Espainiako desgaitasun-estrategiak honako neurri estrategiko hauek proposatzen ditu, esparru jakin horrekin loturik:

1. Desgaitasunari buruzko Europako 2010-2020 aldirako Estrategian proposatzen den Europako Irisgarritasun Aktaren onarpena babestea EBn.
2. Desgaitasuna duten pertsonak IKTak eskuratzeko estrategia global bat prestatzea.
3. Irisgarritasun unibertsala oinarritzko faktore gisa txertatzea, eta kontuan hartzea arau eta politika publiko guztiak prestatzean eta aplikatzean.
4. Desgaitasuna duten pertsonak IKTen alorrean presta daitezen sustatzea, eta kudeatzaile eta operadore informatiko guztiak «guztientzako diseinuan» trebatzea.
5. Ministerioetako irisgarritasun-plangintzak bateratzeko bidean aurrera egitea.

Era berean, Desgaitasunari buruzko Espainiako 2012-2020 aldirako Estrategian bildutako jarduera-ildoak ekintza-neurri espezifikoko batzuen bidez zehazten dira, bai eta haiei dagozkien helburu estrategiko eta operatibo bidez ere. Guztiak ere ekintza-plan batean daude jasota.

Hori hala, irisgarritasunaren esparruari dagokionez, Desgaitasunari buruzko Espainiako Estrategiaren 2014-2020 aldirako Ekintza Planak helburu estrategiko moduan jasotzen du irisgarritasun unibertsala sustatzea ondasun eta zerbitzuetan. Helburu estrategiko horrekin, sei helburu operatibo lotzen dira, eta haietako bakoitzerako hainbat ekintza konkretu daude definituta (ikus 2. grafikoa).

2.2.2. I irisgarritasun plan nazionala, 2004-2012

2004-2012 aldirako I. Irisgarritasun Plan Nazionalaren bidez, Estatuko Administrazio Orokorak planteatu zuen inguruneak, zerbitzuak eta produktuak eraldatzea modu ordenatuan eta beste administrazioekin batera, pertsona guztientzat irisgarri bilakatzeko, bereziki desgaitasuna duten pertsonen begira. Hori hala, 2004-2012 aldirako I. Irisgarritasun Plan Nazionala ekintza-esparru estrategiko bat da, ingurune, produktu eta zerbitzu berriak modu irisgarrian gauza daitezen ahalik eta pertsona gehienentzat («guztientzako diseinua»), eta, lehendik martxan direnak, berriz, komeni den moduan egokitzen joan daitezen. Plana garatzeko beharra 51/2003 Legeak piztu zuen (desgaitasuna duten pertsonen aukera-berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzkoa).

2. grafikoa

Desgaitasunari buruzko Espainiako Estrategiaren 2014-2020 aldirako Ekintza Plana: Irisgarritasunaren alorreko helburuak.

Helburu estrategikoa: Irisgarritasun unibertsala sustatzea ondasun eta zerbitzuetan

1. Irisgarritasuna sustatzea informazioaren eta komunikazioaren teknologietan.
2. Irisgarritasun unibertsalaren presentzia sustatzea, bai politika publikoetan, bai enpresa-estrategietan, eta, horrela, desgaitasuna duten pertsonen premiei erantzutea.
3. Irisgarritasun unibertsalean eta guztientzako diseinuan eurrera egitea, garapen-maila handiagoa eskatzen duten esparru espezifikoeetan.
4. Desgaitasunaren eta irisgarritasun unibertsalaren presentzia sustatzea Espainiaren kanpo-harremanetan.
5. Bitartekoak bideratzeko erraztasunak ematea, desgaitasuna duten pertsonen bizimodu independenterako eskubidea bermatzeko.
6. Desgaitasunari buruzko informazio eskuragarria izateko sistema moderno bat sustatzea.

Zehazki, honako bost helburu hauek ditu 2004-2012 aldirako I. Irisgarritasun Plan Nazionalak:

1. Guztientzako diseinuaren paradigma sendotzea, eta produktu, ingurune eta zerbitzu berrietan ezartzea. Irisgarritasunaren gaineko jakintza eta aplikazioa zabaltzea.
2. Irisgarritasuna kudeaketa publikoaren kalitate-irizpide funtsezko gisa txertatzea.
3. Irisgarritasuna sustatzeko arau-sistema bat lortzea, osoa, efizientea eta lurraldean aplikazio zabala izango duena.
4. Inguruneak, produktuak eta zerbitzuak poliki-poliki eta modu orekatuan guztientzako diseinura egokitzen joatea.
5. Irisgarritasuna sustatzea teknologia berrietan.

Halaber, planak hainbat printzipio orokor ditu abiapuntu, eta haiexek osatzen dute bere jardunaren euskarria eta justifikazioa: aukera-berdintasuna, bizimodu independentea, jasangarritasuna eta parte-hartzea.

Bestalde, jarduera-ildoak dira planaren bizkarrezurra: kontzientziazioa eta prestakuntza, araudi legala eta teknikoak, berrikuntza eta kalitatea, plan eta programa berritzaileak, eta parte-hartzea. Bost jarduera-ildo horiek hainbat estrategia ematen dituzte, ekintza-esparru horren barruan aplikatzeko, bai eta martxan ipintzeko hainbat eta hainbat ekintza konkretu ere. Hurrengo taulan, plana ardazten duten jarduera-ildoak daude jasota, haietako bakoitza estrategia-multzo batekin loturik (ikus 3. taula).

3. grafikoa

2004-2012 aldirako I. Irisgarritasun Plan Nazionalaren printzipio orokorrak.



3. taula

2004-2012 aldirako I. Irisgarritasun Plan Nazionalaren jarduera-ildoak eta estrategiak.

Kontzientziazioa eta prestakuntza	Estrategia 1: Kontzientziazioa
	Estrategia 2: Prestakuntza
	Estrategia 3: Guztientzako diseinua txertatzea unibertsitate-ikasketa guztietan
	Estrategia 4: Guztientzako diseinua txertatzea lehen hezkuntzan
Araudi legal eta teknikoak	Estrategia 5: Irisgarritasun-araudia eraginkortasunez betetzea
	Estrategia 6: Irisgarritasunaren lege-araudia egokitzea
	Estrategia 7: Irisgarritasuna araudi sektorialean txertatzea
	Estrategia 8: Irisgarritasuna erosketa eta kontratu publikoen eskakizun gisa sartzea
Berrikuntza eta kalitatea	Estrategia 9: Kalitatea sustatzea
	Estrategia 10: Ikerketa eta garapen teknikoa sustatzea
Plan eta programa berritzaileak	Estrategia 11: Irisgarritasun sentsorialari laguntzeko zerbitzuak eta teknologiak sustatzea
	Estrategia 12: Zeinu-hizkuntza sustatzea
	Estrategia 13: Irisgarritasuna sustatzeko lurralde-planak hobetzea
	Estrategia 14: Bizitegi-erabilera erakinak egokitzea
	Estrategia 15: I. motako erabilera publikoko eraikinetan (titulartasun publikoa) egokitze-, kontserbazio- eta mantentze-lanak egitea
	Estrategia 16: II. motako erabilera publikoko eraikinetan (titulartasun pribatua) egokitze-, kontserbazio- eta mantentze-lanak egitea
	Estrategia 17: Irisgarritasuna txertatzea garraio bide publikoetan
Parte-hartzea	Estrategia 18: Parte-hartzea sustatzea

2.3. Gako-kontzeptuak: oztopoak erretiratzetik irisgarritasun unibertsalera

Beraz, bada esparru orokor bat, ikuspegi asistentzialista gainditzen duena, eta, horrenbestez, irisgarritasuna ez da ikusten hirigintzako eta arkitekturako alderdiak xede dituen alor gisa bakarrik. Giza eskubideek eta pertsonen duintasunak eskaintzen dute estrategia horren esparrua.

Arau-esparrua honako kontzeptu honekin doa lerrokaturik: «Desgaitasuna egoera bat da, eta ez pertsonaren atributu bat. Eta pertsona bat desgaitasun-egoeran egongo da, ezin badu gizartean parte hartu» (Funtzionamenduaren, Desgaitasunaren eta Osasunaren Nazioarteko Sailkapena – OME, 2011). Esaldi horien inplikazioak ez dira nolanhikoak, eta erabakigarri suertatzen dira estrategia honetan.

Pertsonaren barne- zein kanpo-faktoreek eragiten dute parte-hartze sozialik ez egotea. Parte-hartze soziala kate batean zehar igarotzen da; bertan, pertsonak «funtzionatu» egin behar du, eta, handik abiatuta, egitekoak lau geruzatan gauzatu behar ditu, barnetik kanporantz: bere gaitasunean, ingurune hurbilean eskura dituen babesetan, ingurune orokor-komunitarioan eta balioetan. Hala, inguruneko irisgarritasunik eza faktore «desgaitzaile» gisa eratzen da (ingurunetzat hartzen da espazio fisikoa, haren erabilera eta ulermena, barnean harturik garraioa, esparru digitala eta IKTen esparrua).

Ingurune irisgarri baten bidez pertsonak autonomia handiagoz funtziona dezakete, eta murriztu egiten dute mendekotasun-maila, haien mugapen fisikoak edo gaitasunarekin lotutakoak gorabehera. Finean, hobeto balia ditzakete eskubideak.

Puntu honetan, 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan bildutako definizioak hartzen dira gako-kontzeptu gisa:

- **Irisgarritasun unibertsala:** Irisgarritasun unibertsala: inguruek, prozesuek, ondasunek, produktuek eta zerbitzuek, hala nola objektuek, tresnek, lanabesek eta gailuek bete behar duten baldintza da, segurtasunez eta erosotasunez ulertu, erabil eta gauzatu daitezzen, ahal denik

eta modurik autonomoen eta naturalenean. Diseinu unibertsalaren edo pertsona guztientzako diseinuaren estrategia dakar berekin, hargatik eragotzi gabe zentzuzko doikuntzak egin behar direnean hala egitea.

- **Diseinu unibertsala edo guztientzako diseinua:** jarduera honen bitartez, hasiera-hasieratik pentsatzen edo proiektatzen dira, ahal den neurrian, inguruak, prozesuak, ondasunak, produktuak, zerbitzuak, objektuak, tresnak, egitasmoak, gailuak edo tresnak, pertsona guztiek ahalik eta gehien erabiltzeko moduan, ez egokitzerik ez diseinu espezializaturik beharrik gabe. «Diseinu unibertsala edo pertsona guztientzako diseinua» erabiltzen denean, ez dira baztertzen desgaitasunen bat duten pertsona jakin batzuen multzoentzako laguntza-produktuak, behar badituzte.
- **Arrazoizko doikuntzak:** ingurune fisikoan, gizartean eta jokabideetan egin beharreko aldaketak eta egokitzeak dira, desgaitasunen bat duten pertsonen beharrian espezifikoen arabera egiten direnak, karga neurrigabe edo bidegaberik ezarri gabe, betiere modu eraginkor eta praktikoa batez beharrezkoak badira, desgaitasunen bat duten pertsonen irisgarritasuna eta parte hartzea errazteko eta eskubide guztiak gainerakoek baldintza berdinetan gozatu eta baliatu ahal dituztela bermatzeko.

Beharrezkoa da irisgarritasun unibertsalaren kontzeptuaren testuingurua ematea herritar gisa eskubideak baliatzeko planoan, eta izan dituen eboluzioa eta inplikazio praktikoa bistaratzeko.

Irisgarritasun unibertsalaren kontzeptua, aukera-berdintasunarekin eta diskriminaziorik ezarekin batera, konbentzioaren aurretik txertatu zen gure ordenamendu juridikoan: hain zuzen ere, indargabetutako 51/2003 Legearen eskutik (desgaitasuna duten pertsonen aukera-berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzkoa; LINDAU, gaztelaniazko akronimoaren arabera). Arau hori egun indarrean dagoen 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan dago

bateginda. Zioen azalpenean, esku hartzeko bi estrategia nabarmentzen zituen, desgaitasuna duten pertsonen desabantailak eragiten dizkieten baldintza pertsonaletan ez ezik ingurumen-baldintzetan ere aldi berean eragiteko: batetik, «diskriminazioaren kontrako borroka» eta, bestetik, «irisgarritasun unibertsala». Planteatzen zuenaren arabera, irisgarritasunaren kontzeptua jatorriz oso loturik dago «bizimodu independentearen» ereduarekin, zeinak pertsona horien parte-hartze aktiboagoa defendatzen baitu komunitatean, oinarri berriak ipinita: eskubideak dituzten herritarrak; beren existentziaren gaineko erabakiak hartzeko eskubidea baliatzen duten subjektu aktiboak, eta ez besteren erabakien mende dauden paziente edo onuradun hutsak; beharizan arruntak asetzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak, eta gainerako herritarren aldean beharizan desberdinak dituztenak; eta, azkenik, beharizan horiei erantzuteko babes pertsonalak behar dituzten herritarrak, baina baita erabateko parte-hartzea galarazten dieten trabak desagerrarazteko inguruneetako aldaketak behar dituztenak ere. Amaitzeko, adierazten du «inguruneak, produktuak eta zerbitzuak ez eguneratzea, zalantzarik gabe, diskriminazio-modu sotila baina oso eraginkorra» dela, zeharkako diskriminazioa kasu honetan; «izan ere, egiazko desabantaila sorrarazten die desgaitasuna duten pertsonen halakorik ez duten pertsonen aldean, eta beste horrenbeste gertatzen da, halaber, arau, irizpide edo praktika batek aldekatasun txikiagoz tratatzen duenean desgaitasuna duen pertsona bat, halakorik ez duen beste baten aldean».

Irisgarritasun unibertsalaren kontzeptua, hortaz, askoz areago doa «irisgarritasunari» buruzko lehendabiziko kontzeptzioetatik, eta ez da arkitektura- eta hirigintza-oztopoak erretiratze hutsa desgaitasuna duten pertsonen mugikortasuna bermatzeko. Guztia ere garrantzi bikoitz batekin:

1. Batetik, **kontzeptu hori estu loturik dago desgaitasuna duten pertsonak eskubide osoko herritar gisa hartzearekin.**
2. Bestetik, gizarte osoaren onurari eragiten dioten

elementu gisa hartzen dira irisgarritasun unibertsala eta guztientzako diseinua. Irisgarritasun unibertsala, horrenbestez, herritar guztien aurrerapenari eta guztion ongiri egindako ekarpena da.

Irisgarritasun unibertsalak eta guztientzako diseinuak hainbat ondorio eta aldaketa eragin dituzte haien aplikazioa praktikan gauzatzeko eta ulertzeko moduan:

1. Irisgarritasun unibertsalak eskatzen du **persona guztiek baliatzeko baldintzak bermatu behar direla, salbuespenik gabe**, ibilbide, ingurune, prozesu, ondasun, produktu, zerbitzu, objektu, erreminta, tresna eta dispositibo guztietan. Esate baterako, ez da irisgarritasun unibertsala izango ordezkari aukera gisa ibilbide espezifikoak ipintzea, gainerako herritarrek oro har baliatzen dituztenetatik aldenduak, desgaitasuna duten pertsonen espazio edo zerbitzu berberak baliatzen dituztenak... (konparazio batera, atzeko ate bat edo sarrera jakin bat gaitzea desgaitasuna duten pertsonentzat).
2. Irisgarritasun unibertsala **«irisgarritasunaren kate»** osoan hartu behar da aintzakotzat: «Ondasun edo zerbitzu bat eskuratzeko eta gozatzeko prozesuan esku hartzen duten elementuen eta ekintzen multzoa, pertsonak eta inguruneak elkarrekin eragiteko aukera ematen duena eta prozesu hori jarraian eta etenik gabe gauzatzeko aukera ematen duena, maila guztietan: fisikoa, informatiboa, komunikatiboa eta kognitiboa» (erreferentzia: Desgaitasuna duten pertsonen eskubideak bermatzeko abenduaren 21eko 9/2018 Kantabriako Legearen 4.1) artikulua). Hau da:
 - a) zerbitzu, produktu edo bitarteko jakin bat eskuratzeko egiten den **ibilbidea osorik** hartzen da kontuan, eta urrats guztiek izan behar dute irisgarriak, hala nola bitartekora iristeko garraiobidea, sarrera, bitartekoari buruzko informazioa, eraikin osoan ibiltzeko modua (igarobideak, ateak, eskailerak, igogailuak...), komunak eta abar. Eta, gainera, **«modu jarraituan eta etenik gabe»** izan behar dute irisgarri.
 - b) Irisgarritasunaren maila edo dimentsio guztiak

24 Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia

aintzat harturik, eta pertsonak izan ditzaketen zailtasunen arabera (ikusmena, entzumena, ulermena, komunikazioa, mugimendua, joan-etorriak...): «fisikoa, informatiboa, komunikatiboa eta kognitiboa», eta prozesu osoan zehar.

3. Hori hala, irisgarritasun unibertsalak gainditu egiten du **desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba-kuoten eredia**, desberdintasuna desagerrarazteko edo murrizteko ekintza positiboko neurri gisa, **eta pertsona guztientzako irisgarritasun-eredu baterako bidea egiten du**: ibilbide, ingurune, prozesu, ondasun, produktu, zerbitzu, objektu, tresna, erreminta eta dispositibo guztiak izango dira irisgarri, sortzen, diseinatzen eta exekutatzeko unetik. Irisgarritasun unibertsalak esan nahi du herritar orok, edozer izanik ere haren desgaitasuna edo mugitzeko, komunikatzeko, ulertzeko eta abarretarako zailtasuna, beste edozer pertsonak bezalaxe baliatu ahal izango dituela espazio, produktu, zerbitzu eta gainerako guztiak, desberdintasunik, kuotarik, ezohiko neurrik eta bestelakorik gabe.

4. Finean, **irisgarritasun unibertsala arau orokorra da, eta ez salbuespen etengabea**: irisgarritasun unibertsaleko baldintzak betetzeko salbuespenak ezin litezke arau orokor bilakatu. Horrek zera eskatzen du:

- a) Beti bete behar dira lehenetasunez irisgarritasun unibertsaleko irizpideak.
- b) Ez dira onartzekoak salbuespenak eraikin, espazio, objektu, dispositibo, produktu eta gainerako berriez ari garenean.
- c) Bereziki, ez da onartzekoa inoiz ere irisgarritasunari buruzko araudia ez aplikatzea edo ez betetzea espazio eta eraikin publikoetan, zerbitzu publikoetan edo erantzukizun publikoko zerbitzuetan.
- d) Urbanizazio eta eraikinen esparruan bakarrik, berritzeko, zabaltzeko edo aldatzeko lanak egitean, eta ez badira c) letran azaldutako espazioak, onar liteke irisgarritasun unibertsalaren baldintzak betetzeko tokian erabilgarritasun-baldintzak aplikatzea, betiere ezaugarri

orografikoek eta/edo estrukturalak galarazi egiten badute lehendabizikoen aplikazioa, eta, gainera, ezinezkoa baldin bada zailtasun orografiko edo estruktural horiek gainditzea, laguntza teknikoak edo bestelako doikuntza tekniko egokiak eta irisgarriak aplikatzea (arrapalak, igogailuak, jasogailuak eta abar).

e) Kasu guztietan, justifikatu egin beharko da zailtasun orografikoak edo estrukturalak gainditzeko ezintasun hori, eta azaldu beharko da ezinezkoa dela haiek gainditzeko laguntza edo doikuntza tekniko hutsen bitartez; zorrotzasunez azaldu beharko da, gai honen inguruan eskumena duen erakunde publiko baten egiaztapen eta kontrolarekin —nahitaezko eskakizuna eta loteslea izango da erakunde horren erabakia—.

5. Ez da zilegi «egokitzapen arrazoizkoek» hitz egitea termino juridiko moduan, jarraibide eta irizpide argirik eta objektiborik gabe.

Konbentzioak, 2. artikularen 5. zenbakian, «doikuntza arrazoizkoen» terminoa txertatzen du: «Kasuan-kasuan, beharrezko eta egoki diren moldaketak eta egokitzapenak dira, gehiegizkoa edo bidegabea den zamarik ezartzen ez dutenak, gutxitasuna duten pertsonen giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztiak gainerako aukera berdinekin gozatuko edo gauzatu dituztela bermatzeko».

Hain justu, doikuntza arrazoizkoak berdintasuna sustatzeko eta diskriminazioa desagerrarazteko neurriak dira, kasu berezi batean: «Berdintasuna sustatzeko eta diskriminazioa desagerrarazteko, estatu alderdiek neurri egoki guztiak hartuko dituzte arrazoizko doikuntzak egiteko» (5. artikuluko 3. zenbakia), eta arrazoizko doikuntza horiek ukatzea, 2. artikuluko 4. zenbakiaren arabera, diskriminazio-modu bat: «Izan ere, “desgaitasunak eragindako diskriminazio” gisa ulertuko da desgaitasunak eragindako bereizketa, bazterketa edo murrizketa oro, helburu edo ondorioztat giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztiak, berdintasunez aitortzea nahiz betetzea galaraztea edo ukatzea duena, esparru politiko, ekonomiko, sozial, kultural, zibil nahiz beste edozeinetan. Diskriminazio mota guztiak hartzen ditu

barnean, arrazoizko doikuntzak ukatzea ere bai».

Hala, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Komiteak 2. ohar nagusian ezartzen duen moduan (2014):

- Irisgarritasuna pertsona taldeekin lotzen da, planteamendu zabalak eta uniformeak jasotzen ditu desgaitasuna duten pertsona guztien irisgarritasuna eta parte-hartzea bermatzeko beharrezko neurrien gainean.
- Aldiz, arrazoizko doikuntzek kasu indibidualak dituzte jomuga, eta pertsona jakin batek izan ditzakeen irisgarritasun- eta partaidetza-beharrizan espezifikoei egiten die erreferentzia, baldin eta premia horiek ez badira behar bezain estalirik geratzen irisgarritasun-arau erkide eta uniformeekin. («Desgaitasun bitxiak izanik irisgarritasun-arauak prestatzean kontuan hartu ez ziren pertsonen kasuan, edo irisgarritasuna bermatzeko aurreikusitako moduak, metodoak edo bitartekoak baliatzen ez dituztenen kasuan (braille irakurtzen ez dutenak, adibidez), gerta liteke irisgarritasun-arauen aplikazioa bera ere eskas geratzea irisgarritasuna bermatzeko. Kasu horietan, aplika litezke arrazoizko doikuntzak»).

Azkenik, nabarmentzekoa da helburu estrategikoen eta jarduera-ildoen definizioan, «lagunkoitasuna», «ulerkortasuna» eta tankera horretako kontzeptuak erabiltzen direla, begiradek eta politikek bat egiten laguntzeko, jarrera-egokitzapenei heltzeko eta araudian aurreikusi gabe dauden egoerei aurrea hartu ahal izateko. Kontzeptu horiek ez dute inoiz ere irisgarritasun-kontzeptua ordeztzen, ezta irisgarritasunerako eskubidea ere, eta inoiz ere ez dira ulertu behar araudia betetzeko eskakizunaren murriztapen gisa.



03.
Irisgarritasun
unibertsala
Euskadin



3.1. Datu kuantitatiboak

3.1.1. Irigarritasunaren alorrean urrakortasun handiena bizi duten herritarren zenbatespena eta bilakaera

Irigarritasun unibertsalak hobetu egiten du pertsona guztien bizi-kalitatea. Nolanahi ere, zenbait kolektibok bereziki bizi dituzte irigarritasun unibertsalik ezaren ondorioak; konparazio

batera, desgaitasuna duten pertsonak, muga edo mendekotasun bereziak dituztenek edo adinekoek. Hurrengo lerroetan, kolektibo horien nondik norakoak azalduko ditugu.

a) Desgaitasuna duten pertsonak

EAE, 169.000 pertsonak baino gehiagok du desgaitasunen bat

Estatistika Institutu Nazionalak 2008an argitaratutako Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruzko 2008ko inkesta erreferentzia gisa harturik,

zenbatesten da Euskadin 169.400 lagun inguruk dutela desgaitasunen bat (92.100 Bizkaian, 54.500 Gipuzkoan eta 22.800 Araban).

4. taula

EAE desgaitasuna duten pertsonak, lurralde historikoaren arabera

Lurralde historikoa	EMAKUMEA	GIZONA	GUZTIRA
Araba	12.100	10.700	22.800
Bizkaia	55.000	37.100	92.100
Gipuzkoa	34.100	20.400	54.500
EAE	101.200	68.200	169.400

Iturria: Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruzko 2008ko inkesta.


Euskadin desgaitasuna duten pertsonen tasa handiagoa da Estatuan erregistratutakoa baino

Euskadin, 1.000 biztanleko 99 pertsonak dute desgaitasunen bat; hau da, Estatuan erregistratutakoa baino kopuru handixeagoa (85,45 pertsona mila biztanleko). Emakumeen kasuan, prebalentzia-tasa 84,5 lagunekoa

da mila biztanleko; gizonezkoen kasuan, berriz, 70 mila pertsonako. Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoako prebalentzia-tasa (104 milako) handiagoa da Bizkaian (99 milako) eta Araban (83 milako) erregistratutakoa baino.

4. taula

Desgaitasuna duten herritarren tasa, probintziaren, adinaren eta sexuaren arabera.



Iturria: Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruzko 2008ko inkesta.

Feminizazioa eta zahartzea, desgaitasunaren bi bereizgarri

Desgaitasuna duten pertsonen datu demografikoek erakusten dute kolektibo hori nabarmen feminizatuta dagoela. Hori hala, emakumezkoak dira desgaitasuna duten sei urtetik gorako hamar pertsonatik sei. Zehazkiago, hauxe da EAEn desgaitasuna duten sei urtetik gorako pertsonen sexu-banaketa: 101.200 emakumezko eta 68.200 gizonezko.



Adinari dagokionez, ikusten da desgaitasuna duten pertsonen kolektiboa zahartzen ari dela nabarmen. Hain zuzen ere, desgaitasuna duten pertsonen % 60 pasatxok 65 urte edo gehiago dituzte. Zenbakitan emanda, desgaitasuna duten 52.800 pertsonak 65 eta 79 urte dituzte, eta EAEn

bizi diren kolektibo horretako 51.400 lagunek, berriz, 80 urte edo gehiago. Bestalde, desgaitasuna izanik 6 eta 44 urte bitarte dituzten pertsonak kolektiboaren % 13 dira (22.100 pertsona); 45 eta 64 urte bitarteko tartean, berriz, kolektiboaren % 25 biltzen da (43.100 pertsona).

Bestalde, familia-osaketari dagokionez, datuek erakusten dute desgaitasuna duten pertsonen erdiak baino gehiago bikotean bizi direla edo familia-nukleo bat osatzen dutela, bikotekide eta seme-alabekin. Alabaina, nabarmendu behar da pertsonen % 17 bizi direla bakarrik, eta % 8 guraso bakarreko familia-etxeak direla. Horretaz gainera, % 22 beste etxe motaren batekoak dira.

5. grafikoa

Desgaitasuna duten pertsonen banaketa, sexuaren, adin-tartearen eta familia motaren arabera



Adin- tartea						
6 eta 44 urte artean	9,1	% 9,0	13	% 19,1	22,1	% 13,0
45 eta 64 urte artean	23,2	% 22,9	19,9	% 29,2	43,1	% 25,4
65 eta 79 urte artean	31,6	% 31,2	21,2	% 31,1	52,8	% 31,2
80 urte eta gehiago	37,3	% 36,9	14,1	% 20,7	51,4	% 30,3
EAE	101,2	% 100,0	68,2	% 100,0	169,4	% 100,0
Familia mota						
Pertsona bakarreko etxea	22,2	% 21,9	7	% 10,3	29,2	% 17,2
Bikotea bakarrik	25,9	% 25,6	20,7	% 30,4	46,6	% 27,5
Bikotea eta seme-alabak	18,2	% 18,0	24,6	% 36,1	42,8	% 25,3
Gurasoa bakarrik, seme-alabaren batekin	10	% 9,9	4,3	% 6,3	14,3	% 8,4
Bestelako familia motak	24,9	% 24,6	11,6	% 17,0	36,6	% 21,6
EAE	101,2	% 100,0	68,2	% 100,0	169,5	% 100,0

Iturria: Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruzko 2008ko inkesta.

b) Mugak eta/edo mendekotasuna dituzten herritarrak

EAEko herritarren % 11k mugak eta/edo mendekotasun bereziak dituzte

Eustaten Behar sozialen inkesta (2014) erreferentzia gisa harturik, Euskadiko 235.862 pertsonak dute muga edo mendekotasunen bat (herritar guztien % 11k, alegia). Horietatik 117.340 lagunek mendekotasun bereziren bat dute (% 5,4) eta 118.522 lagunek, berriz, mendekotasun berezirik eragiten ez duen mugaren bat. Bilakaerari dagokionez, kopuruok joera bertsuari eusten diote denboran (ikusi 5 Taula).

Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko muga edo mendekotasunen bat duten pertsona guztietatik, zenbatesten da % 17k muga erabatekoa edo larria duela (hain zuzen ere, 39.800 lagun leudeke egoera horretan Euskadin) (ikusi 6 Taula).

5. taula

Muga eta/edo mendekotasun berezia duten herritarren bilakaera, 2006-2014 aldian

Muga/mendekotasuna	2006		2010		2014	
	Nº	%	Nº	%	Nº	%
Muga/mendekotasunen bat	225.515	% 10,5	236.088	% 10,8	235.862	% 10,9
Mendekotasun berezia	117.584	% 5,5	124.080	% 5,7	117.340	% 5,4
Muga, mendekotasun berezirik gabe	107.931	% 5,0	112.008	% 5,1	118.522	% 5,5
Mugarik gabe	1.923.515	% 89,5	1.945.339	% 89,2	1.922.267	% 89,1
Guztira	2.149.030	% 100,0	2.181.427	% 100,0	2.158.129	%100,0

6. taula

Barthel/Lawton mendekotasun mistoaren mailaren arabera mugapena edo mendekotasun berezia duten biztanleak EAEn, 2014


Barthel-Lawton mendekotasun mistoaren maila	Guztira	
	Nº	%
Erabatekoa edo larria	39.800	%16,9
Moderatua	23.822	%10,1
Arina	41.187	%17,5
Mendekotasun berezia: autonomia	10.788	%4,6
0-5 urteko adingabea, mendekotasun bereziarekin	1.741	%0,7
Mugaren bat duten besteak	118.523	%50,3
Guztira	235.862	%100,0

Urritasun edo muga motari dagokionez, Behar sozialen inkestak zera baieztatzen du, muga edo mendekotasun berezia duten pertsonen % 36ren kasuan, adineko pertsona izateak eragiten duela

egoera hori. Gaixotasun kronikoak, gaixotasun mentalak edo hezur eta artikulazioetako urritasunak dira, kasu askotan eta askotan, egoera horien eragile.

6. grafikoa

Muga edo mendekotasun berezia duten herritarren banaketa EAEn, urritasun nagusiaren arabera, 2014



7. taula

Herritarren banaketa, Barthel/Lawton mendekotasun mistoaren eta urritasun nagusiaren arabera EAEn, 2014

% vertical	Erabatekoa edo larria	Moderatua	Mendekotasun moderatua	Mend. berezi arina/ autonomoa	0-5 urteko adingabea, mendekotasun bereziarekin	Guztira
Gaixotasun mentala	18,4	15,1	17,2	14,6	25,5	16,2
Ikusteko zailtasuna	2,0	0,0	1,3	2,2	0,0	1,7
Entzuteko zailtasuna	0,4	1,4	0,8	3,3	5,6	2,0
Mintzatzeko zailtasuna	0,0	0,0	0,0	0,7	26,5	0,7
Zailtasun neuromuskularra	12,3	8,3	10,8	8,9	0,0	9,8
Gaixotasun kronikoa	12,6	19,8	15,3	19,3	42,4	17,5
Hezur eta artikulazioetako zailtasuna	7,6	13,6	9,8	22,4	0,0	15,3
Adinekoa	46,7	41,7	44,8	27,1	0,0	36,3
Bestelakoak	0,0	0,0	0,0	1,6	0,0	0,7
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

c) Adineko pertsonak eta mendekotasuna dutenak

Herritarren zahartze- eta gainzahartze-maila handiak

2018an, EAEko populazioaren % 22k 65 urte edo gehiago ditu. Ehuneko hori Estatuan erregistratutakoa baino handiagoa da (% 19). Nolanahi ere, hainbat autonomia-erkidegok ehuneko are handiagoak dituzte, % 24tik gorakoak, hala nola Asturiasen, Gaztela eta Leonen eta Galizian. Europarekin alderatuta, Italiak bakarrik gainditzen du EAEko proportzio hori.

Euskadin, sexua kontuan izanik, 65 urtetik gorako emakumeen proportzioa % 24,6 da; gizonetzkoena, berriz, % 19,2 (ikusi 8.Taula).

Zahartze- eta gainzahartze-indizeak (hau da, 65 urtetik gorako populazioa eta 75 urtetik gorakoa, hurrenez hurren, herritar guztiak aintzat hartuta) handiagoak dira Bizkaian eta Gipuzkoan, Araban baino. Azken horretan ageri da gazteen proportziorik handiena (ikusi 7. eta 8. Grafikoak).

8. taula


65 urtetik gorako herritarrak EAEn, lurralde historikoaren arabera

Lurralde historikoa	Emakumea	Gizona	Guztira
Araba	37.000	29613	66.613
Bizkaia	149.551	106725	256.276
Gipuzkoa	89.558	66928	156.486
EAE	276.109	203.266	479.375

Iturria: Eustat.

7. grafikoa


Zahartze- eta gainzahartze-indizeak EAEn, lurralde historikoaren arabera, 2018



Iturria: Udalmap.

8. grafikoa

65 urtetik gorako herritarrek EAEn, lurralde historikoaren arabera, 2000-2018



Iturria: Eustat. Biztanleen udal-estatistika.

3.1.2. Egoera gai-esparruen arabera

a) Hirigune publiko urbanizatuak eta azpiegitura publikoak

Gutxi gorabehera, bi eraikinetik bat ez da irisgarria

Udalmapek aldi-aldi argitaratzen du informazioa herritarrentzat irekita dauden udal-eraikinen irisgarritasunari buruz. Kasu horretan, irisgarritzat jotzen dira honako eskakizun hauek guztiak betetzen dituztenak:

- Kanpoaldetik, gurgil-aulkiz sar daiteke eraikineko erabilera publikoko geletara, modu erabat autonomoan eta beste inoren laguntzarik gabe.
- Eraikineko igogailuek (halakorik balego) behar adina toki dute gurgil-aulki bat sartzeko, eta seinaleztapen egokiak dituzte ikusmen-urritasuna dutenentzat ere.


- Eraikinetik gutxienez komun publiko bat du, gurgil-aulkian ibiltzen diren pertsonentzat.

Alde horretatik, nabarmentzekoa da publikoari irekitako udal-eraikin guztietatik % 52 direla irisgarriak. Irisgarritasun-maila apalagoa da Arabako eraikinetan (% 38), Gipuzkoa (% 55) eta Bizkaikoetan baino (% 56,5).

Bilakaerari erreparatzen baldin badiogu, areagotzen ari dira irisgarritzat har daitezkeen udal-eraikinak. Hala, 2005ean erregistratutako % 42ko irisgarritasun-mailatik % 52ra igaro zen 2009an (ikus 9. Grafikoa).

9. grafikoa

Publikoari irekitako udal-erakin irisgarrien ehunekoaren bilakaera, 2005-2009



Iturria: Udalmap.

EAEko erabilera publikoko eraikinen irisgarritasun-maila apalagoa da udalerrri txikietan

Arartekoak hainbat azterlan argitaratu ditu, eraikin publikoetako irisgarritasunaren analisia hizpide hartuta. Hasteko, EAEko erabilera publikoko eraikinei buruz argitaratu zuen txosten bat 2003an. Praktikan zaharkitu samarrik geratu bada ere (15 urte baino gehiago baitira plazaratu zela), merezi du aipamena egitea, edukiaren interesa kontuan izanik. Azterlan horrek udal-erakinak, foru-aldundienak eta Jaurlaritzarenak aztertzen ditu.

Udal-erakinen irisgarritasunari dagokionez, 148 udalerritako informazioa biltzen du (hiru lurralde historikoetako hiriburuak bildu gabe), galdetegi baten bidez. Inkestari erantzun zioten udalerrien % 32k adierazi zuten gutxienez eraikinen eta gelen erdiak zirela irisgarriak (zehazki, 47 udalerritan, zeinetan 385.000 herritar bizi baitira). Aldiz, udalerrien % 38k adierazi zuten gelen erdiak edo gehiago ez zirela irisgarriak mugikortasun-arazoak zituzten pertsonentzat (56

udalerrri, ia guztiak txikiak, zeinetan ehun mila lagun pasatxo bizi baitira). Emaidza horiek erakusten dutenez, zenbat eta udalerrri handiagoak, orduan eta ohikoagoa izaten da instalazio irigarriak izatea, oro har.

Gizarte-zerbitzuak betetzera bideratutako eraikinek zuten irigarritasun-mailarik handiena: % 57 irigarritzat jotzeko modukoak dira. Kirol-zentroek ere irigarritasun-maila handia dute: % 55 dira irigarriak. Alabaina, zerbitzu orokorretara bideratutako instalazioak geratzen dira hankamotz irigarritasun-kontuetan (osoko bilkuren aretoak, tasak ordaintzeko bulegoak, informazio-zerbitzuak, enplegu- eta etxebizitza-zerbitzuak edo udaltzaingoa). Halakoetan, instalazioen herenak baino ez dira irigarriak.

Txostenak bereizita aztertzen du EAEko hiru hiriburuetako eraikin publikoetako irigarritasuna. Ondorio nagusi gisa, hirurek zeukaten irigarritasun-maila onargarri samarra: instalazioen % 46,3 irigarritzat jo ziren, % 29,0 irigarri samartzat, eta % 24,8, azkenik, ez-irigarritzat.

Desgaitasun fisikoaz harago, aztertutako 151 udalerrrietatik bakarrak adierazi zuen bazuela zeinu-hizkuntzako interpreterik entzumen-desgaitasuna duten pertsonekin harremanak errazteko. Ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzako adierazpen eta seinaleztapenei dagokienez, berriz, 23 udalerrrik (inkestari erantzun ziotenen % 15ek) adierazi zuten udal-instalazio gehienetan edo batzuetan bazela halako seinaleztapenik eta egokitzen zirela gai horri buruzko araudira. Talde horren barruan, zortzik bakarrik adierazi zuten betetzen zituztela arauak instalazio guztietan edo gehienetan.

Halaber, azterlan horrek foru-aldundien eraikin publikoetako irigarritasuna ere aztertzen du. Agiri haren arabera, ondoriozta liteke handia dela

aztertutako foru-instalazioetako irigarritasun-maila: aztertutako 143 eraikinetatik 90 irigarritzat jo ziren (% 62,9). Hau da, mugikortasun-arazoak dituen pertsona bat modu autonomoan irits daiteke aztertutako foru-instalazioen bi herenetara eraikinen kanpoaldetik. Berrito ere, gizarte-zerbitzuak eskaintzera bideratutako lokalek batezbestekoa baino irigarritasun-maila handiagoa dute. Alabaina, kulturaren esparruko instalazioetan ageri da irigarritasun-maila kaskarra. Hain zuzen ere, gizarte-zerbitzu espezializatuetan ia orokortua da irigarritasuna; kultur etxeetan, kiroldegietan eta gazte-zentroetan, ordea, bereziki eskasa da.

Azkenik, azterketak EAE osoko instalazio autonomikoen irigarritasunari egiten dio erreferentzia (273 eraikin guztira). Oro har, positiboa da eraikin autonomikoetako irigarritasunari buruzko balioespena: 295 lokal jo dira irigarritzat (aztertutako % 71,6). Hori hala, instalazio autonomikoen irigarritasun-maila orokorra nabarmen hobea da udal- eta foru-instalazioetakoaren aldean. Nolanahi ere den, alde nabariak ageri dira alor batetik bestera. Esate baterako, justizian eta tankera horretako beste alorren batean, eraikin irigarriak % 95 ere badira; bigarren hezkuntzako ikastetxeetan eta halako beste batzuetan, ordea, apenas iristen zen % 42ra (unibertsitateen kasuan, % 55).

EAEko ospitaleetako irisgarritasun-maila ona da oro har desgaitasuna duten pertsonentzat, baina badira hainbat muga eraikin zaharretan

Bestalde, Arartekoak irisgarritasunari buruzko diagnostiko bat egin zuen 2017an, EAEko ospitaleak xede harturik. Diagnostiko hartan, xehe-xehe aztertzen ditu EAEko ospitale-sareko zentro guztiak (aparkalekua, itxarongelak, komunak, gelak, kafetegia eta abar). Dena den, begien bistakoa da zailtasunak ez direla berberak ospitale guztietan, eta desgaitasun mota guztiek ez dutela eragin berbera. Era berean, azpimarratzen du aurrerapauso handiak egin direla EAEko osasun-zentroetako irisgarritasun-baldintzak betetzeko Irisgarritasun Legea indarrean jarri zenetik, eta aurrerapauso horiek bereziki nabari direla altxatu berriak diren eraikinetan. Hala ere, osasun-sareak oraindik ere eraikin zahar ugari ditu, irisgarritasun-baldintza askoz ere mugatuagoak dituztenak, nahiz eta ahalegin handiak egin diren egokitzeko eta birgaitzeko.

Hori hala, kasu askotan eta askotan eraikinen adinak berak eragiten baditu ere irisgarritasun-arazo horiek, beste kasu batzuetan instalazioen erabilera eskasarekin lotzen dira. Oro har, eta aurrerapenak aurrerapen, ikusten da irisgarritasunaren alorrean egindako hobekuntzak ez direla nahikoa mugikortasun-arazoak dituzten pertsonak beren kabuz eta berdintasun-baldintzetan sar daitezen EAEko ospitale-zerbitzuetara. Nolanahi ere den, nabarmentzekoa da osasun-langile guztiek egiten duten ahalegina, zailtasun horiek gainditzen direla bermatzeko.

Zentroetara bisitak eginez landa-lan zabala egiteaz gainera, azterlanak eztabaida-taldeak ere bildu zituen Osakidetza eragile teknikoekin eta desgaitasuna duten erabiltzaileekin. Horietatik, besteak beste honako ondorio hauek atera zituzten: espaziorik eza gurgil-aulkientzat itxarongeletan; txandak emateko makinak ez dira eskuragarriak, ez gurgil-aulkiak erabiltzen dituztenentzat, ez ikusmen-desgaitasuna dutenentzat; mahaiak ez dira irisgarriak; ez dago zeinu-hizkuntzako interpretarik edo bestelako komunikazio-modurik entzumen-desgaitasuna duten pertsonentzat; ez dago ospitalean sartzeko laguntzeko langilerik; egokitu beharrean dauden aldagelak eta kabinak, kontsulta ginekologikoak eta erradiografia-gelak, gurgil-aulkian ibiltzen diren pertsonentzat; eta abar.

Halaber, sartzeko ibilbidearekin hasten den «irisgarritasun-kateari» buruz ere hitz egiten du txostenak; hala,

adierazten du egoera kaskarrean daudela ospitaleetara sartzeko baliatzen diren hainbat hiri-ingurune, ez dagoela aparkaleku erreserbatuak, desegokiak direla ibilbideak garraiobide publikoen geltokietatik, ez dagoela bitarteko publikorik eta abar. Bestalde, txostenak nabarmentzen du beharrezkoa dela prestakuntza espezifikoa eskaintzea profesionali desgaitasun moten gainean, eta laguntza tekniko eta bitarteko gehiago eman behar zaizkiela ospitaleei.

Hauek dira txostenak aurkezten dituen hainbat datu zehatz:

- Aztertutako zentroetara joateko bideetako espaloien % 32k ez dute betetzen gutxienezko pasabidearen zabalera, eta % 50ek oztopoak dituzte bidean —ondorioz, mugikortasun murriztua duten pertsonek errepidera jo beharra izaten dute—.
- Sarbideetan diren arrapalen % 62 ez daude ondo exekutatuak, eta gainerakoek, berriz, profil desegokiak dituzte.
- Ospitaleetako bakar batean ere ez dago seinaleztapenik Braille sisteman idatzita, ezta gida-zerrendarik ere ikusmen-desgaitasuna duten pertsonak gidatzeko.
- Sarrerako atarteetako itxarongelen % 84k ez dauka plazarik erreserbatuta gurgil-aulkiak baliatzen dituzten pertsonentzat. Aztertutako gainerako itxarongeletan, guztietatik % 90ek du erreserbatutako espazioen falta.
- Harrera-mahaien % 25ek bakarrik du espazio egokia gurgil-aulkietan iristen diren erabiltzaileei arreta eskaintzeko.
- Berrikusitako kontsultetako ateen % 53k bakarrik du lasai igarotzeko adinako zabalera.
- Komunei dagokienez, % 14k bakarrik du erreserba espezifikoa mugikortasun murriztua duten pertsonentzat; izan ere, erreserbatutako komunak

espazio aldenduetan eta bateria orokorretatik kanpo eraiki dituzte.

- Nahiz eta kontsultetan erabilitako diagnostiko-gailuen % 69 irigarritzat har daitezkeen, arazo larri bat hautematen da beharrezkoak diren kabina edo ekipamendu berezietako irigarritasun-ezetik eratorrita, diagnostiko mediko zuzenak egiteko beharrezkoak diren aldetik.
- Kontsultetako aldagelei dagokienez, % 14 bakarrik dira irigarriak.

Ezin dugu ahaztu eremu honetan aplika daitezkeen araudiak Osakidetzaren sareko osasun-zentro eta ospitale asko baino berriagoak direla, izan ere, eraikin horiek Insaludenak ziren, eta 1987ra arte ez zituen jaso Osakidetzak. Izan ere, kontuan izan behar da historia luzea dutela azpiegitura askok, hala nola Basurtuko Ospitaleak (1898), Donostia Unibertsitate Ospitaleak (1960) edo Santiago Ospitaleak (1973). Hori dela eta, azpiegitura horien irigarritasuna lortzeko, urteetan iraungo duen konpromisoa eta

ahalegina behar dira ezbairik gabe, horrela lortuko baita oraindik dauden oztopoak ezabatzea. Horri dagokionez, gogorarazi behar da, aipatu txostena egin baino lehen, Osakidetzak zerbitzuetako erakundeen bidez egiten zituela hobetzeko jarduketak, betiere zentro bakoitzaren premien eta aukeren arabera. 2018tik aurrera, jarduketa horiei aurrekontu-partida espezifiko bat esleitu zaie, eta modu korporatiboan eta irizpide bateratuak erabilia gauzatu dira. Betiere helburu zehatz batekin: pertsona guztien irigarritasuna bermatzea.

Bestalde, Osakidetzaren obra estrategikoek indarreko araudia betetzen dute, nagusiki Eraikingintzaren Kode Teknikoa eta haren Erabileraren Segurtasuneko eta Irigarritasuneko Oinarrizko Dokumentuan, bai eta 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irigarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak —erkidego mailan— onartzen dituen. Modu horretan gauzatu dira oin berriko eraikinak, eraberritzeak eta eraikinen birgaitze partzialak, bai eta ospitaleratze-solairuko erreformak ere, besteak beste.

Bizkaiko arreta ginekologikoko osasun-zentro publiko gehien-gehienak irigarriak dira, baina ez erreminta espezifikoak

Gutxitasun fisikoa eta/edo organikoa duten pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzaileak (FEKOOR) txosten bat argitaratu zuen 2015ean, Bizkaiko arreta ginekologikoko osasun-zentro publikoei buruz. Zehazki, sare publikoan ginekologia- eta erreproduktzio-arretako zerbitzuak eskaintzen dituzten 60 osasun-zentro eta lau ospitale aztertzen ziren lan hartan (Bizkaiko Lurralde Historikokoak). Emaitzek adierazten dutenez, aztertutako osasun-zentro gehien-gehienek (% 85) eraikin irigarri bat dute, eta % 62k, berriz, kontsulta irigarri bat daukate. Halere, zentro gutxiak daukate ohatila hidraulikoa (% 17), eta are gutxiagok daukate mamografo egokituak (% 5). Aztertutako zentro bakar batek ere ez dauka garabirik transferentzietarako; halaber, aztertutako zentroetatik % 32k bakarrik daukate laguntzaileak transferentziak eta miaketak egiteko. Ospitaleei dagokienez (4), guztiak dira irigarriak (% 100),

baina erdiek bakarrik zeukaten kontsulta irigarri bat. Haietatik % 75ek (lautik hiruk) ohatila hidraulikoa daukate, eta erdiek (2) daukate mamografo egokituak. Aztertutako lau ospitaleek laguntzaileak daukate transferentzietan laguntzeko.

Ondorioz, eraikin eta kontsulta gehienak irigarriak dira mugikortasun murriztua duten emakumeentzat; alabaina, ez daude erabat egokituak kalitatezko zerbitzua eskaini ahal izateko —gutxi dira ohatila hidraulikoak, transferentzia-garabiak, mamografo egokituak edo laguntzaileak, bereziki osasun-zentroetan—. Hau da, aztertutako zentro publikoetako kontsulta ginekologikoetan baliatutako erremintek (ohatila, miaketak egiteko ekipamenduak, mamografiatarakoak...) ez dituzte kontuan hartzen mugikortasun murriztua duten emakumeen premiak.

Osasun Sailak, pazienteen elkarrekin elkarlanean —kasu honetan, FEKOOR-Gutxitasun fisikoa edo/ eta organikoa duten Bizkaiko pertsonen elkarteko Berdintasun Arloarekin—, aldaketa hauek egin zituen umetoki-lepoko minbizia bahetzeko programa berrian, pazienteen kudeaketari dagokionez: Programan parte hartzeko gonbidapen-gutunean, doako telefono-zenbaki bat eta Interneteko helbide bat ageri dira, irisgarritasunarekin lotutako bere premia zehatza adieraz dezan pazienteak. Horrela, hitzorduak kudeatzean, bere premientzat egokiena den zentro eta/edo kontsultara deribatu ahalko da emakume bakoitza.

Hori lortzeko, irisgarritasunaren arloan adituak diren langileek eta profesional asistentzialek ebaluatu eta

sailkatu dituzte zentro bakoitzaren ezaugarriak; izan ere, irisgarritasun-maila globala identifika daiteke modu horretan. Hainbat alderdi aztertu dira, besteak beste: zentroko sarbidea, barneko espazio amankomunak, kontsultako eta miaketa-espazioko sarbidea, komunak, aulki ginekologikoaren erabilerraztasuna eta abar.

Lan horren guztiaren ondorioz, zentro bakoitzaren egungo egoerari buruzko ezagutza eskuratu da, eta, hori dela eta, zuzeneko informazioa eman ahal izan da, hobekuntza-jarduketak egiteko, hala nola miaketa-aulkiak progresiboki modelo erabilerrazago batez ordeztzen joatea. Sinergia horien ondorioz, pazienteen kudeaketa pertsonalizatuago bat egiteko gaitasuna lortu da.

EAEko eraikin judizialetako irisgarritasuna nahiko positiboa da

Bulego Judizial eta Fiskala Modernizatzeko Zuzendaritzak azterlan bat argitaratu zuen 2017an, Euskadiko eraikin judizialen irisgarritasunari buruzko informazioarekin.

Oro har, positiboa da eraikin autonomikoetako irisgarritasunari buruzko balioespina: 295 lokal (aztertutakoen %71,6) irisgarritzat jo dira; 50ek (% 18,3) irisgarritasun mugatua du; eta 28k (% 9,9) ez du inolako irisgarritasunik. Instalazio autonomikoen irisgarritasun-maila orokorra nabarmen hobea da udal- eta foru- instalazioen aldean.

Baliteke aztertutako eraikin-zerrendan justizia-administrazioarekin lotutako instalazioen nolabaiteko gainordezkaritza izatea (eta horiek irisgarritasun-maila oso handia daukate). Horren ondorioz, gerta liteke tankera horretako eraikinen irisgarritasunari buruz egiazkoa baino irudi hobea izatea, oro har. Nolanahi ere, justizia-jauregietako instalazioak murrizten badira, eta aztertutako 73 zerbitzuak kokatuta dauden 12 eraikinak hartuz gero, emaitzak aldatu egiten dira, baina ez modu esanguratsuan: instalazio irisgarrien ehunekoa % 71tik % 64ra jaisten da; irisgarritasun mugatuarena % 18tik % 23ra areagotzen, eta batere irisgarritasunik ez dutenena, berriz, % 9tik % 11ra.

b) Eraikin eta etxebizitza pribatuak

Bi etxebizitza nagusitatik bat eraikin ez-irisgarrietan dago

Arreta etxebizitza nagusian ipintzen badugu, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren 2011ko Erroldak baieztatzen du etxebizitzen % 43 irisgarriak direla; hau da, gurpil-aulkia baliatzen duen pertsona batek kaletik etxebizitza bakoitzera sartzeko moduko

eraikinetan daude etxebizitza horiek, beste inoren laguntzarik gabe sartzeko moduan. Etxebizitza-erakinen % 57 ez dira irisgarriak. Estimazioen arabera, 575.615 etxebizitza ez-irisgarri daude EAEn (ikusi 9.Taula).

9. taula

EAEko etxebizitza-erakinen irisgarritasun-egoera, 2011ko errolda

Eraikin mota	Igogailuarekin		Igogailurik gabe		Guztira	
	Etxebizitza kop.	%	Etxebizitza kop.	%	Etxebizitza kop.	%
Irisgarriak	379.870	% 58,9	53.790	% 14,8	433.660	% 42,6
Ez-irisgarriak	265.360	% 41,1	310.250	% 85,2	575.615	% 56,6
Daturik ez	--	--	--	--	8.325	% 0,8
Guztira	645.235	% 100,0	364.045	% 100,0	1.017.600	% 100,0

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren 2011ko Errolda.

Eusko Jaurlaritzaren 2018-2020 aldirako Etxebizitza Planerako egindako diagnostikoak nabarmentzen duenez, EAEko etxebizitza-parkearen ezaugarria da adinean aurrera eginda dagoela eta horrekin lotutako arazoak dituela, hala nola irisgarritasunik eza. Era berean, poliki-poliki murrizten ari da igogailurik ez duten etxebizitzaren proportzioa. Halere, oraindik ere EAEko etxeen herenek ez dute igogailurik.

Baina igogailurik ez izatea ez da irisgarritasunarekin lotutako arazo bakarra; izan ere, batzuetan igogailua ez dago 0 kotan, eta beharrezkoa da oztopoak gainditzea igogailua hartu ahal izateko (adibidez, eskailerak). Hori eta kontuan izanik populazioa zahartzen ari dela, bistan geratzen da irisgarritasuna bihurtu dela etxebizitza-politiketako lehentasunetako bat.

10. taula

Igogailurik gabeko eraikinetako etxebizitzaren ehunekoaren bilakaera, EAEko lurralde historikoen arabera, 2010-2016

Igogailurik gabe %	2010	2013	2014	2015	2016
Araba	30,1	28,5	28,2	28,1	27,9
Bizkaia	38,6	35,2	34,4	33,8	33,1
Gipuzkoa	33,7	30,9	30,5	30,1	29,7
EAE	35,7	32,8	32,2	31,7	31,2

Iturria: Biztanleria eta Etxebizitza Errolda, udal-errolda, EIN eta Eustat.


40 Irigarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia

Aldiz, irigarritasun-arazoak bistan geratzen dira EAEn egindako eraikinen ikuskapen teknikoetan (EIT). Hori hala, 2019ko apirilera bitartean egindako eraikinen ikuskapen teknikoak erreferentzia gisa harturik (33.192 ikuskapen tekniko), eraikinen % 50ek ez dute ibilbide

irigarria, eta atarien % 34 ez dira irigarriak. Igogailua izateari dagokionez, ikuskatutako eraikinen % 30ek ez dute halakorik, baina, igogailuaren irigarritasunari erreparatzen baldin badiogu, kopuru hori % 25era murrizten da; hau da, ikuskatutako lau eraikinetatik batek du igogailu irigarria.

10. grafikoa

Etxebizitza-eraikinen irigarritasuna, eraikinen ikuskapen teknikoetako emaitzen arabera, 2019




Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila.

Aztertutako eraikinen irigarritasun-emaitzen arabera, eraikinen ikuskapen teknikoetako txostenek adierazten dute doikuntza arazoizkoak egin behar direla desgaitasuna duten pertsonen giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztiak

gainerakoon baldintza berberetan goza edo egikaritu ditzaten. 2019ko apirilera bitartean egindako azterketen emaitzak kontuan izanik, eraikinen ikuskapen teknikoen % 32k ondorioztatzen dute arazoizko doikuntzak egin behar direla.

11. grafikoa

Egindako eraikinen ikuskapen teknikoen arabera, doikuntza arazoizkoak egin beharra, 2019



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila.

Arrazoizko doikuntzaren definizioa

Arrazoizko doikuntzat hartzen dira behar diren aldaketa eta moldaketak, baldin eta eraginpeko etxebizitzaren jabeentzat neurritz kanpoko edo bidegabeko kargarik ez badakarte. Zehazki, egokitzeko obren kostuak neurritz kanpokotzat jotzen dira, baldin eta urte osoan jasanarazita (izan litezkeen laguntza publikoak deskontatuta) gastu komunen ohiko hamabi hileko baino handiagoak badira. Baldintza hori betetzen bada, irigarritasun unibertsala bermatzeko behar diren jarduketak nahitaez egin beharko dira, eta ez dute jabeekideen batzarraren alde aurreko akordiorik beharko.


Ohiko etxebizitza aldatzeko premia irisingarritasuna hobetzeko

Eusko Jaurlaritzak 2017an egindako Etxebizitza beharrei eta eskaerari buruzko inkestak adierazten duenez, Euskadiko familia-etxeen % 9k ohiko etxebizitza aldatu beharra daukate; irisingarritasun hobea duen etxebizitza

bat bilatzea da bigarren faktore garrantzitsuena. 2017ko datuekin, Euskadiko 10.944 etxetan adierazten dute ohiko etxebizitza aldatu beharrean daudela irisingarritasuna hobetzeko.

12. grafikoa


Euskadiko etxeetan ohiko etxebizitza aldatzeko premiaren arrazoiak, 2017



Iturria: Etxebizitza beharrei eta eskaerari buruzko inkesta, Eusko Jaurlaritza.

13. grafikoa

Irisingarritasuna hobetzeko ohiko etxebizitza aldatu beharrean dauden familia-etxeen bilakaera, 2008-2017



Iturria: Etxebizitza beharrei eta eskaerari buruzko inkesta, Eusko Jaurlaritza.

Oztopo arkitektonikoak, mugapenak edo mendekotasun bereziak dituzten herritarren etxebizitzetan

2014an, Behar sozialen inkestak azaleratu zuen 27.000 lagunek, gutxi gorabehera, mugapen edo mendekotasun bereziren bat izanik, oztopo arkitektonikoak dauzkatela etxebizitzan. Nolanahi ere, datuek adierazten

dutenez, murriztu egin da mugapenak izanik halako egoera batean bizi den biztanleen kopurua: 2010ean mendekotasun-mailaren bat zuten pertsonen % 15,4 ziren, eta 2014an, berriz, % 11,5era jaitsi ziren.

11. taula

Mugapena edo mendekotasun berezia duten biztanleak, Barthel/Lawton mendekotasun mistoaren mailaren eta etxebizitzako muga arkitektonikoen arabera, 2014

Barthel-Lawton mendekotasun mistoaren maila	Arkitektura-oztopoekin		Arkitektura-oztoporik gabe	
	Kopurua	%	Kopurua	%
Erabatekoa edo larria	9.982	25,1	29.818	74,9
Moderatua	3.795	15,9	20.027	84,1
Arina	5.947	14,4	35.240	85,6
Mendekotasun berezia: autonomia	836	7,7	9.952	92,3
0-5 urteko adingabea, mendekotasun bereziarekin	166	9,6	1.575	90,4
Mugaren bat duten besteak	6.437	5,4	112.086	94,6
Guztira	27.163	11,5	208.699	88,5

Iturria: Behar sozialen inkesta. Eusko Jaurlaritzak. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Estatistikarako Organo Berezia.

c) Hiri-ingurunea


Ingurunean irisgarritasun faltatik eratorrita ditugun arazoak murriztea

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza beharrei eta eskaerari buruzko inkestak, era berean, EAeko familiek bizi diren inguruaz edo auzoaz duten gogobetetze-mailaren gaineko informazioa ere jasotzen du. Alde horretatik, hainbat arazori buruzko balioespen bat

biltzen da; horien artean, irisgarritasun falta. Etxeen % 16k adierazten du irisgarritasun-eza nabari dutela bizi diren inguruan. Proporzio hori, halere, nabarmen murriztu da azkeneko urteetan (ikusi14. Grafikoa).

14. grafikoa

EAEko familiek bizi diren inguruetakoz edo auzoetakoz irigarritasun faltari buruz duten pertzepzioaren bilakaera, 2009-2015



Iturria: Etxebizitza beharrei eta eskaerari buruzko inkesta, Eusko Jaurlaritzak.

Desgaitasuna duen bi pertsonatik batek, gutxi gorabehera, aitortzen du zailtasunak dituela kalean ibiltzeko

De acuerdo a la Encuesta de Discapacidad de 2008, Desgaitasunari buruzko 2008ko inkestak dioenez, Euskadin desgaitasuna duten pertsonen % 41ek dio zailtasunak dituela kalean ibiltzeko, eta ehuneko

hori % 46ra ere iristen da emakumezkoen kasuan. Adierazitako zailtasun nagusiak espaloiak igotzeko eta jaisteko dira, edo haietan ageri diren trabak gainditzeko.

12. taula

Desgaitasuna izanik, kalean ibiltzeko zailtasunak dituzten pertsonen ehunekoa EAEn


baiezkoen %	Emakumea	Gizona	Guztira
Zailtasunen bat dutenen %	% 45,8	% 33,9	% 41,0
Zailtasun mota*			
Espaloiak igotzea edo jaistea	% 37,8	% 21,8	% 31,4
Espaloietako oztopoak gainditzea	% 31,4	% 21,6	% 27,4
Kalea gurutzatzea	% 30,8	% 19,4	% 26,2
Kaleak, bidegurutzak edo seinaleak identifikatzea	% 18,7	% 14,2	% 16,9
Beste arazo batzuk	% 12,0	% 9,8	% 11,1

* Ehunekoak erabateko desgaitasuna duten herritarren gainean daude kalkulaturak.

Iturria: Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruzko 2008ko inkesta.

15. grafikoa

EAEn desgaitasuna duten pertsonen katean ibiltzeko dituzten zailtasun nagusiak



Iturria: Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruzko 2008ko inkesta.

d) Garraioa

Garraio publikoa erabiltzeko zailtasunak

Desgaitasunari buruzko 2008ko inkestan, baieztatzen zen Euskadin bizi diren kolektibo horretako pertsonen erdiek baino gehiagok

(% 51) erabiltzen dutela garraio publikoa —Estatu osoko datuekin alderatuz gero (% 39), proportzio askoz handiagoan—.

13. taula


Desgaitasuna duten herritarrak EAEn, joan-etorrietarako baliatzen duten garraibidearen arabera

baiezkoen %	Emakumea	Gizona	Guztira
Ibilgailu propio egokitua	% 4,6	% 6,9	% 5,5
Ibilgailu propioa, egokitu gabea	% 39,4	% 38,7	% 39,1
Garraio publikoa	% 51,1	% 0,9	% 50,9
Garraio berezia	% 10,8	% 8,5	% 9,9
Beste garraibide batzuk	% 2,1	% 1,6	% 1,9
Ez du garraiorik erabiltzen	% 8,8	% 5,4	% 7,4
Daturik ez	% 8,3	% 12,2	% 9,9
Guztira	% 100,0	% 100,0	% 100,0

Iturria: Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruzko 2008ko inkesta.

16. grafikoa

Desgaitasuna duten herritarrak, EAEn eta Espainian, joan-etorrietarako baliatzen duten garraiobidearen arabera



Iturria: Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruzko 2008ko inkesta.

Desgaitasuna duten bi pertsonatik batek zailtasunak ditu garraio publikoa baliatzeko

Desgaitasunari buruzko 2008ko inkestaren arabera, Euskadin desgaitasuna duten pertsonen % 52k aitortzen du zailtasunak dituela garraio publikoa

baliatzeko. Zailtasun nagusiak: ibilgailura igotzea eta handik jaistea, geltoki eta geralekuetara sartzea...

14. taula

Desgaitasuna izanik, garraiobideak erabiltzeko zailtasunen bat duten pertsonak EAEn

baiezkoen %	Emakumea	Gizona	Guztira
Garraio publikoan zailtasunen bat duten pertsonen %	% 56,7	% 44,1	% 51,6
Zailtasun mota*			
Ibilgailura igotzea edo handik jaistea	% 44,9	% 26,5	% 37,4
Geltoki, geraleku, nasa eta abarretara sartzea	% 31,5	% 19,6	% 26,8
Ibilgailura iristea	% 29,0	% 16,7	% 24,2
Eserlekura iristea	% 24,8	% 16,1	% 21,3
Planoak eta seinaleak irakurtzea, interpretatzea edo ulertzea	% 22,4	% 19,0	% 21,1
Geltokietan, aireportuetan edo portuetan orientatzea	% 19,7	% 13,5	% 17,3
Zenbatekoa ordaintzea edo garraio-txartela erabiltzea	% 17,6	% 14,7	% 16,5
Ibilbidea erabakitzea	% 16,4	% 12,1	% 14,7
Beste arazo batzuk	% 8,1	% 7,5	% 7,9

* Desgaitasuna izanik garraio publikoa erabiltzen duten pertsonen gainean kalkulatu dira ehunekook.

Iturria: Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruzko 2008ko inkesta.

17. grafikoa

EAEn desgaitasuna duten pertsonen garraio publikoa erabiltzeko dituzten zailtasun nagusiak EAEn
desgaitasuna duten pertsonen garraio publikoa erabiltzeko dituzten zailtasun nagusiak

Iturria: Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruzko 2008ko inkesta.

Garraio publikoko sistemaren irisgarritasuna EAEn

Arartekoak EAEko garraio sistema publikoak duen irisgarritasunari buruzko diagnostikoa argitaratu zuen 2010ean. Nahiz eta orain ia hamar urte argitaratutako dokumentu bat izan, eta azken hamar urteotan Euskadiko garraio-sarean aurrerapen eta hobekuntza nabarmenak izan diren arren, interesgarria da azterlan hartako emaitza nagusiak azaltzea. Azterlanak xehe-xehe egiten du garraio publikoaren egoerari buruzko diagnostikoa, garraio bidez: trenak (15 trenbide-linea), Bilboko metroa, bi tranbia-sistemak (Bilboko eta Gasteizkoa), errepide-garraioa (hiriko autobus-lineak, hiri artekoak eta ibilbide luzekoak) eta aireko sistema (EAEko hiru aireportuak).

Trenbide-sistemari dagokionez, analisiak ondorioztatzen du material mugikorraren eta trenbide-azpiegituraren irisgarritasun-egoerak, txostena argitaratu zuten garaian, ez zuela eskaintzen behar adina berme, mugikortasun murriztua duten pertsonen baliatzeko. Trenbide-sareko irisgarritasun-egoerako gabeziak irisgarritasun-kateko gako-etapa guztietan gertatzen dira; hau da, trenbide-azpiegituran sartzeko ibilbidean, trenbidearen geltokietara eta geralekuetara sartzeko tokietan, geltoki barruko mugikortasunean,

eta nasetarako eta material mugikorrerako irispidean. Era berean, ikusi da bi eratako geltokiak daudela: alde batetik, eredugarriak izan litezkeen geltokiak, eskaintzen dituzten irisgarritasun-baldintzak kontuan hartuta (eskuarki, lurralde historikoetako hiriburuetan edo biztanle-gune handietan), eta, bestetik, gabezia handiak dituztenak hainbat auziri dagokienez (hala nola segurtasuna, ergonomia eta irisgarritasuna). Trenbide-sareei dagokienez, Euskal Trenbide Sistemako (EuskoTren) lineek, oro har, irisgarritasun-baldintza hobek eskaintzen dituzte, ADIFek eta FEVEek EAEn kudeatzen dituzten korridoreetakoek baino. Azkenik, geltoki guztietatik % 22k baino ez dute hiri-ibilbide edo -ingurune irisgarria oinezkoentzat. Nasako hiri-inguruneko irisgarritasun fisikoa betetzeari dagokionez, geltokien % 17k baino ez dute behar adina berme eskaintzen mugikortasun murriztua duten pertsonentzat.

Bestetik, eta, oro har harturik, **Bilboko metroak** kalifikazio handia du irisgarritasunaren alorrean. Dena dela, hainbat auzi nabarmentzen dira, hobekuntza-jarduerak eskatzen dituztenak; bereziki, ikusmen- eta entzumen-desgaitasuna duten pertsonak metro-sistemara modu autonomoan sartzeko erraztera bideratuak.

Tranbia-sistemari erreparatzen baldin badiogu, oraindik deuseztatu egin behar dira komunikazio-oztopoak, desgaitasun sentsorialak dituzten pertsonen erabateko irigarritasuna izan dezaten. Alde horretatik, ikusten da Gasteizko tranbia aurreratuago dagoela, Bilbokoa baino modernoagoa baita.

Errepide-garraioari dagokionez (autobusak), ibilbide luzeko zerbitzuak eskaintzen dituzten ibilgailuek (eskualdeartekoak) irigarritasun-eza dute ezaugarri; izan ere, ez daude behar bezainbeste egokituta, mugikortasun murriztua duten pertsonen erabiltzeko. Hiri arteko zerbitzuetan ipintzen badugu arreta (EAE barruan), Bizkaiko autobus-flotaren % 91 irigarria da. Gipuzkoaren eta Arabaren kasuan, berriz, % 78

eta %43, hurrenez hurren. Oro har, irigarritasunarekin loturiko komunikazioan ikusi dira gabezia nabarmenak, dela geltokietan, dela ibilgailuetan. Azkenik, hiri-zerbitzuei dagokienez, ikusten da poliki-poliki hobetzen ari dela espaloien eta ibilgailuaren arteko harremana, espaloiak aurreratzeko plataformak txertatu izanari esker. Aldi berean, hiri-flotetako ibilgailu gehienak baxuak izan ohi dira, eta, hortaz, erabat irigarriak sartzeko arrapalaren bidez.

Azkenik, **aireko garraio-sistemari** dagokionez, EAEko aireportuek betetzen dituzte irigarritasun fisikoko baldintzak, baina oztopoak nabari dira komunikazioan, eta, ondorioz, desgaitasun sentsorialak dituzten pertsonen zailtasunak dituzte instalazio horietan barrena mugitzeko.

Gipuzkoako autobus-garraioaren gabeziak

2017an, Elkartuk (Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Gipuzkoako Federazio Koordinatzailea) azterlan bat aurkeztu zuen hiri eta hiri arteko autobusen irigarritasunari buruz. Azterlan hori egiteko, desgaitasuna duten 21 pertsonak parte hartu zuten. Zehazki, 44 autobus-linea aztertu zituzten: 29 (% 66), hiri artekoak, eta 15 (% 34), hiri barrukoak. Ondorio hauek nabarmentzen dira:

- Egindako bidaien % 16an gorabeherak erregistratu dira, eta erabiltzaileek ezin izan dute ibilbidea egin (erabiltzailerik gehienak gurgil-aulkian).
- Bildutako gorabehera horietatik % 71n, autobus-konpainiak ez du eman inolako erantzunik sortutako zailtasunaren aurrean, eta ez du aurkeztu ordezko aukerarik, erabiltzaileak bidaiatzen jarraitu ahal izateko.
- Egindako bidaien % 47an, desgaitasuna duten pertsonen zailtasunak izan dituzte bidaia-txartela balioztatze eta % 18k ezin izan dute txartela balioztatu beren kabuz.
- Autobusen % 93k ez du informazio egokia braille sisteman edo ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzako sistema irigarriren batean.

- Erabiltzaileen % 47k adierazi du audio-sistemak ez zuela funtzionatzen

Azterlanak, era berean, 42 geralekuren analisia ere egiten du (% 74, hiri artekoak, eta % 26, hiri barrukoak). Geralekuei dagokienez, honako ondorio hauek ateratzen dira:

- Parte-hartzaileen % 38k arazoak ditu geltokira iristeko.
- Geralekuen % 19a ezin da iritsi (ez dira irigarriak).
- Markesinen % 42k (markesina duten geralekuen artean) ez du espazio egokirik gurgil-aulkia baliatzen duen pertsona koka dadin.
- Erabiltzaileen % 55ek adierazi du markesinetan ipinitako informazioa ez dagoela garaiera egokian. Aztertutako markesina bakar batek ere ez du informazioa braille sisteman.

3.1.3. Jarduketa publikoak


Eusko Jaurlaritzak laguntza-lerro bat dauka etxebizitzaren irigarritasuna egokitzeko birgaitze-lanak egiteko

Eusko Jaurlaritzak etxebizitzak birgaitzeko laguntza sorta bat eskaintzen du, partikularrei zein bizilagunen erkidegoei zuzenduta; laguntza horien artean, nabarmentzekoak dira etxebizitzak eta etxebizitzetarako sarrerak desgaitasuna duten

pertsonei buruzko indarreko araudira egokitzeko laguntzak. 2017an, Eusko Jaurlaritzak laguntzak eman zituen irigarritasuna hobetzeko obrak egiteko: guztira 5,2 milioi euro. Hau da, urte horretan bertan emandako laguntza guztien % 25.

18. grafikoa

Eusko Jaurlaritzak 2017an birgaitzeko emandako laguntzen banaketa



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritzak.

Eusko Jaurlaritzak toki-erakundeei zuzendutako laguntza-lerro bat dauka, irigarritasunaren alorreko planak eta obrak egin ditzaten

Eusko Jaurlaritzak, era berean, laguntza-programa bat dauka udalei eta udalerrira baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeei zuzenduta, irigarritasunaren alorreko planak eta obrak egiteko. Laguntza-programa hori toki-erakundeei zuzenduta dago, eta haren helburua da herritar guztiak berdintasunean eta ahalik eta modurik independenteenean garatzeko erraztasunak ematen dituzten hiri-ingurunea eta espazio publikoak bilatzea, Irigarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legearen eskakizunak oinarri harturik.

Programa horretara bideratutako aurrekontua handitzen joan da poliki-poliki: 2013an, 1,8 milioi zituen, eta 2017ko deialdian, 3,3 milioi eurora iritsi da (2016an baino 0,3 milioi euro gehiago). Programaren bilakaerak erakusten du joera heterogeneoa dela babestutako obren eta planen kopuruari dagokionez; hala, obren kasuan % 50 inguruko murrizketa daukate, 2016ko datuekin alderaturik.

15. taula

Udalentzako eta udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeentzako irisgarritasuna hobetzeko dirulaguntzak. 2013-2017

Denbora-tarteko urteko batezbestekoa	2013		2014		2015		2016		2017	
	Kop.	m.€	Kop.	m.€	Kop.	m.€	Kop.	m.€	Kop.	m.€
Planak	37	407	24	249	32	300	26	302	23	377
Obrak	152	1.393	57	2.251	102	2.700	142	2.698	72	2.923
Total	189	1.800	81	2.500	134	3.000	168	3.000	95	3.300

* Milioi euro.

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritza.

EAEko udalak beharturik daude irisgarritasun-plan bat izatera. Eusko Jaurlaritzak 2001 eta 2016 bitartean finantzatutako irisgarritasun-planak erreferentzia gisa harturik, Euskadiko 208 udalerrik diseinatu dute toki-plana (ikus 16.Taula).

2018tik, Osasun Saila eta Osakidetza, modu korporatiboan eta irizpide bateratuak erabilia, irisgarritasuna garatzen ari dira osasun-sare publiko guztian. Hori dela eta, 1 milioi euro esleitzen zaizkie urtean kontzeptu horren barnean bildutako inbertsioei. Hona hemen helburu horretarako identifikatutako zenbait adibide, erakunde sanitarioekin batera:

- Oztopo arkitektonikoak ezabatzea Kanpoko ibilbideak egokitzea, irisgarriak izan daitezen eraikinaren sarreraraino.
- Erabiltzailearen Arretako altzariak egokitzea.
- Bideratze podotaktilen zuzkidura, kanpoko sarreratik Erabiltzailearen Arretarako guneraino.
- Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako erreserbatutako aparkaleku-plazak ongi seinaleztatzea (horizontala eta bertikala), kokatzea eta mantentzea.
- Zeinu-hizkuntza interpretatzeko sistema txertatzeko aukerak aztertzea.
- Beste erraztasun neurtu batzuk.

2018an, 1.023.076,96 euro exekutatu ziren, irisgarritasuna hobetzeko 71 jarduketatan.

Jarduketa-tipologiaren arabera:

- 22 jarduketa ateen inguruan (automatizatzea, aldatzea eta abar).
- 12 egokitzeko obra (urbanizatzea, sarbideak eta barnealdeak).
- 12 jarduketa espezifiko, komunak egokitzeko.
- 6 jarduketa, geletako sabaiko garabien inguruan.
- 5 arreta-gune irisgarri.

Lurralde historikoaren arabera:

- 35 jarduketa Bizkaian.
- 23 Gipuzkoan.
- 13 Araban.

Zerbitzuetako erakundearen arabera:

- 10 jarduketa Santa Marina Ospitalean.
- 8 Arabako ESlan.
- 8 Barrualde-Galdakaoko ESlan.
- 8 Debagoieneko ESlan.

50 Irigarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia

Ekonomiari dagokionez:

- Komunak egokitzeko jarduketak (% 27), ateen inguruko jarduketak (% 23), egokitzeko obrak—urbanizatzea, sarbideak eta barnealdeak— (% 19), eta geletako sabaiko garabiak (% 17).
- % 58 Bizkaian gauzatu zen; % 24, Gipuzkoan; eta % 18, Araban
- Barrualde-Galdakaoko ESlan egin zen guztira gauzatutakoaren % 23, eta Santa Marina Ospitalean, berriz, % 16.

2019an, 1.636.334,86 euro exekutatu ziren, Irigarritasuna hobetzeko 55 jarduketatan.

Jarduketa-tipologiaren arabera:

- 10 egokitzeko obra (urbanizatzea, sarbideak eta barnealdeak).
- 8 jarduketa ateen inguruan (automatizatzea, aldatzea eta abar).
- 9 jarduketa, komunak egokitzeko.
- 4 jarduketa, geletako sabaiko garabien inguruan.

Lurralde historikoaren arabera:

- 33 jarduketa Bizkaian
- 13 Gipuzkoan.
- 9 Araban.

Zerbitzuetako erakundearen arabera

- 9 jarduketa, Santa Marina Ospitalean.
- 8 jarduketa, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean.
- 4 jarduketa, Arabako Errioxako ESlan.
- 5 jarduketa, Donostialdeko ESlan.

Ekonomiari dagokionez:

- Hauek nabarmendu daitezke: egokitzeko obrak —urbanizatzea, sarbideak eta barnealdeak— (% 54); sabaiko garabiak geletan (% 13) eta ateen inguruko jarduketak (% 9).
- % 58 Bizkaian gauzatu zen; % 27, Gipuzkoan; eta % 15, Araban.
- Donostialdeko ESlan egin zen guztira gauzatutakoaren % 20; Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean, % 17; Santa Marina Ospitalean, % 11; eta, Arabako Errioxako ESlan, % 10.

16. taula

Eusko Jaurlaritzak 2001 eta 2016 bitartean finantzatutako irigarritasun-planak eta obrak

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Guztira
	Jarduketen kopurua	Diru-laguntza	Jarduketen kopurua	Diru-laguntza	Jarduketen kopurua	Diru-laguntza	
Irigarritasun-planak	43 udal- 7 administrazio- batzar	1.684.354,08	88 udal- 1 sozietate	2.152.950,20	77 udal- 1 sozietate	1.387.304,63	208 udal-plan 5.224.608,91 €
Obrak	32 udal- 34 administrazio- batzar	7.182.718,48	79 udal- 2 sozietate	15.232.273,56	83 udal- 6 sozietate	18.720.399,74	41.135.391,78 €
Guztira		8.867.072,56		17.385.223,76		20.107.104,37	46.360.000 €

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritza.

3.2. Diagnostikoa

3.2.1. Metodologia eta emaitzak

2018ko lehen sei hilekoan, Irigarritasunaren Euskal Kontseiluak (ISEK) Euskadiko irigarritasun unibertsalaren ebaluazioan jardun zuen lanean, diagnostikoa eta estrategia diseinatzen aurrera egiteko. Prozesu horretan, iturri dokumentalak eta estatistikoak berrikusi ziren, gako-eragileekin elkarrizketak egin ziren eta informazioa biltzeko fitxa bat betetzeko eskatu zitzaizkien hainbat elkarteri eta organismo publikori. Horretaz gainera, bi talde-dinamika egin ziren (esparru publikoko gaikako taldea eta esparru pribatukoa), informazio gehiago eskuratzeko.


Informazioa biltzeko fitxari dagokionez, nabarmentzekoa da bi fitxa-eredu idatzi zirela: bat, Irigarritasuna

Sustatzeko Euskal Kontseiluaren (ISEK) osoko bilkurako elkarte kideentzat, eta beste bat, Irigarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren kide diren Eusko Jaurlaritzako sailentzat, hiru foru-aldundientzat eta Euskadiko udalentzat (guztira 248 udal, EUDELen bidez harremanetan ipinirik).

Guztira 93 fitxa jaso ziren, 73 erakundetatik. Alde horretatik, azaldu behar da Eusko Jaurlaritzako sailek antolaketa-egitura konplexua dutela (hainbat zuzendaritza, sozietate eta/edo agentzia publiko...) eta, kasu batzuetan, sail beraren hainbat fitxa jaso dira, baina zuzendaritza desberdinetatik edo beste unitate mota batzuetatik.

19. grafikoa

Jasotako erantzun kopurua



a) Elkartek

Prozesuan, sei elkarteren erantzuna jaso zen. Ondoren, elkartek bidalitako fitxetan emandako hainbat ideia azaltzen dira:

- Aurrerapen garrantzitsuak egin dira azken urteetan, baina oraindik ere ez dira nahikoa. Askok hobetu da espaloiei, zebra-bideei, kaleak oinezkotzeari eta halakoei dagokienez. Baina oraindik ere eraikin publiko asko daude irisgarritasun-maila apalarekin. Kritikatzen da interes falta dagoela.
- Hainbat obra egin dira etxebizitzetarako sarbideak zero kotan ipintzeko. Eskuarki, eraikin berriak betetzen dituzte irisgarritasun fisikoko eskakizunak.
- Garraio publikoan oraindik ere defizit handia dago, eta aisialdiko eta denbora libreko tokiak oraindik ere ez daude egokituta.
- Ukimen-, ikusmen- eta entzumen-seinaleztapenak beti bigarren planoan egon izan dira. Ez dira betetzen irisgarritasun-arauak esparru askotan. Horretaz gainera, hiriak asko aldatu dira (plataforma bakarrak, bidegorriak espaloietan, auto elektrikoak, oinezkoentzako eremuak eta abar), eta espazio berri horiek ere irisgarriak izan behar dute.
- Oraindik ere asko dago egiteko esparru guztietan, batez ere irisgarritasun kognitiboari dagokionez; izan ere, irisgarritasun fisikoa —herritarrentzat ikusgarriena dena— poliki-poliki egokitzen ari da mugikortasun murriztua duten erabiltzaileen beharrezanetara.
- Praktikan, «irisgarritasun puntualean» lan egiten da, eta ez da aplikatzen egiaz «irisgarritasun unibertsala». Irisgarritasun unibertsalaren printzipioak presente egon beharko luke edozer produktu, eraikin edo zerbitzuren diseinua egiten den unetik.
- Oraindik ere pertsona ugari ezin dituzte gauzatu hainbat produktu, ondasun, ingurune eta zerbitzutara iristeko oinarriko eskubideak, eta egunero-egunero sortzen dira diskriminazio- eta bazterkeria-egoerak. Horrek urrundu egiten du Euskadi gizarte erabat inklusibo izateko.
- Gainera, alde nabarmenak daude udalerririk batzuetatik besteetara.

b) Udalak

Guztira 60 udalek bete eta bidali zuten informazio-fitxa. Análisisa egin ondoren, hona hemen ondorio nagusiak:

- Fitxari erantzun dioten udal ia guztietan, badute irisgarritasun-plana (57 udaletan, hau da, % 95ean).
- Irisgarritasun-planek lau urteko iraupena izan behar dute, eta hortik ondorioztatzen da hiru udaletik bakarrak duela plana indarrean (% 37).
- 19 udaletan (% 32) adierazi dute badutela irisgarritasun-arduradun bat, eta alderdi horrek erraztu egiten du irisgarritasun-plana prestatzea eta betearaztea.
- EAEko hiru hiriburuek (Bilbo, Donostia eta Gasteiz) adierazi dute badutela irisgarritasun-plana, baina gaur egun ez daukate irisgarritasun-arduradunik.
- Informazioa eman duten ia udal guztiek adierazi dute badutela beren eraikinen egoeraren berri; edonola ere, batzuek esan dute zailtasunak izan dituztela eraikin propioen bolumena zenbatesteko ere.
- Informazioa eman duten 60 udalek guztira 1.600 eraikin publiko baino gehiago dituzte, eta bi eraikin propiotatik batean ebaluatu dute irisgarritasuna modu «formalean» (% 53)..
- Eraikin publikoetan neurtu duten irisgarritasun motari dagokionez, zera esan dezakegu:
 - % 85ek irisgarritasun fisikoa neurtu du (51 udal).
 - % 62k informazioaren eta zerbitzu publikoetarako irisgarritasuna neurtu du (37 udal).
 - % 60k irisgarritasun sentsoriala neurtu du (36 udal).
 - % 47k irisgarritasun kognitiboa neurtu du (28 udal).
 - % 38k webguneetako irisgarritasuna neurtu du (23 udal).
- Irisgarritasun-planek gainera, hiru udaletik batek adierazten du egin duela edo egiten ari dela bestelako ebaluazio edo azterketarik, udalerriko irisgarritasuna hobetzeko bidean aurrera egin ahal izateko. Hona hemen horren adibide batzuk:
 - Donostiako mugikortasun bertikalaren plana.

- Arrigorriagako udal-ekipamendu publikoen gida-plana.
- Barakaldoko mugikortasun-plana.
- Bernedoko udaletxeko irigarritasuna hobetzeko azterketa.
- Mutrikuko bide publikoan irigarritasuna eta mugikortasun bertikala (igogailuak) berrikustea eta eguneratzea.
- Udalen esparruan, hainbat zailtasun hauteman dituzte, egin beharreko irigarritasun-diagnostikoan kontuan izateko:
 - Zailtasunak informazioa eskuragarri ipintzeko: irigarritasuna hobetzeko ekintzak egiten dira, baina ez dago inbentariarik edo diagnostikorik, udalerriko egoera edo udalerraren premiak biltzeko.
 - Zailtasunak irigarritasun-planak betearazteko: aurrekontu-mugapenak eta zailtasun ekonomikoak ekintzak gauzatzeko, zailtasunak planak betearazteko, zailtasunak gaiaren zeharkakotasuna ezartzeko, zailtasunak eragile batzuen eta besteen arteko koordinazio eta sentsibilizaziorako.
 - Landa-giroko udalerrien zailtasun espezifikokoak: mendiek markatutako orografiak zaildu egiten du irigarritasuna hobetzeko neurri egokiak ezartzea.

- Hiru erakundek bakarrik (% 11) dute irigarritasun-arduradun bat.
- Eraikin publikoetan neurtu duten irigarritasun motari dagokionez, zera esan dezakegu:
 - % 44k irigarritasun fisikoa neurtu du (12)
 - % 33k informazioaren eta zerbitzu publikoetarako irigarritasuna neurtu du (9))
 - % 30ek irigarritasun sentsoriala neurtu du (8)
 - % 37k irigarritasun kognitiboa neurtu du (10)
 - % 30ek webguneetako irigarritasuna neurtu du (8)

Garrantzitsua da nabarmentzea, batetik, Eusko Jaurlaritzako sailen barruko antolaketa-egituraren konplexutasuna, eta, bestetik, hainbat mailatatik jasotako fitxen aniztasuna.

c) Beste erakunde publiko batzuk

Azkenik, eta gainerako erakunde publikoekin loturik, guztira 27 fitxa eskuratu ziren, Eusko Jaurlaritzako hainbat sailetatik eta foru-aldundi batetik. Fitxa horietatik bildutako informazioa aztertuta, honako datu hauek eskuratu dira:

- Lau erakundek bakarrik (% 15) dute irigarritasun-plana. Hainbat kasutan, adierazten dute egiteko hori ez dela beren eskumena.

3.2.2. Ondorio orokorrak

2018an egindako ebaluazio-prozesutik abiatuta, eta hainbat eratak materialak berrikusita —hala nola eskura diren iturriak, gako-eragileei egindako elkarrizketak, informazioa biltzeko fitxak eta talde-bilerak eta -dinamikak—, honako ondorio hauek atera ziren:

- Oro har, elkarreek aitortzen dute asko egin dela aurrera irisgarritasunaren esparruan, baina badirela hogeit hamar urte legea onartu zela eta oraindik ere asko dagoela egiteko. Kasu askotan, nabaria da irisgarritasunari buruzko sentsibilizazio, informazio eta prestakuntza falta. Oraindik ere ez da planteatzen lehentasunezko alderdi gisa.
- Irisgarritasuna ez da ikusten zeharkako alderdi bezala. Praktikan, «irisgarritasun puntualean» lan egiten da, eta ez da aplikatzen egiaz «irisgarritasun unibertsala».
- Kasu askotan, irisgarritasunaren kontzeptua irisgarritasun fisikoarekin bakarrik identifikatzen da, eta ez da lotzen ikusmenarekin edo entzumenarekin, ez eta irisgarritasun kognitiboarekin ere. Hori dela

eta, bide luzeagoa egin da irisgarritasun fisikoaren esparruan gainerakoetan baino.


- Alde nabarmenak daude udalerrri batzuetatik besteetara.
- Heterogeneotasuna da dokumentu-iturrien ezaugarria. Irisgarritasunaren gaineko informazioa oso sakabanaturik dago iturri batzuen eta besteen artean, eta ez da osoa. Kasu askotan, zaharkiturik dago informazioa. Gainera, zaila da egoera zenbatestea, analisi asko pertzepzioetan oinarrituta baitaude (ezagutza «informala») (ikusi 20. Grafikoa).

3.2.2. Balioespen orokorra

B eranskinean, xehaturik geratzen da aplikatutako metodologia, zeina erabili baita balioespen orokorra egiteko eta estrategia garatzeko behar diren jarduera-neurrien gerturatzea egiteko.

20. grafikoa

Aurrediagnostikoa. Ondorio nagusiak



Irigarritasun unibertsalaren balioespen orokorra

Euskadiko Irigarritasun Legearen betetze - maila mugatua da



Kritikak, ez-betetzeak zehatzen ez direlako

Aurrera egin da Irigarritasunaren Euskal Legearen beteze-maila orokorrean, eta Euskadik egoera hobea bizi du inguruko beste autonomia-erkidegoek baino



Oraindik ere asko dago egiteko

Batez ere espazio publiko urbanizatuetan, azpiegituretan eta eraikingintzan egin da aurrera, eta gutziago enpleguaren alorrean



- Kalitatezko hezkuntza eskuratzeko baldintzatzen du kalitatezko enplegua.
- Defizitak aferi dira teknologia berrien esparruan.
- Kultur ondarearen alorreko irigarritasuna lortzeko.

Zailtasunak irigarritasun unibertsalerantz aurrera egiteko

Informazioa sakabanatua eta eguneratu gabea irigarritasun unibertsalari buruz

- Iturrien heterogeneotasuna
- Ezagutza «informala»

Jakintza-falta eta kontzientziazio sozial apala irigarritasunaren alorrean

- Irigarritasun-neurri puntualetan lan egiteko joera, eta ez irigarritasun unibertsalean
- Guztientzako diseinua zabaltzeko premia
- Prestakuntza espezifiko kaskarra irigarritasunaren alorrean Irigarritasun unibertsalari buruzko kontzientzia-falta (ez alor fisikoan bakarrik)
- Irigarritasun sentsorialean aurrera egiteko premia

Iritzi desberdinak erakunde publikoen inplikazio- eta konpromiso-mailaren gainea

- Erakunde sozialak kritikoago eta eszeptikoago ageri dira
- Udalen egitekoaren garrantzia
- Instalaturako dispositiboaren mantentze-lan mugatua

Inplikaturako agente guztien ateko koordinazio- eta lankidetzaren premia legea betetzen dela bermatzeko

- Etxebizitza Sailaren eskumena
- Coordinación mejorable entre distintos niveles de la administración, Koordinazioa hobe liteke, bai administrazio-mailen artean, bai administrazioaren eta hirugarren sektorearen artean

Araudia betzeko zailtasunak

- Araudia malgutzeko premia (nahiz eta egokia izan)
- Babes ekonomikoaren premia, irigarritasuna hobetzeko
- Aholkularitza-premia, laguntzak eskuratzeko izapideetan
- Eraikin/azpiegitura batzuk zaharrak dira

Gabeziak prestakuntzaren arloan

- Profesional askok ez daukate prestakuntza egokia

Jarduera-neurriak identifikatzea

INFORMAZIOA hobetzea

- Informazioa irigarritasun-behatokibatean zentralizatzea
- Azterlan gehiago egitea EAEko irigarritasunaren egoerari buruz

BERRIKUNTZA ETA IKERKETA sustatzea IRISGARritasunaren ESPARRUAN

- Ikerketari babes ekonomikoa ematea

SENTSIBILIZAZIOA, KONTZIENTZIAZIOA ETA AINTZATESPENA hobetzea

- Informazio-kanpainak, komunikazio-planak, jardunaldiak eta halakoak antolatzea
- Programak sortzea, irigarritasunarekin den konpromisoa ziurtatzeko
- Titulu edo ziurtagiri bat sortzea, irigarritasunaren gaineko jakintza aitortzeko

ERAKUNDEEN INLIKAZIOA indartzea

- Irigarritasun-arduradunak izendatzea
- Irigarritasun-planak idaztea eta gainbegiratzea

AGENTEEN ARTEKO KOORDINAZIOA hobetzea

- Gobernantza hobetzea (Lehendakaritzaren eskumen zuzena)
- Gobernu-plan erkidea sail gutzietarako
- Lantalde iraunkorrak eta mistoak ipintzea martxan (hirugarren sektorea eta administrazio publikoa)

LEGEA BETETZEN DELA sendotzea

- Aurrekontu-zuzkidura areagotzea
- Araudia betetzen dela zaintzea Araudia inplifikatzea
- Eskuliburuak edo gidak prestatzea

PRESTAKUNTZA hobetzea

- Irigarritasunarekin lotutako prestakuntza txertatzea hezkuntza-siteman
- Profesionalen prestakuntza indartzea (etengabeko prestakuntza gisa)

04. Irisgarritasun unibertsalaren Euskadiko estrategia

Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiak ekintza positiboko neurri gisa balio behar du, pertsona guztientzat hainbat oinarrizko printzipio bermatzeko, hala nola aukera- eta tratu-berdintasuna, diskriminaziorik eza eta irisgarritasun unibertsala, guztia ere pertsona guztien garapen erabatekoa, autonomia eta askea lortzeko ingurune sozial eta komunitarioan, eta eskubide guztiak eraginkortasunez egikaritzean.

4.1. Printzipio inspiratzaileak

Estrategia hau lerrokaturik dago orain arte aipatu ditugun dokumentu guztiekin, bai araudiaren esparruaren alorrean, bai Estatuko eta nazioarteko irisgarritasun-plan eta -estrategiekin. Horien artean, hauek dira nabarmentzekoak:


- Aukera-berdintasuna: desgaitasuna dela-eta ez izatea diskriminaziorik, ez zuzenekorik ez zeharkakorik, diskriminazio horretan sartzen delarik edozein bereizketa, bazterketa edo murriztapen, desgaitasuna duten pertsonen oztopatzen diena politikaren, ekonomiaren, gizartearen, lanaren, kulturaren edo gizarte zibilaren arloan edo beste arlo batean dagozkien giza eskubide eta funtsezko askatasun guztiak baldintza berdinekin aitortzeko, goza ditzaten edo baliatzen dituzten (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua).
- Bizimodu independentea: egoera bat da, zeinean desgaitasunarekiko pertsonak bere existentziaren gainean erabakitzeke duen ahala baliatu eta bere komunitateko bizimoduan aktiboki parte hartzen baitu, nortasuna libreki garatzeko eskubidearen arabera (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua).
- Guztientzako diseinua: jarduera honen bitartez, hasiera-hasieratik pentsatzen edo proiektatzen dira, ahal den neurrian, inguruak, prozesuak, ondasunak, produktuak, zerbitzuak, objektuak, tresnak, egitasmoak, gailuak edo tresnak, pertsona guztiek ahalik eta gehien erabiltzeko moduan, ez egokitzerik ez diseinu espezializaturik beharrik gabe. «Diseinu unibertsala edo guztientzako diseinua erabiltzen denean», ez dira baztertzeko desgaitasunen bat duten pertsona jakin batzuen multzoentzako laguntza-produktuak, behar badituzte (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua).
- Zeharkakotasuna: printzipio honen bidez, herri-administrazioek gauzatzen dituzten jarduerak ez dira izango pertsona horientzako ez beste inorentzako plan, programa eta ekintza espezifikoak egitea bakarrik, zeren eta jarduera publikoaren eremuetako edozeinetako ekintza-politika eta -lerro orokorrak lantzea ere sartzen baita hor, eta desgaitasunen bat duten pertsonen beharrezan eta eskariak ere kontuan hartuko baitira hartara (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua).
- Eragile guztien inplikazioa: gizarte eta ingurune erabat inklusiboa lortzeko eraldaketa soziala eta kulturala izateko baldintza, guztia ere desgaitasuna duten pertsona guztien parte-hartzea eta berdintasuna ahalbidetzeko (Euskadiko desgaitasunari buruzko liburu zuria).
- Gizarteratzea eta normalizazioa: printzipio honen bidez, gizarteak guztien onerako eta gizartearen kohesiorako balio konpartituak sustatzen ditu, eta

bide ematen du desgaitasunen bat duten pertsona guztiek aukera izan dezaten bizimodu politikoan, ekonomikoan, gizartekoan, hezkuntzakoan, lanekoan eta kulturakoan osoki parte har dezaten eta gainerakoekiko berdintasunezko bizi-baldintzak goza ditzaten. Normalizazioa: printzipio honen arabera, desgaitasunarekiko pertsonak aukera izan behar dute baldintza berdinekiko bizimodua eramateko, beste edozein pertsonak eskura dituen leku, eremu, ondasun eta zerbitzu berberak eskuratuz (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua).

- Elkarrizketa zibila: printzipio honen bidez, desgaitasunen bat duten pertsonen eta haien senitartekoen erakundeek parte hartzen dute, legeek eta gainerako arauak ezarritako baldintzen arabera, desgaitasunen bat duten pertsonak direla-eta gauzatzen diren politika ofizialak lantzen, gauzatzen eta politika horiek nola gauzatzen diren behatzen eta ebaluatzen; politika horiek, nolahi ere, bermatu behar dute desgaitasunen bat duten umeek askatasunez adierazi ahal izatea beren iritzia eragiten dieten gai guztiei buruz, eta beren desgaitasunari eta adinari dagokion laguntza jaso ahal izatea eskubide hori baliatu ahal izateko (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua).

21. grafikoa

Estrategiaren printzipioak




4.2. Jarduera eremuak

Bestalde, estrategian planteatutako jarduera-esparruek zeharkako ikuspegi bati erantzuten diote, eta lerrokatu daude erreferentzia-esparruetan adierazitakoekin¹.

22. grafikoa

Estrategiaren jarduera-esparruak



Iturria: ISEK-IKEI (2019). Euskal Autonomia Erkidegoan irisgarritasun unibertsala sustatzeko estrategia-proposamenaren definizioa gerturatzea.

¹ Aukera-berdintasuna, diskriminaziorik eza eta irisgarritasun unibertsala bermatzen duten jarduera-esparruak (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua). Desgaitasunari buruzko Europako 2010-2020 aldirako Estrategia. Lehetasunezko jarduera-esparruak.

4.3. Egitekoa eta etorkizuneko ikuspegia

Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren ikuspegia da beharrezko mekanismoak eta erremintak gaitzea, irisgarritasuna oinarrizko eta zeharkako elementu gisa txertatzeko esparru publiko eta pribatu guztietan, pertsona guztien bizimodu independentea eta aukeraberdintasuna bermatzeko.


Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren (ISEK) ikuspegia da EAERI erreminta bat ematea, jarduketan eta politiken zeharkakotasuna posible egiteko gizartearen esparru batzuetan eta besteetan, eta haiek guztiak efikaz bilakatzea lortu nahi den helburu erkidea lortzeko: Euskadi irisgarri bilakatzea pertsona guztientzat.

4.4. Helburu orokorra

Pertsona guztiek sarbide edo erabilera publikoko ingurune fisikoak, produktuak eta zerbitzuak eskuratzeko eskubidea egikaritu ahal izatea, modu aske eta ahalik eta autonomoenean, eta gure gizarteko esparru guztietara modu zeharkakoan iritsiz, diziplina eta sektore ugariatik. Horrek eskatzen du oztopoak identifikatzea eta beharrezko ekintzak gauzatzea oztopo horiek desagerrarazteko.

Puntu honetaraino marraztutako agertokia ikusirik eta egindako diagnostikoa harturik, aipatutako helburu nagusi hori sei helburu estrategikoren bidez mamituko da, zeinak, aldi berean, hainbat jarduketa-ildoren bidez egingo baitira operatibo.

Estrategia horretatik eratorriko den ekintza-planak definitu eta zehaztuko du ezarri beharreko jarduketan multzoa, egoki irizitako denbora-tartean eta bitartekoekin, guztia ere adierazitako helburuak betetzea erraztuz.



4.5. Helburu estrategikoak eta jarduera-ildoak

23. grafikoa

Helburu estrategikoak



4.5.1. Kontrola

KONTROLA Irisgarritasun unibertsalaren arloan indarrean den legeria betetzen dela bermatzea.	<ul style="list-style-type: none">– Horren helburua da modu efektiboan aurrera egitea irisgarritasun unibertsala lortzeko bidean.– Arau-manuetako bakoitzaren definizioa eta interpretazioa emanez aplikazio-eremu bakoitzean eta zehatzeko ahala edukiz indarrean dagoen araudia betetzen ez den kasuetan.– Obra zibilez arduratzen diren pertsoneri zuzendua, hala esparru publikoan nola pribatuan.
--	--

JARDUERA-ILDOAK	
1.01	<p>Araudi eta arau teknikoak berrikustea. Kontzeptuak eta irizpideak argitzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> – «Arrazoizko doikuntzen» kontzeptua aplikatzeari buruzko irizpide argiak ezartzea, Nazio Batuen konbentzioarekin eta komitearekin lerrokatuak. – Irizpide eta gidalerro bateratuak izatea esparru batzuetarako eta besteetarako araudia betetzeari buruz, baita haiek aplikatzen, interpretatzen edo betearazten dituztenentzat ere. – Arau-hausteen eta zehapenen araubidea eguneratzea. – Diskriminazioak prebenitzeko edo desagerrarazteko neurri jakinak arautzea. – Araudia irigarritasun unibertsalaren kontzeptu berrira egokitzea.
1.02	<p>Araudia aplikatzea errazten duten aplikazio-gidak eta interpretazio-irizpideak berrikustea eta taxutzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Esparru bakoitzean gida espezifikoak egitea, irigarritasun unibertsala, inklusioa eta guztientzako diseinua lortzeko baldintzen aplikazio-irizpide bateratuak errazteko alor guztietan, kontu hartuz gida horiek irigarriak izan behar dutela eta erraz irakurtzeko irizpideak bete behar dituztela. – Kontuan hartu beharreko elementu guztiak garatzeko gidak (bai irigarritasun-baldintzen analisisa egiteko, bai hobetu beharreko alderdien plangintza egiteko), irigarritasun-katearen eta oztopo-aniztasunaren ikuspegitik (oztopo horiek izan litezke arkitektonikoak, informaziokoak, komunikaziokoak, ulermenarekin lotuak...).
1.03	<p>Kontrol- eta gainbegiratze-mekanismo gaituak babestea irigarritasun-baldintzen kontrolean, lizentziak eta bestelako baimenak eskuratzeko garaian.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Ikuskaritza-, kontrol- eta zehapen-mekanismo efektiboak izatea, irigarritasun unibertsaleko baldintzak betetzen direla bermatzeko. – Irigarritasun-araudia betetzen dela bermatzeko mekanismoak sortzea: kontrola, jarraipena eta ez-betetzeak zehatzea. – Lizentziarik ez dela ematen zaintzea, irigarritasun-araudia bete ezean (edo, bestela, eskura diren soluzio tekniko posible guztiak aplikatzen saiatu direla egiaztatu ezean).
1.04	<p>Irigarritasuna txertatzea politika eta araudi sektorialetan, hirigintza-planteamenduan eta esparru publiko zein pribatu guztietan.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Beharrezkoa da politika sektorialak identifikatzea irigarritasuna araudietan jasotzeko; hala, sektore guztietako oinarrizko gidalerroetan egongo da jasota irigarritasuna.
1.05	<p>Irigarritasun-baldintzetara egindako egokitzapenak biltzea administrazio-kontratuetaiko baldintza-pleguetan.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Irigarritasuna lehentasunezko baldintza gisa biltzea erosketa publikoan, kontratazio publikoan eta dirulaguntzen programetan.
1.06	<p>Erabilera publikoko inguruneak eta zerbitzuak egokitzea, zaintzea eta mantentzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Horrek eskatzen du arreta berezia ipintzea erabilera publikoko espazio eta zerbitzuekin, pertsona guztien oinarrizko eskubideak baliatzen diren bermatzeko funtsezko elementu gisa.

4.5.2. Sustapena

SUSTAPENA

Irisgarritasuna kudeaketa publikoan txertatzea, oinarrizko eta zeharkako elementu gisa

- Alor publikoan ingurune unibertsalki irisgarriak sortzeko, eta esparru pribatuan, berriz, irisgarritasun unibertsalaren aurrerabidea sustatzeko.
- Jakintza eta inbertsioa indartuz, erreminta egokiekin alor bakoitzerako –publiko zein pribatu–.
- Alor publikoa kudeatzeaz eta erakunde pribatuez arduratzen diren pertsoneri zuzendurik.

JARDUERA-ILDOAK

2.01	<p>Lau urteko programen prestaketa eta jarraipena sustatzea, erakunde publikoetan irisgarritasuna sustatzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Udaletako irisgarritasun-planak idaztea sustatzea, baita txerta daitezkeen bestelako programak ere; zehatzak izango dira, eta jarduketa espezifikoak bilduko dituzte, egutegia eta aurrekontua ondo finkaturik, helburuok betetzen lagun dezaten.
2.02	<p>Finantzaketa- eta sustapen-lerroak eskuratzeko erraztasunak, lehendik diren inguruneak eta zerbitzuak egokitzen laguntzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Horrek eskatzen du bitarteko ekonomikoak ematea eragile egokiei, inguruneak egokitzeko beharrezko jarduketak gauzatu ahal izateko.
2.03	<p>Epaitegiak espezializatzea desgaitasuna duten pertsonen eskubideen eta irisgarritasunaren esparruan.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Justiziaren esparruko figurei funtzioak eta edukiak emateko beharra, desgaitasuna duten pertsonen eskubideak defendatzeko eta irisgarritasun unibertsala bermatzeko.
2.04	<p>Enplegu publikoko proben irispidea bermatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Edukiaren irisgarritasuna bermatzeko beharra enplegu publikoko probetan.
2.05	<p>Lanpostuetako irisgarritasuna erraztea.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Lehendik diren lanpostuen egokitzapena erraztea eta, horretaz gainera, diseinu unibertsala sustatzea lantoki berrietarako.
2.06	<p>Enpresen barne-arauetan biltzea sustatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Erakunde pribatuetan, enpresetan eta abarretan kontzientzia pizteko premia eskatzen du; hala irisgarritasuna oinarrizko elementu izango da, erabakiak hartzeko prozesuaren zati bilakaturik.
2.07	<p>Askatasuna bermatzea erabakiak hartzean.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Eskatzen du parte-hartze politiko autonomorako oinarrizko eskubidea bermatzea; hala, ziurtatu beharko da irisgarriak direla hauteslekuak, botoak braille bidez hautatu ahal izatea, eta hauteslekuak espazio ulergarriak eta lagunkoiak izatea.
2.08	<p>Irisgarritasun-kontzeptu berri bat sustatzea etxebizitzetan.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Alde batetik, etxeetan domotika biltzea eta babes-produktu irisgarriak eta erabilgarriak baliatzea biltzen du, eta, bestetik, espazio ulergarriak eta lagunkoiak sortzea.

4.5.3. Sentsibilizazioa

SENTSIBILIZAZIOA Gizarte osoaren sentsibilizazioa eta kontzientziakzioa hobetzea	<ul style="list-style-type: none"> – Irisgarritasun unibertsalarekin lerrokatutako balioak dituen gizarte bat lortzeko. – Topaketen eta partaidetza-dinamiken bidez. – Topaketen antolatzaileetara bideratua (kultura, kirol, lan, politika eta tankerako esparruekin lotuak).
--	---

JARDUERA-ILDOAK	
3.01	Herritarrei zuzendutako informazio-kanpainak antolatzea (telebista, irratia, prentsa idatzia...). – Komunikabide orokorrak baliatzea eskatzen du, eta, a priori, segmentatu gabe.
3.02	Enpresa pribatuak eta erakunde publikoak sentsibilizatzen bideratutako jardunaldiak antolatzea. – Enpresa pribatuetan interesa pizten duen gai baten inguruan biltzea esan nahi du.
3.03	Impulsar actuaciones de divulgación y difusión y convocar reconocimientos de buenas prácticas en materia de accesibilidad. – Irisgarritasunaren ikusmolde positiboa inplikatzeko, esparru tradizional zein berrietara zabaltzeko.
3.04	Irisgarritasun-konzeptu berria eta haren zeharkakotasuna sustatzea eta gizarteratzea. – Partaidetza-dinamikak sortzea, irisgarritasunaren kontzeptua modu partekatuan definitzeko.
3.05	Irisgarritasun-eredu berria, estrategia bera eta hura ezartzeko estrategia eraikitzeke prozesua dibulгатzea eta zabaltzea. – Ulertzea prozesua bera ere badela emaitza, are gehiago zerbait berria eta zeharkakoa sortu nahi denean.
3.06	Pertsona abiapuntu duen irisgarritasun-eskubideen gutuna idaztea. – Adostutako dokumentu bat sortzea, zabalpena eta ulermena errazteko.

4.5.4. Prestakuntza

<p>PRESTAKUNTZA</p> <p>Irigarritasunaren arloko prestakuntza sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> – Diseinu unibertsalaren printzipioa diziiplina guztietan biltzen dela bermatzeko (teknologikoak eta sozialak) eta irigarritasun-araudia modu efektiboan aplikatzen dela ziurtatzeko. – Ad hoc sortutako prestakuntza-moduluak emanez. – Hezkuntza arautuan, masterretan eta etengabeko prestakuntzan curriculumak diseinatzen dituztenentzat, bereziki esparru judizialari begira.
--	---

JARDUERA-ILDOAK

4.01	<p>Irigarritasun unibertsaleko eta guztientzako diseinuko prestakuntza biltzea lehen eta bigarren hezkuntzan.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Ulertzea irigarritasun unibertsalaren eta guztientzako diseinuaren zeharkakotasunak baduela zentzurik curriculumean.
4.02	<p>Irigarritasun unibertsalaren alorreko prestakuntza biltzea unibertsitate-curriculumetan eta lanbide-heziketan.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Ulertzea irigarritasun unibertsalaren eta guztientzako diseinuaren zeharkakotasunak baduela zentzurik curriculumean.
4.03	<p>Titulazio espezifiko bat sortzea (diseinu eta irigarritasun unibertsaleko masterra).</p> <ul style="list-style-type: none"> – Irigarritasun unibertsala eta guztientzako diseinua kontzeptuek hainbat diziiplina osatzen dituztela ulertzea.
4.04	<p>Etengabeko prestakuntzako edukiak eguneratzea irigarritasun-kontzeptua txertatuz.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Irigarritasunari buruzko fokua ipintzeko laneko gako-esparruak zein diren identifikatzea.
4.05	<p>Jendaurreko arreta-zerbitzua eskaintzen duten pertsonen prestakuntza bultzatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Irigarritasun eta diseinu unibertsalaren alorreko kontzeptuetan trebatzea. – Lagunkoitasun-kontzeptuan trebatzea.
4.06	<p>Ingurune digital irigarriari buruzko prestakuntza espezifiko sustatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Irigarritasun-irizpideak egokitzea eta ingurune digitaletan trebatzea.
4.07	<p>Justizia Administrazioan prestakuntza espezifiko sustatzea, eta irigarritasun unibertsalari, inklusioari eta guztientzako diseinuari buruzko jurisprudentzia aztertzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Irigarritasunaren alorreko araudia aplikatzen dela bermatzea.
4.08	<p>Hirugarren sektore sozialeko teknikariek irigarritasun unibertsalaren alorrean duten jakintza eta esperientzia formalki aitortzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Produktuak eta zerbitzuak diseinatzeko fasean, irigarritasunaren alorrean espezializatutako hirugarren sektorearen jakintzarekin kontaktzea eta formalki aitortzea.

4.5.5. Berrikuntza

<p>BERRIKUNTZA</p> <p>Garapen teknologikoa sustatzea, eta ikerketa, berrikuntza eta kalitatea bultzatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> – Sortutako garapen teknologikoei eta zerbitzu berriei erraztasunak eman ditzaten pertsonak eta inguruneak elkarri eragiteko eta egitekoak gauzatzeko. – Finantzaketaren, lankidetzaren dinamikaren eta kalitate-bereizgarriaren bidez. – Unibertsitateak, teknologia-zentroak, sektore-klusterrak eta enpresak ditu hartzaile.
---	---


JARDUERA-ILDOAK	
5.01	<p>Diseinu eta irigarritasun unibertsalaren alorreko berrikuntza eta ikerketarako finantzaketa erraztea garapen teknologikoetan.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Diseinua eta irigarritasuna gizartearentzako ongi gisa identifikatzea, baita produktu eta zerbitzuarentzako balio erantsi gisa ere.
5.02	<p>Hainbat eragileren arteko lankidetzaren erraztea (unibertsitateak, teknologia-zentroak, sektore-klusterrak eta enpresak), irigarritasunaren aldeko berrikuntza, ikerketa eta garapen teknologikoei sustatzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Berrikuntza, ikerketa eta garapen teknologikoei sustatzea, lankidetzaren espazioak sortuz teknologia garatzen duten eta irigarritasun unibertsalean adituak diren eragileen artean.
5.03	<p>Kalitate-bereizgarriak sortzea, irigarritasun unibertsala inguruneetan, produktuetan, zerbitzuetan eta abarretan txertatzea sustatzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Irigarritasuna balio positibo gisa ulertzea, marka, hobekuntza eta orientazioa gaineratzen dituen bereizgarri gisa, eta erabiltzailearengana bideratzea.
5.04	<p>Berrikuntzarako laguntza publikoak sustatzea, irigarritasun unibertsalaren, laguntza-produktuen eta lantoki zein lan-inguruneen egokitzapenaren alorreko aurrerapenekin lotuta.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Lankidetzaren hitzarmenak bultzatzea unibertsitate, ikerketa-zentro eta garapen teknologikoko zentroekin, guztia ere I+G+Ban aurrera egiteko eta soluzio berritzaileak eskaintzeko irigarritasun unibertsalerako, laguntza-produktuak garatzeko, eta lanpostuak eta lan-inguruneak egokitzeko.

4.5.6. Gobernantza

<p>GOBERNANTZA</p> <p>Gobernantza-eredu berri bat sortzea estrategiaren lidergoa hartzeko eta jakintza sortzeko</p>	<ul style="list-style-type: none"> – Eragile guztien arteko lidergo argi bat indartzeko, zeharkakotasuna erraztea eta, gainera, jakintza sortzea eta partekatzea. – Ad hoc sorturiko erreminten (organismoen) kontrol efikaz baten bidez eta irisgarritasun-eredu berriarekin lerrokatutako kudeaketa-ereduaren bitartez. – Inplikaturako alor eta erakundeetako erreferentziazko pertsonengana zuzendua.
--	--

JARDUERA-ILDOAK	
6.01	<p>Lidergo instituzional eta politikoa edukitzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Irisgarritasun unibertsalaren aldeko konpromiso eta apustu irmoa. – Irisgarritasuneko arduradunak identifikatzea erakunde publiko guztietan. – Gaitasuna izatea konpromisoak lortzeko inplikaturako administrazio publiko eta eragile guztien aldetik.
6.02	<p>Euskadiko Irisgarritasun Behatokiaren sorrera diseinatzea eta zentralizatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Organismo publiko aditu eta independente baten sorrera eskatzea. – Haren forma juridikoa, osaketa, funtzioak eta esleipenak diseinatzea. – Kalitate-adierazleak eta jardunbide egokiak sortzea. – Diagnostiko xehatuak prestatzea esparru batzuetako eta besteetako irisgarritasun-baldintzei buruz (garraioa, hezkuntza, osasuna, merkataritza, etxebizitza...). – Jarraipen-adierazleak identifikatzea eta txertatzea estatistika, behatoki, datu-base eta informazio-sistema guztietan, edozer esparrutakoak izanik ere, aztertzeke betetzen dela irisgarritasun eta diseinu unibertsalaren baldintzen aplikazioa. – Osoko azterketak egitea irisgarritasun-baldintzei buruz.
6.03	<p>Kontsulta publikoko eta parte hartzeko ekimenak sustatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Onartzea, estrategiak zentzurik izateko, beharrezkoa dela parte-hartzearen bidez eraikitzea eta partekatua izatea.
6.04	<p>Lankidetzeta-formulak topatzea, eragileen artean sortutako gatazkak adosteko eta konpontzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Aurreikusi egin behar dira interes-talde txikien arteko adostasun falta posibleak, eta lankidetzan oinarritutako soluzio-formulak edo ikuspegi berriak garatu behar dira, hala nola negoziazio egituratua.
6.05	<p>Zerbitzu publikoen eta irisgarritasun-plan eta -estrategien kontrola, jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak artikulatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Zerbitzu publikoen irisgarritasun unibertsalaren maila ebaluatu ahal izateko adierazleak identifikatzea eta txertatzea administrazioaren kudeaketa- eta kalitate-sistema guztietan. – Kontrola egiteko, Irisgarritasun Unibertsalerako Euskal Institutuaren sorrera aztertzea. – Behar adina bitarteko, funtzio eta eskumen ematea kontrola egiteko, eta salbuespenak onartzea irisgarritasun-araudia betetzen ez den kasuetarako edo arrazoizko doikuntzak aplikatzeko tirabirak sortzen direnerako. – Sektore publikoko kontratazio- eta lizitazio-prozedura guztietan irisgarritasun unibertsalari buruz nahitaez txertatu beharreko klausula sozialen aplikazioa ebaluatzea (Sektore Publikoko Kontratuen Legea aplikatuz).

JARDUERA-ILDOAK	
6.06	<p>Planaren ebaluazioa diseinatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Estrategiak eta hartatik eratorritako planak jarraipena eta ebaluazioa beharko dituzte, bai diseinuari dagokionez, bai emaitzei dagokienez.
6.07	<p>Harreman irisgarrien eredia sustatzea administrazioaren eta herritarren artean.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren irisgarritasuna bermatzea. – Euskadi.eus atariko irisgarritasun-eredua araudi berrira egokitzea (EBko 2016/2102 Zuzentaraua eta hura Estatuko lege-ordenamendura ekartzen duten testuak kontuan izanik).
6.08	<p>Elkarrizketa zibilaren lider izatea.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Desgaitasuna duten pertsonen parte-hartze aktiboa sustatzea berrikuntza-prozesuetan eta guztientzako diseinuaren bermean. – Planak eta estrategiak definitzean, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen parte-hartzea bermatzea fase guztietan: prestaketa, diseinua, exekuzioaren jarraipena eta ebaluazioa.
6.09	<p>Urteko ekintza-planak sortzea, zuzkidura ekonomikoarekin.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Denbora- eta aurrekontu-konpromisoak biltzen dituzten plangintzak sortzea, irisgarritasunaren berme gisa.



05. Kudeaketa-, jarraipen- eta ebaluazio- eredua

Irigarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua (ISEK) arduratuko da estrategiaren jarraipenaz eta kontrolaz.

Organo hori Irigarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak sortua da, kontsulta- eta partaidetza-organo gisa, eta haren egitekoen artean daude honako hauek:

- Urtean behin txosten bat egitea, legean ezarritakoa zein mailataraino betetzen den ezagutarazteko, eta gero Legebiltzarrera bidaltzea.
- Irigarritasunaren arloan eskumenak dituzten organoei aholku ematea eta jarduteko irizpideak proposatzea, lege honetan xedatutakoaren arabera.
- Irigarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren esku utzitako gainerako eginkizun guztiak.

Haiek eta Irigarritasun Unibertsaleko Euskal Estrategia honetan bildutako helburuak oinarri harturik, **lau urteko ekintza-planen** bidez zehaztutako dira egitekoak eta jarduketak, datak ere finkatuz. ISEKek idatziko eta onartuko du lehendabizikoa 2020an zehar.

Aplikazio-denboran, **urtero txosten bat** prestatu beharko da strategiaren ezarpenari eta ebaluazioari buruz; ISEKen osoko bilkuran eztabaidatuko eta onartuko da, eta haren berri emango zaio Eusko Legebiltzarrari.

Lau urteko indarraldi hori amaitu ostean, strategiari **osoko ebaluazio bat** egin beharko zaio, baita haren ezarpen-mailari ere, hurrengo aldirako ekintza-plana definitzen laguntzeko. Urteko txostenak bezalaxe, ebaluazio hori ere ISEKen osoko bilkuran eztabaidatuko eta onartuko da, eta haren berri emango zaio Eusko Legebiltzarrari.

Irigarritasun Kontseiluak onartuko ditu dokumentu horiek jarraitu beharreko irizpideak.

Hurrengo fasearen mamia zera da, 2020an zehar matrize bat sortzea; hala, helburu eta jarduketa-ildoetatik abiatuta atundurik, garatu beharreko ekintzak zehaztuko dira, baita haien lorpena neurtzeko beharrezko adierazleak ere. Jarduketa horietako bakoitzean, gutxienez, arduradun instituzional bat izendatuko da ekintza bakoitzeko, eta, horretaz gainera, ekintza bakoitza zenbat denboran exekutatu behar den eta zer aurrekonturekin ere zehaztuko da.

24. grafikoa

Planaren diseinu-matrizea





A ERANSKINA

Lehendakariak Euskadiko Irisgarritasun Kontseiluan egindako adierazpena, irisgarritasuna sustatzeko legea onartu izanaren 20. urteurrena dela-eta

Ingurune fisikoak eta komunikazio-inguruneak irigarri izatea funtsezko faktorea da, herritar guztiek oinarritzotzat definitutako eskubideak gozatu ahal izan ditzaten. 1997ko abenduaren 4an, Eusko Legebiltzarrak Irigarritasuna Sustatzeko Legea onartu zuen. Arau aitzindaria izan zen Espainian eta Europan. Pertsona guztien integrazioa eta parte-hartzea ahalbidetzen zuen bizitza sozialean eta komunitarioan, eta halaxe jarraitzen du egiten gaur egun ere. Bereziki, oztopoen existentziak —nola fisikoak hala komunikaziokoak— eskubideak egikaritzea galarazten dieten pertsoneri begiratzuz, halakoek ezinezko egiten baitute pertsona horien bizimodu arrunta.

Lege hau bide baten hasiera izan zen. Lege haren aplikazio efektiboak eta araudia garatu izanak ekarri dute harrezkero Euskadiko eraikin berriak guztientzako irigarriagoak izatea, diseinatzen diren unetik bertatik. Era berean, legearen ondorioa da etxebizitza kopuru jakin bat desgaitasuna duten pertsonentzat egokituak izatea etxebizitza-promozio berrietan, pribatu zein publiko. Eta azken horien zuzkidurak bikoiztu egin dira.

Aldi berean, hainbat eta hainbat hiri-espazio berri ere konfiguratu dira, hasieran, irigarri bilakatzeko, eta, gero, lagunkoi. Hori lortzeko, ezinbestekoa izan da udalerriek egindako irigarritasun-planak aplikatzea; bide horretan, Eusko Jaurlaritzaren etengabeko babesa izan dute urteotan guztiotan.

Legeak, azkenik, Irigarritasunaren Euskal Kontseilua ipini zuen martxan, erakundez ez ezik herritarrez ere osaturik. Kontseilu instituzionala da, Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako eta udaletako sailen ordezkarietza duelako, baina, aldi berean, kontseilu parte-hartzailea ere bada. Hain zuzen ere, legea onartu baino askoz ere lehenagotik borrokan eta lanean ari ziren kolektiboen presentzia zabala baitu, desgaitasun-egoeran dauden pertsonen eskubide efektiboak aitortzeko bidean. Gero ere horretantxe jarraitu dute, eta kontseilu horretan, urte urte, gogorarazi dute oraindik ere asko dagoela egiteko irigarritasunaren arloan, eta baztertu egin dute ezein autokonplazentzia-zantzu administrazio publikoen aldetik.

Esparru honetan egiteke dagoen lana gaur hogeitau urte betetzen dituen arauaren betetze-maila efektibo handiagoa izatea da; halaxe lortuko dugu oraindik ere jarraitzen duten hutsarteak eta itzalak gainditzea, nahiz eta, zalantzarik gabe, aurrerabide handiak izan diren haren garapenean eta aplikazioan.

Desgaitasun-egoeran dauden pertsonen bizi-kalitatea hobetzen aurrera egiten jarraitzeko eta, batez ere, pertsona guztiek herritar gisa dituzten eskubideak egikaritzeko bidea hobetzeko eta bermatzeko,

ezinbestekoa da gure erkidegoan irigarritasun unibertsaleko estrategia baten oinarriak ezartzea legealdi honetan.

Euskadi erabat irigarria lortzen lagunduko digun ibilbide-orri bat: hiriko espazioak, eraikin publikoak, lantokiak, etxebizitzak eta gainerakoak eskuragarri izateko. Baina baita komunikazio digitalaren horizonte berriak irekitzen dituzten ingurune ez-fisikoak ere. Irigarritasun-kontzeptu berri bat definitu behar dugu, era guztietako diskriminazioak saihesten lagunduko duena eta guztion sarbidea bermatuko duena, gure gizartearen zati handi batek dagoeneko gozaten dituen eta bizitza sozialaren partetzat hartzen diren espazio, ondasun eta zerbitzu horiek eskuratzeko.

Finean, kontua da eskubideak bermatu behar direla, herritar guztiek eskubide guztiez gozatzeko aukera izan dezaten. Hanna Arendt-ek dioen moduan, «eskubideak izateko eskubidea» bermatzea.

Irigarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia modu zeharkakoan gauzatu behar da, hainbat diziplinatan eta sektoretan. Izan ere, guztioi dagokigu: etxebizitzako zerbitzu publikoei, lanaren munduari, komunikazioei eta aisiari. Desgaitasuna duten pertsonen erreklamazioetan ageri den irigarritasun-eskakizunak gainditu egiten ditu kolektibo horien mugak, eta pertsona guztiek egin dezaketen eskari unibertsal bilakatzen da, bizitzako esparru guztietara aplikatzeko modukoa.

Estrategia hori, ondorioz, ez da diseinatu behar desgaitasuna duten pertsonentzat, baizik eta haiekin batera. Hala, Euskadi gizarte inklusiboago eta bidezkoago bilakatzeko aukera eskainiko die herritarrei, gizarte modernoago eta hobea.

Euskadi irigarri eta inklusibo hori lortzeko, beharrezkoa da kolektiboen eta elkarten eskutik lan egitea, inork baino hobeto ezagutzen baitute zer zailtasun diren eguneroko martxan. Halaber, beharrezkoa da Irigarritasunaren Euskal Kontseilua bilakatzeko estrategia honetako motor. Baina, aldi berean, herritarrei buruzko kontzientziazioa sustatu behar dugu irigarritasun unibertsalaren gainean, ingurune fisikoaren beharrezko eraldaketa albo batera utzi gabe.

Ezinbestekoa da, azkenik, irigarritasun unibertsalaren erronka gizarte osoarentzako aukera gisa ikusten ikastea eta gure eguneroko martxan biltzea: kalea gurutzatzea bezalako egiteko sinple bat, teknologia berriak eta garapen zientifikoa, etxebizitzaren diseinua, ospitaleko sarbidea, edo lantokirako zein aisialdi-guneetarako sarbideak.

Irigarritasuna berdintasun-baldintzak hobetzeko, eskubideetan zein aukeretan. Guztia guztien esku-eskura.

B ERANSKINA

EAE-ko irisgarritasun unibertsala.
Diagnostikora egindako hurbiltze kualitatiboa

Aplikaturako metodologia: egindako inkestak eta elkarrizketak

EAEko irisgarritasun unibertsalaren balioespenaren hurbiltze kualitatiboaren oinarrian, batez ere, bi erreminta izan dira: batetik, gai honetan inplikaturako eragileei egindako inkesta, eta, bigarrenik, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko kideei egindako zortzi sakoneko elkarrizketa pertsonal. Bi erreminta horien bidez, hainbat eratako eragileen iritziak, proposamenak, ideiak eta abar bildu ahal izan dira, eta kontu handiz aztertu dira, Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia idazteko.

Inkesta

Online galdetegi bat prestatu da, zeinaren bidez irisgarritasunaren alorrean inplikaturiko pertsonen iritziak eta ideiak bildu ahal izan baitira. Lehendabizi, Irisgarritasunari buruzko Euskal Legearen betetze-

maila jorratzen du galdetegiak, eta zer esparrutan egin den gehien eta gutxien aurrera EAEn irisgarritasunari dagokionez. Halaber, egungo egoeraren defizit edo premia posibleak ere landu dira. Ondoren, irisgarritasun unibertsalerantz aurrera egiteko bildu litezkeen helburu eta neurri posibleak izan ditu hizpide galdetegiak, estrategian biltzeko hainbat jarduketa-proposamen iradokiz.

Online galdetegi hori guztira 61 erakundetara bidali da emailaz, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren osoko bilkurako 28 kideak barne. Inkesta bidali zaien 61 horietatik, guztira 40 galdetegi oso jaso dira bueltan. Ondoren aztertuko dugu haien edukia. Zehazki, hamalau erakunde publikoetakoak dira, eta beste zortzi, berriz, hirugarren sektorekoak. Halaber, hemezortzi galdetegi bestelako eragileek erantzun dituzte (unibertsitateak, adituak, finka-administratzaileak...).

17. taula

EAEko Irisgarritasun Unibertsalaren Estrategiarako iritzi-bilketa

Erakunde motak	Parte-hartzaile kopurua
Bidalitako inkestak	61
Jasotako erantzunak	
Erakunde publikoak	14
Hirugarren sektoreko erakundeak	8
Beste eragile batzuk	18
Jasotako erantzunak guztira	40

Iturria: Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia diseinatze inkesta, 2019, ISEK.

Egindako elkarrizketak

Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiak bildu behar dituen ildo estrategiko, jarduera-esparru eta helburu nagusietan aurrera egiteko, zortzi elkarrizketa pertsonal egin dira Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko kideekin. Elkarrizketaren gidoiak hainbat puntu jorratzen ditu. Hasteko, Euskadik irisgarritasun unibertsalaren esparruan dituen beharrianak eta erronkak hartzen ditu kontuan; ondoren, Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko

Estrategia idazteko garaian kontuan hartu beharreko jarduera-eremuak eta ekintza edo neurri posibleak.

Elkarrizketatutako zortzi eragileetatik lau desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzeko elkarte edo erakunde sozialak dira, eta beste laurak, berriz, Eusko Jaurlaritzako sailak. Honako taula honetan daude jasota elkarrizketatutako erakundeak.

18. taula

Elkarrizketatutako erakundeen zerrenda

Elkarteak

1. Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Gipuzkoako Federazio Koordinatzailea (Elkartu)
2. ONCE fundazioa (desgaitasuna duten pertsonen kooperazioa eta gizarteratzea)
3. Euskal Gorrak (Gorren Elkarteen Euskal Federazioa)
4. Euskadiko Kontsumitzaileen Batasuna (EKB)

Eusko Jaurlaritzako sailak

1. Osasun Saila
2. Garraio Saila
3. Turismo eta Kontsumo Saila
4. Hezkuntza Saila

Iturria: Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia diseinatzeko inkesta, 2019, ISEK.

Irisgarritasun unibertsalaren balioespen orokorra


Irisgarritasunaren Euskal Legearen betetze-maila mugatua da

Irisgarritasunaren Euskal Legearen betetze-mailari buruzko galdeketa egin da elkarrizketatutako pertsonen artean eta parte hartu duten eragileen artean. Oro har, pertzepzio nagusia da Irisgarritasunaren Euskal Legearen betetze-maila ez dela asegarria.

0 eta 10 arteko eskala batean (pertzepzio negatibotik positibora), elkarrizketatutako eragileek emandako puntuazioaren batezbestekoa 3,9 puntukoa da. Legea ez dela betetzen uste dutenak gehiago dira hirugarren sektoreko kideen artean, erakunde publikoen artean baino.

25. grafikoa

Irisgarritasunaren Euskal Legearen betetze-mailari buruzko pertzepzio orokorra



Iturria: Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia diseinatzeko inkesta, 2019, ISEK.

Inkesta eta elkarrizketa egin zaien hainbat eragile (bereziki elkarteetakoak) legea betearazteko —horretarako, ikuskaritza- eta zehapen-jarduera indartuz— erantzukizun publikoaren aldekoak dira irisgarritasunaren esparruan. Hirugarren sektoreko erakunde kontsultatuen zati garrantzitsu bat **oso**

kritiko ageri da, ez direlako zehapenak ipintzen ez-betetzeengatik. Merkataritza-sektoreak, alabaina, uste du udalak oso zorrotzak direla araudia betetzearekin eta ipintzen dituztela zehapenak hala egokitzen denean (udalek ematen dituzte irekitzeko, obrak egiteko eta halakoetarako baimenak).

- «Erakundeek jazarri egin beharko lituzkete legea betetzen ez dutenak».
- «Beharrezkoa da legea betearaztea: ez dago gaur egun daukagun legea aldatu beharrik, baina bete egin behar da».
- «Araudia betearaztea, zehapen-araudia aplikatzea, araudia eguneratzea, sistematikoki betetzen ez den zeharkako gaia».
- «Zehapen-araubidearen garapena eta administrazioen arbitraje-organo independentea».
- «Ez da zehapenik aplikatzen Irisgarritasun Legea ez betetzeagatik. Pentsatu behar da nola inplikatu epaile gehiago, fiskal gehiago... Izan ere, irisgarritasuna oinarritzko eskubide bat da. Ez dira zehapenak aplikatzen irisgarritasunagatik, inork ez du zehapen-prozesua eskatzen, nahiz eta irisgarritasun unibertsala pertsona guztientzako oinarritzko eskubidea den»
- «Eskatzen da ikuskaritzak egitea eta zehatzea, beharrezkoa bada. Hala ere, zehatu baino lehen, trebatu egin behar da jendea, kontzientzia piztu behar da, eta jendeari erakutsi behar zaio nola bete behar den araudia».


Irigarritasunaren Euskal Legearen betetze-maila orokorrean aurrera egin da, eta Euskadik egoera hobea bizi du inguruko beste autonomia-erkidegoen aldean

Nolanahi ere, erakunde publikoek, elkarteek eta hirugarren sektoreko erakundeek adierazi dute azkeneko urteetan asko egin dela aurrera Irigarritasunaren Euskal Legea betetzeari dagokionez, eta, oro har, hautematen da irigarritasun unibertsalaren egoera hobea dela Euskadin inguruko autonomia-erkidegoetan baino.

Hala, oro har, elkarteek aitortzen dute asko egin dela aurrera irigarritasunaren esparruan. Hala eta guztiz ere, badira hogeit hamar urte legea onartu zela, eta **oraindik ere asko geratzen da egiteko**. Oraindik ere pertsona ugari daude produktu, ondasun, ingurune eta zerbitzu asko eskuratzeko oinarritzko eskubideaz gabetuta. Gainera, alde nabarmenak daude udalerrri batzuetatik besteetara.

26. grafikoa

Irigarritasun unibertsalaren egoera Euskadin: azken bost urteetako aurrerapena eta inguruko beste autonomia-erkidegoekin alderatzea



Iturria: Irigarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia diseinatzeko inkesta, 2019, ISEK.

Batez ere espazio publiko urbanizatueta, azpiegituretan eta eraikingintzan egin da aurrera, eta gutxiago enpleguaren alorrean.

Gako-eragileei galdetzen zaie, irigarritasunaren alorrean gehien aurrera egin duten jarduketa-esparruei dagokienez (ikus 27. Grafikoa).

Online galdeketa hartu duten eragileen erdiek baino gehiagok adierazi dutenez, batez ere garraioan eta espazio publiko urbanizatueta, azpiegituretan eta eraikingintzan egin da aurrera. Halaber, izan da hobekuntzarik telekomunikazioetan eta informazioaren gizartean. Halaber, etxebizitzaren irigarritasunean


eta Euskadiko osasun-sistema publikoan izandako aurrerapen garrantzitsuei ere egin zaie aipamen. Garraioan ere asko egin da aurrera azkeneko urteetan, baina oraindik ere premia nabarmenak daude, batez ere hiri arteko garraioan.

Aldiz, enpleguan izan dira aurrerapen gutxien, irigarritasun unibertsalaren esparruan. Ideia hori inkestetan nahiz elkarrizketetan jaso da, bereziki hirugarren sektoreko erakundeen artean.

- «Aurrerapen gehienak hirigintzaren eta arkitekturaren esparruan izan dira; bide horretan asko egin da aurrera eta bide onetik doa».
- «Desgaitasun funtzionala duten pertsonen erabateko laneratzea bermatzea (bereizketarik eza), kupoekin lan-eskaintza publiko guztietan eta eskakizunekin enpresa pribatuetan».
- «Enpleguaren esparruan, ez da aurrera egin, ez baita behartzen».
- «Lanpostuak egokitu daitezke itsuek lan egin ahal izan dezaten. Garrantzitsua da lanpostuak egokitzeari buruzko kontzientzia piztea».
- «Enpresa askok ez dituzte gorrak onartzen lanpostu batzuetan, gor izate hutsagatik, nahiz eta berez erabat gauza izan lan horretarako. Praktikan, horrek eragiten du lortzen dituzten lanik gehienak kalitate txarrekoak izatea».
- «Oraindik ere aurreiritzi ugari dago. Gizartean, sentsibilizazioa eta kontzientziak behar dira, eta pertsonen zein enpresen mentalitatea aldatu behar da. Hori lagungarria litzateke mugak edo oztipoak murrizteko, lana topatzeko garaian».

27. grafikoa

Gehien aurrera egin duten jarduketa-esparruak (baiezko erantzunen %)



78 Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia

Aldiz, gorren elkarteak ere kritikoak dira gorren **hezkuntza-irisgarritasunarekin** eta eskoletan zeinu-hizkuntzako interpreteen eskuragarritasunarekin, eta

nabarmentzen dute, gainera, hezkuntza hobea izateak ateak irekitzen dituela kalitate handiagoko lanpostuak eskuratzeko.

- «Badira zeinu-hizkuntzako interpreteak institutu eta unibertsitateetan, ikasleei laguntzeko eskolak ulertzen, baina haien ordu-baliagarritasuna oso mugatua da. Interprete-ordu gehiago behar dira, gorrek eskubide berberak izan ditzaten hezkuntza eskuratzeko garaian, entzuten duten pertsonak ikasten duten berbera ikasi ahal izan dezaten. Hezkuntza hobek kalitate handiagoko lanpostuak eskuratzeko ateak irekitzen ditu».

Halaber, **defizitak ageri dira teknologia berrien esparruan**; nahiz eta irisgarritasuna hobetzeko potentzial handiko jarduera-esparru izan litezkeen; aniztasun funtzionala duten pertsonak isolatu ere egin ditzakete, ez baldin badira modu egokian garatzen. Alde horretatik, beharrezkoa da irisgarritasun unibertsalaren

printzipioa kontuan izatea aplikazio berriak, programa, webgune eta halakoak diseinatzeko garaian, modu horretan, irisgarriak izango baitira guztientzat. Esate baterako, kritikatu da Arabako Justizia Administrazioaren webgunean plataforma digital bat ipini dutela berriki, eta ez dela irisgarria itsuentzat.

- «Defizitak teknologia berrien esparruan, ez dira erabiltzen irisgarritasun handiagoa ahalbidetzeko alderdi askotan».
- «Teknologia berriak ezin litezke traba izan irisgarritasunerako, ez da onartzekoa jende asko kanpoan geratzea informatizazioaren ondorioz. Teknologia berriek lagungarri izan beharko lukete inklusioa eta irisgarritasuna lortzeko».
- «Zerbitzuen digitalizazioa modu profesionalagoan egin beharko litzateke, irisgarritasun-printzipioak errespetatuz eta ordeko aukerak eskainiz zailtasunak dituzten edo teknologia berriak eskura ez dituzten pertsonen».
- «Egia da batzuetan IKTek laguntzen dutela, baina beste kasu batzuetan traba bilakatzen dira. Esate baterako, Araban plataforma digital berri bat ipini dute administrazio judizialean, abokatuek salaketak bidaltzeko, eta ez da irisgarria itsuentzat. Arazoa zera da, halako erremintak diseinatzen eta fabrikatzen dituzten profesionalak ez dutela inolako harremanik irisgarritasunarekin».
- «Webgune eta aplikazio ugari daude irisgarriak ez direnak; esate baterako, Osakidetzan hitzordua hartzeko aplikazioa, edo pazientearen informazioa jasotzen duten orriak».

Kultura-ondarea da kontsideratu beharreko beste lan-eremu bat. Desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzan dituzten elkarteetako batzuek nabarmentzen dute

oraindik ere lan handia dagoela egiteko «guztientzako ondarearen» kontzeptuarekin loturik, kultura-ondarea ere irigarria izan dadin.

— Gaur egun, ondare babestua/historikoa lehenesten da irisgarritasunaren gainetik, eta ondare asko dago irigarria ez dena. Oraindik ere txertatzeko dago irisgarritasun kontzeptua ondarean ('guztientzako ondarea')».

Zailtasunak irisgarritasun unibertsalerantz aurrera egiteko

19. taula

Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia diseinatzeko egungo egoerari buruzko baieztapenak

Adostasun-maila (%)	Batere ados ez	Ez oso ados	Nahiko ados	Erabat ados	Ez daki/ez du erantzuten	Batez besteko adostasuna (0-10 indizea)
Informazio sakabanatua eta eguneratu gabea irisgarritasun unibertsalari buruz	% 0,0	% 17,9	% 51,3	% 23,1	% 7,7	% 6,81
Jakintza falta eta kontzientziario sozial apala irisgarritasunaren alorrean.	% 2,6	% 28,2	% 35,9	% 33,3	% 0,0	% 6,63
Gabeziak prestakuntzaren arloan	% 2,6	% 20,5	% 41,0	% 33,3	% 2,6	% 6,89
Inplikaziorik eta konpromisorik ez erakunde publikoen aldetik	% 10,3	% 30,8	% 41,0	% 17,9	% 0,0	% 5,52

Iturria: Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia diseinatzeko inkesta, 2019, ISEK.

Informazio sakabanatua eta eguneratu gabea irisgarritasun unibertsalari buruz

Elkarrizketatutako pertsonen eta irisgarritasunaren alorrean erabakigarriak diren erakundeek adierazi dute Euskadiko irisgarritasunaren egoerari buruzko informazioa lausoa dela eta ez dagoela eguneratuta.

Heterogeneotasuna da Euskadiko irisgarritasun-egoerari buruzko iturri dokumentalen ezaugarria. Irisgarritasunaren gaineko informazioa oso sakabanaturik dago iturri batzuen eta besteen artean, eta ez da osoa. Iturri horietako bakoitzak informazio partziala ematen du adierazle jakin batzuei buruz, toki-edo lurralde-esparruetarako sektore zehatz batzuen gainean. Horretaz gainera, kasu askotan informazioa zaharkiturik dago; hori dela eta, komenigarria litzateke azterketa berriak egiten jarraitzea.

Zaila da egoera zenbatestea, analisi asko pertzepzioetan oinarrituta baitaude. Kasu askotan, adierazten da badela **jakintza «informal» bat** irisgarritasunari buruz; hau da, ez dago datu


objektiborik. Hala, Eusko Jaurlaritzako hainbat sailek aitortzen dute ez dutela barruan informazio eguneraturik beren eraikinen egoeraz.

Beste erronka garrantzitsu bat irizpide desberdinak aplikatzea da eraikinen, inguruneen eta gainerakoen irisgarritasuna ebaluatzeko garaian, eta horrek zaildu egiten du diagnostiko konparagarriak egitea (ikusi 28. Grafikoa).

Udalak izan litezke informazio-iturri nagusietako bat: dela hiri inguruneen eta eraikin zein zerbitzu publikoen egoerari dagokionez, dela esparru pribatuarekin lotuta, erregistro ugari izaten baitituzte laguntzak, lizentziak eta tankerakoak egiteko eskaeren bidez jasota. Hau da, udalek izaten dute irekitzeko lizentziak, obrak egitekoak eta halakoak emateko ardura merkataritza- eta ostalaritza-lokaletarako, adibidez, eta informazio-iturri oso ahaltsua da dokumentazio hori guztia.

28. grafikoa

Zailtasunak irisgarritasun unibertsalerantz aurrera egiteko: Informazio sakabanatua eta eguneratu gabea.



Jakintza falta eta kontzientziazio sozial apala irisgarritasunaren alorrean

Irisgarritasunari buruzko sentsibilizazio-, informazio eta prestakuntza falta nabari da. Irisgarritasun unibertsalaren alorrean inplikaturako profesionalek eta erakundeek adierazten dute ezagutza falta dagoela gai horri buruz, eta, aldi berean, kontzientziazioa apala dela, oro har, herritarren artean.

Orobat, pentsa daiteke irisgarritasuna ez dela planteatzen oraindik lehentasunezko alderdi gisa, eta ez dela

ulertzen auzi zeharkako gisa. Praktikan, «**irisgarritasun puntualean» egiten da lan**, eta ez da aplikatzen egiaz «irisgarritasun unibertsala». Era berean, garrantzitsua da irisgarritasun unibertsalaren printzipioa presente egotea edozer produktu, eraikin edo zerbitzuren diseinua egiten den unetik. Ideia horixe da, hain zuzen ere, **guztientzako diseinua**; kontzeptu hori esparru guztietan aplikatu beharko litzateke.

- «Jendeak pentsatzen du irisgarritasuna gutxi batzuentzat dela, eta ez dira jabetzen guztientzako dela. Bestalde, gutxienez hizkuntza ofizialetan eskatu beharreko zerbaite da (beste hizkuntzak albo batera utzi gabe)».
- «Nazio Batuen Konbentzioaren arabera, guztientzako eskubidea da irisgarritasun unibertsala, eta, horrenbestez, gizarte osoa inplikatu behar da».
- «Guztientzako diseinua gauza guztietan eta hasieratik aplikatu behar da».


Irisgarritasunaren kontzeptua, eta ez da kontsideratzen ikusmenarekin edo entzumenarekin lotutako irisgarritasuna, ezta irisgarritasun kognitiboa ere. Hori dela eta, bide luzeagoa egin da irisgarritasun fisikoaren esparruan gainerakoetan baino. Irisgarritasunaren alorrean izan diren hobekuntzek eta aurrerapenek pentsarazten dute desgaitasun fisikoa dela lehentasuna; aldiz, gorren eta

itsuen elkarteetako kideek kritikatzten dute inguruneak, oro har, gutxiago egokituta daudela beren beharrian espezifikotara. Hori guztia dela eta, arreta berezia ipintzen da honako kontzeptu hau indartzearen inguruan: irisgarritasun unibertsalaren kontzeptuak irisgarritasun fisikoa, sentsoriala eta kognitiboa bildu behar ditu (ikusi 29. Grafikoa).

- «Ezinbestekoa da ikuspegi globala izatea, esaterako, honako hauek bilduko dituenak: desgaitasun mentala duten pertsonak, ikusmen eta entzumen murriztua dutenak, desgaitasun kognitiboak dituztenak... Orain arte, desgaitasun fisikoak gailendu dira beti».
- «Hezkuntza Sailak badu azpiegitura-plan bat, eta haren barneko lan-ildo bat irisgarritasuna da, hain justu. Plan horretan, oztopo arkitektonikoak desagerrarazteko ekintzak planifikatzen dira batez ere (igogailuak instalatzea, arrapalak egitea eta abar)».

29. grafikoa

Zailtasunak irisgarritasun unibertsalerantz aurrera egiteko: Jakintza falta eta kontzientziario sozial apala irisgarritasunaren alorrean.



Iturria: Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia diseinatzeko inkesta, 2019, ISEK.

- «Beharrezkoa da irisgarritasuna kontzeptu zabalago eta integratzaileago gisa ulertzea; askotariko beharizan ugari daude, eta ez daude guztiak aurreikusita legean/araudian».
- «Mugikortasun murriztua duten pertsonen esparrutik kanpora, ezjakintasun orokor handia dago».
- «Zentro medikoetan, txandak edo hitzorduaren zenbakia pantailan agertzen dira, baina ez da entzuten edo ez dute ozen adierazten; hori dela eta, itsuek ezin dute informazio hori eskuratu».
- «Semaforo guztiek soinua izan beharko lukete, eta ez hiri-erdigunean edo kale nagusietan daudenek bakarrik».
- «Bilboko txartel-makinak ez dira irisgarriak itsuentzat, baina garaiera egokian daude desgaitasun fisikoak dituzten pertsonentzat, gurpil-aulkian iristen direnentzat».
- «Egokitzapen-maila eskasa dago itsuentzat eta gorrentzat».
- «Ez dago bitartekorik gorrek euskara ikasteko, hala nahi baldin badute».
- «Asteburuetan ez dago interpreterik. Zeinu-hizkuntzako interpreteak behar dira eguneko 24 orduetan larrialdi-kasuetarako».
- «Gorrentzako azpigituluak falta dira zineman, telebistan...».
- «Beharrezkoa da geltoki guztiek egokitzapen bisualak edukitzea, eta ez entzunezko abisuak bakarrik».

Iritzi desberdinak erakunde publikoen inplikazio- eta konpromiso-mailaren gainean


Gako-eragileen artean, kontsultatu da beren ustez zer inplikazio- eta konpromiso-maila ote duten erakunde publikoek irisgarritasunaren esparruan. Hainbat eratako inpresioak jaso dira, eta aldatu egiten da inplikazio horri buruzko pertzepzioa, erakundeen eta inguru

geografikoen arabera. **Erakunde publikoen inplikazioa balioesteko garaian, erakunde sozialak kritikoago ageri dira** eragile publikoak berak baino, baina, oro har, guztiek diote beharrezkoa dela konpromiso hori indartzea eta sustatzea.

- «Orain 20 urte, Irisgarritasun Legea onartzean, foru-aldundiek, udalek eta tankerako hainbat erakunde bilerak egin zituzten irisgarritasunari buruz, baina azkenean guztia asmo hutsetan geratu zen eta ez zioten gaiari heldu».
- «Beharrezkoa da espazio publikoak egokitzen jarraitzea».

30. grafikoa

Zailtasunak irisgarritasun unibertsalerantz aurrera egiteko: Inplikaziorik eta konpromisorik ez erakunde publikoen aldetik



Iturria: Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia diseinatzeko inkesta, 2019, ISEK.

84 Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia

Erakundeen artean, **udalek** irisgarritasun unibertsalaren araudia betetzeko duten egiteko garrantzitsua nabarmentzen da. Hori hala, aipatzen da ezinbestekoa dela irisgarritasuna egokitzea espazio pribatuetan

(irisgarritasun-jardueretako laguntzak, lurzoruak lagatzea kanpo-igogailuak instalatzeko...), baina baita espazio publikoetan ere (hiri-espazioak egokitzea, hiriko altzariak gainbegiratzea, terrazak, itxiturak...).

- «Erakundeak sakabanaturik daude, eta lurraldeen artean desberdintasunak daude erakundeen interesari eta konpromisoari erreparatuta».
- «Beharrezkoa da udalek konpromisoa hartzea espazio publikoen irisgarritasuna bermatzeko eta espazio pribatuak egokitzen laguntzeko. Teknikariek bitartekoak eta prestakuntza behar dituzte araudia errazago eta egoera bakoitzera moldatuta aplikatzeko (gainera, malguagoa izan beharko luke)».
- «Udalen egitekoa beren hirigintza-jardueran (oztopoak dituzten espaloiak, adibidez)».
- «Garrantzitsua da bizitegi-esparruari bakarrik ez begiratzea; horrez gain, bide publikoa ere hartu behar da kontuan. Bistaratu beharrekoak dira toki-administrazioek bide publikoetan instalatzen uzten dituzten oztopo guztiak, hala nola terraza, itxitura, mahaitxoak eta gainerakoak. Izan ere, ez dute batere kontuan hartzen halakoak zaintzea eta erretiratzea, irisgarritasun-arauak betetzen ez dituztenean».
- «Ostalariek eta tabernekek kalean ipintzen dituzten mahaiak (terrazak) arazo garrantzitsua dira itsuentzat».
- «Orain patinete elektrikoek kontua ere sortu da. Espaloia inbaditzen duen guztia arriskua da itsu batentzat. Arazoa gaur egungoa da, eta legea oraindik ere ez dago prestatuta».

Azkenik, beste ideia garrantzitsu bat zera da, **instalaturako gailuen mantentze- eta konponketa-lanak**, edota egindako edozer hobekuntza. Hainbat elkartek oso modu positiboan balioesten dute hainbat

gailu txertatu izana hiri-ingurunean, zerbitzu publikoetan eta abarretan irisgarritasun unibertsala errazteko, baina kritikatzeko dute, batzuetan, gailu horiek ez dutela behar adina mantentze-lan izaten hondatzen direnean.

- «Autobus-pantailek ozen esaten dituzte geltokien izenak, baina eskuarki baxu eta gaizki entzuten dira, eta ez dira nahikoa gorra behar adina informatzeko. Haien mantentze-lanak ere eskasak dira, eta askotan, hondatzen direnean, ez dira konpontzen».

Inplikaturako eragile guztien arteko koordinazio- eta lankidetzaren premia, legea betetzen dela bermatzeko

Irisgarritasun unibertsalaren bidean aurrera egiteko, beharrezkotzat jotzen da **administrazioen arteko lankidetzaren** (Estatua, autonomia-erkidegoa, foru-erakundeak eta udalak), baita administrazio bereko sailen eta arloen artean ere. Esate baterako, Osakidetzaren kasuan erabakigarria da beste erakunde batzuekin koordinatzea (gizarte-zerbitzuak, udalak, garraioak...) irisgarritasunari erreparatu gero; izan

ere, ezinbestekoa da proiektu soziosanitario erkide bat garatzea, baita ibilbide irisgarri bat ere, pazienteak etxetik irten eta dagokion osasun-zentrorara irits dadin. Tankera berean, Euskal Trenbide Sarearen kasuan, funtsezkoa da udalekin batera koordinatuta jardutea, geltokietako irisgarritasuna bermatzeko. Udalen inplikazioa oso garrantzitsua da irisgarritasun-katea bermatzeko.

- «Koordinazio eta lankidetzaren falta Jaurlaritzako eta foru-aldundietako sailen artean, baita toki-erakundeen artean ere».
- «Lankidetzaren eta koordinazioaren bide efektiboak ezarri behar dira, zeharkakoak, eskumena eta/edo interesa duten administrazioen eta erakundeen artean».
- «Alfer-alferrik da ospitalea bera irisgarria izatea, ez baldin badira halakoak hara iristeko gainerako zerbitzu guztiak edo baliatu behar dituen bitartekoak (hiri-ingurunea, garraioa, gizarte-zerbitzuetako izapideak, udalak...)».
- «Tren-geltoki eta instalazioetarako, hiri-ingurunea erabakigarria da (eskuarki, udalaren ardura izaten dira inguruneak). Askotan, Euskal Trenbide Sareak akordioak egiten ditu udalekin irisgarritasunaren alorrean, ingurunea, geltokiak eta bide-azpiegiturak irisgarri egiteko».

Era berean, aipatzen da inplikaturako eragile guztien inplikazioa lortzeko beharra: **lankidetzaren bideak eta -mekanismoak ezarri behar dira inplikaturako erakunde publikoen eta erakunde sozialaren artean**. Hirugarren sektoreko elkarteek eskatzen dute kontuan izan behar dela beren iritzia araudiak, ekintza-planak eta halakoak onartzeko garaian.

Alde horretatik, kritikatu izan da elkarten eta erakunde publikoen arteko harreman eskasa. Hainbat elkarten

adierazi du irisgarritasuna ez dela lehentasunezko gaia administrazio publikoarentzat, eta, batzuetan, aurrerapenak modu erreaktiboan baino ez direla gertatzen; hau da, hamaika eztabaidaren ondoren edo helegiteak ipini ostean. Hori dela eta, iradokitzen da elkarten eta erakunde publikoen arteko harremanak ohikoagoa eta joriagoa beharko lukeela izan.

- «Hirugarren sektoreko elkarteen parte-hartzea bermatu behar da. Kontuan hartzekoa da eragindako komunitatearen iritzia eta esperientzia lanari ekin aurretik (planak eta ekintzak taxutu aurretik, eraiki edo diseinatu baino lehen...)».
- «Orain arte, eztabaiden eta helegiteen bidez mamitu da hirugarren sektorearen eta administrazio publikoaren arteko harremana. Administrazio publikoak eta hirugarren sektoreak elkarrekin jardun beharko lukete lanean, kolaborazio estuagoan. Kalitate handiagoa beharko litzateke elkarreragin horretan. Ez da nahikoa Irisgarritasunaren Euskal Kontseiluan urtean behin edo bitan elkar ikustea».

Bestalde, kontsultatutako hainbat erakundek adierazi duenez, faktore mugatzailea da irisgarritasun unibertsala **Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren eskumen izatea**, eta zaildu egiten du

ideia hori erakunde publiko guztietan eta gizarte osoan errotzea. Hori hala, iradokitzen dute eskumen hori Lehendakaritzaren esku ipinita errazago lortuko litzatekeela irisgarritasunaren zeharkakotasuna.

- «Komenigarria litzateke irisgarritasun unibertsala ez izatea Etxebizitza Sailaren eskumena bakarrik, ez egotea Etxebizitza Sailean bakarrik txertatuta. Lehendakaritzaren esku balego, benetan izango litzateke zeharkakoa, eta alde guztiak askoz gehiago inplikaturiko lirateke».

FiAzkenik, erakunde publikoek aipatzen dute garrantzitsua dela desgaitasuna duten pertsonen elkarteak eurak ere elkarrekin ados ipintzea eta

proposamenak koordinatuta egitea. Hau da, funtsezkoa da elkarteak dena delako eskaera egin aurretik elkarrekin ados ipintzea.

- «Bilboko metroan itsuentzako gailu bereziak instalatu behar baldin badira eta aplikazio mugikor pertsonal bat behar bada haiek erabiltzeko, funtsezkoa da itsuak ordezkatzen dituzten elkarte guztiak elkarrekin bat egitea aplikazio berbera erabiltzeko; hala, metroan instalatzen den gailua erabilgarria izango da guztientzat. Bateratu egin behar dira eskura ditugun teknologiak».

Araudia betetzeko zailtasunak

Elkarrizketan esku hartu duten eragile gehienek uste dute **egokia dela** Euskadin irisgarritasunaren alorrean indarrean den araudia. Dena dela, beharrezko ikusten dute araudi hori egokitzea **edo malgutzea**, aurrerapen teknologikoak txertatzeko edo araudien arteko aldeak konpontzeko. Kasu

batzuetan, azpimarratzen dute beharrezkoa izan litekeela araudia egokitzea egiazko beharrianak asetzeko; izan ere, batzuetan arauditik kanpo geratzen dira irisgarritasunean eragina duten alderdiak, edo ez zaie erantzunik ematen pertsonak izan ditzaketen premia berriei.

- «Beharrezkoa da araudia berrikustea, aurrerakuntza teknikoak eta teknologikoak biltzeko».
- «Eskatzen da egungo araudiak aldatzea/malgutzea enpresa eta erakundeetan, oztopo eta muga egiten baitute irisgarritasun unibertsalean aurrerapenak lortzeko. Araudi tekniko batzuk malgotu litezke (materialak eta abar), ingurune batzuk irisgarriago izan daitezten (igogailuak, semaforoak...)».
- «Indarrean den araudi autonomikoa eguneratzea eta xehetasunez geratzea (oro har eta xeheki osasun-instalazioetarako)».
- «Euskotrenen, nahiz eta araudia betetzen den, irisgarritasun-arazoak dituen erabiltzailea kexu izaten da askotan. Praktikan, beharrezkoa da araudia egokitzea pertsonen beharrianak egiaz asetzeko. Arauek ez dute guztia konpontzen. Faktore askok eragiten dute trenen erabateko irisgarritasunean, eta oso zailak izaten dira kontrolatzeko. Gainera, eskaera berriak sortzen dira».
- «Desberdintasunak eskakizunetan, Eraikingintzako Kode Teknikoari eta erabilera- eta irisgarritasun-segurtasuneko oinarriko dokumentuari dagokienez».
- «Lege bat sortu beharko litzateke, 70 urtetik gorako pertsonak edo desgaitasuna duten pertsonak bizi diren jabekideen erkidegoak behartzeko oztopo arkitektonikoak ezabatuz. Nahiz eta Jabetza Horizontalaren Legeak obrak beharrezkotzat jotzen dituen, ez da gauza bera gertatzen obra horien ordainketarekin; hala, beharrezkoa den gehiengoa eskuratu ezean, ados ez dauden jabekideek 12 kuota ohiko ordaindu behar dituzte, eta gainerakoa obra eskatzen dutenek. Obra beharrezkoa baldin bada, lege bat sortu beharko litzateke jabe GUZTIAK ordaintzera behartzeko».

Era berean, hautematen da beharrezkoa dela irisgarritasuna hobetzeko **babes ekonomikoa indartzea**. Elkarrizketan esku hartu duten erakundeek berresten dute zailtasunak dituztela irisgarritasuna hobetzeko jarduerak egiteko, eta, batez ere, etxebizitzetan eta merkataritzan egindakoak nabarmentzen dituzte. Adibide moduan, aipatu behar da itxura batean merkataritza sentsibilizatzen ari dela irisgarritasunarekin, eta ahalegin handiak egiten

direla sektorea egokitzeko (dela araudiak hala eskatzen duela, dela beren borondatez; izan liteke esparru horretan kontzientziaturik daudelako, edo bezero-kopuru handiagoa erakartzeko). Hala eta guztiz ere, baliteke irisgarritasun-eskakizunetara egokitzeak ahalegin ekonomiko handia eskatzea, eta kasu askotan lortu ezin izatea, bereziki merkataritza-establezimendu txikien kasuan edo lokalik zaharrenean.

- «Laguntza ekonomikoak falta dira, jabekideen erkidegoetan obrak egiteko».
- «Aholkularitza eta laguntza espezifikoaren falta, jabekideen erkidegoentzat».
- «Laguntzak eskuratzeko erraztasunak ematea jabekideen erkidegoetako sarbideak konpontzeko eta laguntza horiek proportzionalak izatea erkidegoak egin behar duen inbertsioaren arabera».
- «Finantzaketa-soluzioak edo -ereduak izatea jabe txikiek erraztasunak izan ditzaten (erkidegoak edo negozioak) soluzioak ekonomikoki bideragarria den modu batean gauzatu ahal izateko».
- «Informazioa zaila da lortzen, eta eskakizun ugari ipintzen dira laguntzak eta dirulaguntzak lortzeko».
- «Dirulaguntzak falta dira kaleko merkataritza-establezimenduak Irisgarritasun Legea egokitzeko».

Laguntza ekonomikoaz gainera, agerian geratzen da **informazio argi eta bakuna** eman behar dela dagoeneko badauden laguntzei dagokionez, eta jakiteko zer urrats edo zer izapide egin behar diren eskatutako jarduketak gauzatzeko aldera (kudeaketak eta izapideak egiteko aholkularitza).

Bestetik, elkarrizketan esku hartu hartutako hainbat eragilek nabarmendu dute **arazoak daudela eraikin**

publikoen antzintasunarekin lotuta. Esate baterako, osasungintzaren zein hezkuntzaren aldetik, adierazten da eraikin ugari kudeatzen direla, eta nabarmentzen dute zati handi bat eraikin zaharrak direla eta egundoko lana dela eraikin horietan irisgarritasun-eskakizun guztiak betetzea, bai kudeaketari eta plangintzari dagokionez, bai aurrekontu publikoari dagokionez. Beste horrenbeste gertatzen da azpiegitura zaharrenekin (esaterako, garraioaren kasuan).


Gabeziak prestakuntzaren arloan

Oro har herritarren artean eta bereziki sektore profesionalean jakintza eta sentsibilizazio falta izatearen arrazoi gisa, prestakuntzaren esparruan hautemandako gabeziak aipatuko genituzke. Erakunde askok (bereziki hirugarren sektorekoak, nahiz eta beste eragile publiko eta pribatu batzuetakoak ere badiren) adierazten dute gabeziak daudela esparru horretan eta zuzendu egin behar direla.

Elkarrizketetan, hirugarren sektoreko hainbat erakundek kritikatu dutenez, **profesional asko ez daude behar bezala prestatuta irisgarritasunaren alorrean**, eta horrek eragina du desgaitasuna duten pertsonen beharrezan edo arazoetan, ez baitituzte estaltzen haien oinarrizko eskubideak.

31. grafikoa

Zailtasunak irisgarritasun unibertsalerantz aurrera egiteko: Gabeziak prestakuntzaren arloan



Iturria: Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia diseinatzeko inkesta, 2019, ISEK.

- «Beharrezkoa da prestakuntza eskaintzea administrazio publikoan. Prestakuntza falta da, oro har. Esate baterako, jendaurreko arretaz arduratzen den pertsona, autobus-gidaria eta abar. Pertsona horiek jakin behar dute nola tratatu desgaitasuna duten pertsonak».
- «Batzuetan, ez da betetzen itsuentzako Lurreko Botoien Legea oinezkoen pasabideetan: botoi gehiegi ipintzen dira, eta, hortaz, alferrik da. Hori guztia obrak egiten dituzten pertsonaren ezjakintasunaren ondorio da: ez dakite zertan ari diren».
- «Jendaurreko arretan diharduten guztiek jakin beharko lukete nola artatu itsu bat».
- «Itsuen gida-txakurrek eskubidea dute toki guztietan sartzeko: taxietan, dendetan, hegazkinetan —ez maletategian—, jatetxeetan... Baina batzuetan ez diete sartzzen uzten. Profesional batzuek ez dituzte ezagutzen eskubide horiek».
- «Jendeak, oro har, oso gutxi daki zer-nolako oztopoak eta mugak izaten dituzten entzumen-degaitasuna duten pertsonak. Kontzientziazio eta informazio falta dago»
- «Gehiago sakondu behar da irisgarritasunaren alorrean, gorren kolektiboari dagokionez».

Jarduteko neurriak identifikatzea

Ondoren, elkarrizketatutako erakundeek eta online galdeketa parte hartu dutenek planteatutako hainbat

jarduketa-neurri deskribatzen dira, aurrez agertu diren zailtasunak gainditzen joateko.

Informazioa hobetzeko neurriak

Informazioa hobetzeko, planteatutako proposamenetako bat da irisgarritasunari buruz eskura dagoen informazio guztia zentralizatzea, irisgarritasun-behatoki baten bidez. Irisgarritasunaren Euskal Kontseilua ardura liteke irisgarritasunaren alorreko informazioa biltzeaz eta zabaltzeaz.

Bestalde, planteatzen da bitarteko irisgarrien gaineko erremintak garatzeko erraztasunak ematea, teknologia berriek eskaintzen dituzten abantailak baliatuta. Bi kasuetan, inkestari erantzun dioten pertsonen ia erdiek uste dute bi proposamenak «oso interesgarriak» direla.

20. taula


Informazioa hobetzerara bideratutako ekintzak martxan ipintzeak sortzen duen interes-maila

Adostasun-maila (%)	Ez da interesgarria	Interesgarri samarra	Interesgarria	Oso interesgarria	Ez daki/ez du erantzuten	Batez besteko adostasuna (0-10 indizea)
Irisgarritasunari buruzko informazio guztia irisgarritasun-behatoki baten bidez zentralizatzea	% 0,0	% 11,1	% 33,3	% 50,0	% 5,6	% 8,01
Bitarteko irisgarri buruzko erreminten garapena erraztea	% 0,0	% 13,9	% 27,8	% 50,0	% 8,3	% 7,95

Iturria: Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia diseinatzeko inkesta, 2019, ISEK.

32. grafikoa

Informazioa hobetzerara zuzendutako hainbat ekintza martxan ipintzearekin dagoen adostasuna, inkesta egin zaion eragile bakoitzeko



Iturria: Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia diseinatzeko inkesta, 2019, ISEK.

Eusko Jaurlaritzako hainbat sailek onartzen dute ez daukatela antolatuta eta eguneratuta irisgarritasun-informazioa beren eskumenekoak diren eraikinen alorrean, eta kontziente dira beharrezkoa dela informazioa hobeto kudeatzea, zentralizatzea eta eguneratuta edukitzea.

Era berean, eskura dagoen informazioa antolatzeaz eta zentralizatzeaz gainera, azpimarratzen da beharrezkoa dela

ikertzen jarraitzea Euskadiko irisgarritasun unibertsalaren egoerari buruz. Planteatzen da beharrezkoa dela **azterlan gehiago egitea** EAeko irisgarritasunaren egoeraren gainean, hainbat esparru aztertuz eta adituen, administrazio publikoen eta elkarteen (erabiltzaileak) iritzia kontuan izanik. Horretaz gainera, mesedegarria litzateke, sentsibilizaziorako, Euskadiko irisgarritasunaren egoerari buruzko analisi eta azterlan gehiago egitea.

- «Beharrezkoa da analisi eta azterlan gehiago egitea irisgarritasunari buruz. Komeni da horri buruz lan eta hitz egitea, kontzientzia handiagoa pizteko».
- «Egoera aztertzea eta zehaztea hainbat esparrutan. Txostenak egitea».
- «Puntu beltzen mapa, eta aplikazioak garatzea garraio publikoa erabiltzeko, aldaketa-aukerak ere barnean hartuz».
- «Egungo egoeraren gaineko laburpen-fitxak eta halakoak prestatzea esparruz esparru, eta haietako bakoitzaren arduradunari helaraztea».
- «Eraikin publiko irisgarriari buruzko informazioa, eta eraikin pribatu irisgarrien eta ez-irisgarrien estatistika».
- «Udaletan diren planen analisisia, ikusteko zein betearazi dituzten egiaz».
- «Txostenak egitea adituen, administrazioaren eta erabiltzaileen (edo elkarteen) parte-hartzearekin, diagnostiko bat egiteko eta hobekuntzak proposatzeko».
- «Desgaitasuna duten pertsonen elkarteei galdetzea zein diren puntu beltzak. Haiak badakite zein diren».
- «Erakunde guztiak hartu behar dira kontuan, hirugarren sektorea beti barne, hark baitu esperientzia».

Irisgarritasunaren alorreko berrikuntza eta ikerketa sustatzeko neurriak

Beste jarduketa-ildo bat ikerkuntza, berrikuntza eta kalitatea maila guztietan sustatzea da, eta desgaitasuna duten pertsonak kontsideratuta. Horretarako, planteatzen da **babes ekonomikoa ematea ikerketari**, hainbat alorretako irisgarritasuna hobetzeko proiektuetarako (fisikoa eta kognitiboa,

ikusmenarekin eta entzumenarekin lotua), eta alor horretako I+G bultzatzea. Era berean, aipatzen da Euskadiko Berrikuntza eta Teknologia Estrategiak loturik egon behar duela irisgarritasunarekin. Halaber, iradokitzen du elkarrekin lan egin lezaketela bide horretan sektore pribatuak (enpresak) eta sektore publikoak.

Ikerkuntza, berrikuntza eta hezkuntza sustatzea

- «Informazio oso gutxi dago irisgarritasunari buruz, eta ikerketa gutxi. Beharrezkoa da ikerketa sustatzea unibertsitateetan eta berrikuntza bultzatzea (I+G) irisgarritasunaren esparruan».
- «Ikerkuntzako laguntzak ematea entzumen- eta ikusmen-irisgarritasuna, irisgarritasun kognitiboa eta abar hobetzeko proiektuei».
- «Ikerkuntzako laguntzak ematea, aniztasuna eta zahartzea ulertzeko. Ikerkuntzako laguntzak ematea, babes-teknologia berriak ikertzeko, eta produktuen eta zerbitzuen diseinu inklusiboa ikertzeko».
- «Laguntzak sustatzea, tokiko teknologia sortzeko, hasi oinarrizko ikerketatik eta merkaturatu arte».
- «Egungo bitarteko teknikoak ikertzea eta baliostea».
- «I+G eta proiektu sozialak esparru horietan».
- «Lankidetzeta publiko-pribatua sustatzen duten dei espezifikoak, soluzio, eredu eta egitura berrietan berritu ahal izateko, guztia ere pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eta, aldi berean, tokiko enpresen gaitasunak indartzeko».
- «Laguntzak ematea irisgarritasunarekin lotutako enpresa- edo ekintzailatza-proiektuei».
- «Beharrezkoa da berrikuntza eta irisgarritasuna lotzea. Euskadiko Berrikuntza eta Teknologia Estrategiak loturik egon behar du irisgarritasunarekin».
- «Erreminta eta material gehiago behar dira ikerketa eta berrikuntza sustatzeko. Proposatzen da berrikuntza finantzatzea, beka ematea... Desgaitasuna duten pertsonen alde ikertzeko».

Sentsibilizazioa, kontzientziazioa eta aintzatespena hobetzeko neurriak

Kontsultatutako erakundeen artean onarpen-maila handia duten beste hainbat neurriren artean, nabarmentzekoa da herritarrak kontzientziazioa informazio-, komunikazio- eta sentsibilizazio-

kanpainen bidez, eta egindako aurrerapenei balioa ematea. Halaber, iritzi positiboak jasotzen dira araudia betetzen duten enpresen eta erakundeen aintzatespena errazteko neurriak martxan ipintzeari buruz ere.

21. taula


Irigarritasunaren alorreko sentsibilizazioa eta kontzientziakzioa hobetzeko hainbat ekintza martxan jartzeko interes-maila.

Adostasun-maila (%)	Ez da interesgarria	Interesgarri samarra	Interesgarria	Oso interesgarria	Ez daki/ez du erantzuten	Batez besteko adostasuna (0-10 indizea)
Herritarrak kontzientziatzea informazio- eta sentsibilizazio-kanpainen bidez, eta balioa ematea egindako aurrerapenei	% 2,8	% 2,8	% 16,7	% 72,2	% 25,6	% 8,91
Araudia betetzen duten enpresen eta erakundeen aintzatespena erraztea	% 2,9	% 14,3	% 34,3	% 42,9	% 5,7	% 7,45

Iturria: Irigarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia diseinatzeko inkesta, 2019, ISEK.

33. grafikoa

Irigarritasunaren alorreko sentsibilizazioa eta kontzientziakzioa hobetzeko hainbat ekintza martxan ipintzeko akordioa, inkestan esku hartu duten eragile bakoitzeko



Iturria: Irigarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia diseinatzeko inkesta, 2019, ISEK.

Oro har, proposatzen da **informazio-kanpainak eta komunikazio- eta kontzientziakzio-planak martxan ipintzea**, baita **sentsibilizazio soziala lortzeko jardunaldiak** antolatzea ere. Halaber, iradokitzen da aukera dagoela **informazio-ekintzak egiteko elkargo profesionalekin** (finka-administratzaileak,

arkitektoak...), irigarritasunaren alorrean duten jakintza gizartera zabaltzeko. Bada alderdi garrantzitsu bat, zenbait elkarrizketatan aipatu dena: komenigarria da kontzientziakzio-kanpainak erakunde publikoekin eta sektoreko erakundeekin elkarlanean diseinatzea, azken horien jakintza eta esperientzia aprobetxatzeko.

- «Publizitate-kanpainak eta hitzaldiak».
- «Autobusetan informazioa ipintzea».
- «Informazio-kanpainak sare sozialetan».
- «Komunikazio- eta kontzientziatio-planak desgaitasuna duten pertsonetara tratu onari buruz, pertsonak direla eta gainerakoen desio berberak dituztela bistaratzeko».
- «Kontzientziatio-jardunaldi praktikoak antolatzea: herritarrek desgaitasuna duen pertsona baten azalean ipintzeko esperientzia bizitzeko».
- «Beharrezkoa da pertsona guztiak entzumen-gaitasun murriztuari buruz kontzientziatzea, 'desgaitasun ikusezina', gorra oharkabean igarotzen baitira».
- «Kontzientzia, sentsibilizazioa eta prestakuntza eskaini behar zaie dendariei, ostalariei, fruta-dendako langileei... jakin dezaten zein den araudia eta nola bete behar den».
- «Kontzientziatio-kanpaina horietarako, oso garrantzitsua da hirugarren sektorearekin eta administrazio publikoarekin lankidetzan jardutea, eta kanpainak elkarrekin gauzatzea».
- «Informazio-ekintzak egitea erkidegoekin jarduten duten elkargoekin, hala nola finka-administratzaile eta arkitektoekin».
- «Elkargoei informazioa helaraztea (finka-administratzaileak, arkitektoak, medikuak eta abar), haiek ondoren gizartean zabal dezaten».
- «Irisgarritasun Unibertsalaren Legearen manuak eta kontzeptua bera modu sinplifikatuan zabaltzea teknikarien, ingeniarien eta abarren artean, espazio publikoa, garraio-azpiegiturak eta halakoak proiektatzen edo diseinatzen dituzten aldetik».
- «Administrazioen helburuak ez du izan behar zehatzea, baizik eta kontzientziatzea».

Elkarrizketatutako hainbat eragilek nabarmendu duenez, garrantzitsua da liburuxka, hitzaldi eta gainerakoen edukia egokiro eraikitzea, kontuan hartuz

bakoitzaren xede jakina eta zein diren hartzaileak, ekintza horien erabilgarritasuna eta efikazia areagotze aldera.

- «Hitzaldietan, beharrezkoa da edukiak eta metodologia egokitzea hartzailearen arabera. Azalpen-gidak eta -liburuxkak sortzen direnean, ondo pentsatu behar da zertarako eta norentzat diren. Askotan, batere balio ez duten informazio-dokumentuak sortzen dira».

Araudia betetzen duten erakundeen aintzatespenarekin loturik, **programak sor litezke erakundeen, enpresen eta abarren irisgarritasun-konpromisoa ziurtatzeko**, esparru horretan egiten duten lana aitortzeko eta, hala, gai horren garrantziari buruzko kontzientzia pizteko. Bestalde, hainbat erakundek iradokitzen dute nola edo hala egin dakiekeela

aintzatespen ofizial bat irisgarritasun-teknikariei, jakintza hori dutela aitortzen duen **ziurtagiri edo titulu baten bidez**. Hain zuen ere, elkarrekin berek jakintza zabala dute irisgarritasunaren alorrean, esperientzia handia dutelako eta gertu-gertutik daukatelako harremana desgaitasuna duten pertsonekin.

- «Irisgarritasunarekin konpromisoa adierazteko programak».
- «Irisgarritasuna ziurtatzeko programak».
- «Era berean, eskatzen da nola edo hala aintzatespen bat egitea irisgarritasun-teknikariei; esaterako, jakintza eta esperientzia hori dutela hirugarrenen aurrean aitortuko dien titulu baten bidez».

Erakundeen inplikazioa indartzeko neurriak

Ondoren, hainbat neurri planteatzen dira, erakundeen eta administrazio publikoaren

inplikazioa indartu ahal izateko, irisgarritasun unibertsalaren esparruan.

22. taula


Erakundeen inplikazioa indartzeko hainbat ekintza martxan ipintzeak sortzen duen interes-maila

Adostasun-maila (%)	Ez da interesgarria	Interesgarri samarra	Interesgarria	Oso interesgarria	Ez daki/ez du erantzuten	Batez besteko adostasuna (0-10 indizea)
Irisgarritasun-arduradunak izendatzea erakunde publikoetan, eskura den informazioaren kudeaketa errazteko eta indarrean den araudia betetzen dela bermatzeko	% 5,7	% 8,6	% 20,0	% 60,0	% 5,7	% 8,06
Irisgarritasun-planak idaztea eta haien jarraipena egitea	% 0,0	% 17,2	% 22,9	% 51,4	% 8,6	% 7,89

Iturria: Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia diseinatzeko inkesta, 2019, ISEK.

34. grafikoa

Erakundearen inplikazioarekin lotutako hainbat ekintza martxan ipintzearekin den adostasuna, inkesta egin zaion eragile bakoitzeko



Iturria: Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia diseinatzeko inkesta, 2019, ISEK.

Erakunde publikoen inplikazioa errazteko iradokitako proposamenetako bat **irisgarritasun-arduradunak** izendatzea da, eskura den informazioa kudeatzea errazteko eta indarrean den araudia betetzen dela ziurtatzeko eta monitorizatzeko. Teknikari arduradun bat izendatuko litzateke, prebentzioko edo ingurumeneko teknikarien gisara. Irisgarritasun-arduradunaren garrantzia eta baliagarritasuna

indartzen direnaldi berean, nabarmentzen da guztioi eragiten digula irisgarritasun-baldintzak betetzeko erantzukizunak; hori dela eta, ez da arrazoizkoa irisgarritasunaz arduratzen den pertsona izatea gaia menderatzen eta lantzen duen bakarra eta gainerako langileek jaramonik ez egitea. Hau da, komeni da langile guztiak trebatuta eta kontzientziatuta egotea irisgarritasunaren alorrean.

- «Beharrezkoa da irisgarritasun-arduradunak izatea erakunde publikoetan, eskura den informazioa errazago kudeatzeko».
- «Ez da positiboa pertsona bakarra izatea irisgarritasunarekin lotutako guztiaren arduraduna. Langile guztiak trebatu beharko lirateke, nahiz eta jakintza edo ardura horren erantzukizun nagusia pertsona bakarraren gain ipini (esaterako, irisgarritasuneko arduradun bat udal bakoitzean). Bi gauzak uztartu behar dira».

Era berean, **irisgarritasun-planak idazteari eta haien jarraipena egiteari esker**, irisgarritasun unibertsala esparru guztietan lortzeko hartu beharreko neurriak zehaztu ahaliko dira. Alde horretatik, nabarmentzekoa da planen jarraipena ez etetea legealdi-aldaketekin; izan

ere, zeharkako gaia da, denboran jarraitutasuna duena. Era berean, agerian geratzen da hirugarren sektoreko elkarleen iritzia kontuan hartzeko interesa irisgarritasun-planak egiteko garaian, gaiari buruz duten ezagutza dela eta.

- «Irisgarritasun-planen eta bizi-kalitatea hobetzearekin lotutako beste edozer planaren jarraipena. Haien jarraitutasuna bermatzea legealdien artean eta maila guztietan, udaletan eta EAEn».
- «Irisgarritasun-planak elkarte espezifikoetan txertatzea».

Eragileen arteko koordinazioa hobetzeko neurriak

Kontsultatuta eragileek nabarmendu dute beharrezkoa dela **governantza hobetzea eta zeharkakotasun handiagoa lortzea** irisgarritasunaren esparruan, administrazio publikoak gehiago inplikatur. Alde horretatik, planteatzen da **Lehendakaritzak** hartzea bere gain irisgarritasun unibertsalaren auzia; hala, haren zeharkakotasunari

lagunduko zaio, baita eragile guztien inplikazioari ere. Irisgarritasunaren aldeko ekintzen zeharkakotasuna hobetzeko beste proposamen bat zera da, sail guztiak biltzen dituen **gobernu-plan** bat onartzea; hala, guztiak ere irizpide berberak izango dituzte eta helburu berberari jarraituko diote.

- «Zeharkakotasun handiagoa».
- «Hirugarren sektoreak gidatzen du neurri handi batean irisgarritasunaren mundua; hori oso ondo dago, baina areago zabaldu behar da, eta administrazio publikoa gehiago inplikatuko behar da».
- «Sail guztiak bilduko dituen gobernu-plan bat behar da, ahalegin guztiak bilduko dituena eta guztiak norabide berean bultzatuko dituena. Guztienezko ildoak markatuko dituen irizpide bakar bat behar da».
- «Zeharkakotasun handiagoa behar da».

Kritikatutako beste alderdi bat zera izan da, hirugarren sektorearen eta administrazio publikoaren arteko harremana, irisgarritasunaren alorrean. Alde horretatik, hirugarren sektoreko hainbat erakunde proposatu dute erakunde publikoek eta elkarteek estuago jardun beharko luketela lankidetzan, eta proiektu gehiago egin beharko lituzketela elkarrekin. Era berean, planteatzen da **lantalde iraunkorrak eta mistoak sortzeko aukera** (erakunde publikoekin eta hirugarren sektorekoekin), denboran harreman egonkorragoa edukitzeko. Garrantzitsutzat jotzen da organo operatiboa izatea, egiaz jarduten duena, eta ez kontsulta-organo huts

bat izatea. Horretaz gainera, azpimarratzen da tankera horretako erakundeek arinak izan behar dutela, ikuspegi praktikodunak, formalismo eta protokolo gehiegi izateak moteldu egin baititzake prozesuak.

Ildo horretan, Eusko Trenbide Sarearen proposamena nabarmendu behar da: ekintza-plan berrian, 2. ardatzean, proposatzen du komunikazio-foro bat garatzea elkarteekin, komunikazio-kanal ireki bat edukitzeko, eta, hala, beharrezkoen, iradokizunen, hobekuntzen eta halakoen gaineko informazioa emateko.

- «Administrazio publikoak eta hirugarren sektoreak elkarrekin jardun beharko lukete lanean, kolaborazio estuagoan. Kalitate handiagoa beharko litzateke elkarreragin horretan. Esate baterako, proiektu, protokolo eta halako gehiago sor litezke elkarrekin».
- «Lantalde iraunkorrak eta mistoak sor litezke, hirugarren sektoreak eta administrazio publikoak elkarrekin lan egiteko».
- «Irisgarritasun-organo edo -batzorde bat sor liteke udal bakoitzean, hainbat esparrutako kideak bilduko dituena, bai eta hirugarren sektorekoak ere. Bereziki udalik txikienetan, non bitarteko gutxiago izaten baitituzte, eskualdekoak izan litezke. Edo foru-aldundien arabera, agian, udalak ordezkaturik direla. Kontua da organoak operatiboa izan behar duela, eta ez kontsultakoa bakarrik (hori bai baitago jada). Organo efektiboa, baliozkoa eta erreala, egiaz jardungo duena».
- «Formalismo gehiegi izateak prozesuak motel ditzakete. Erabilgarritasuna eta efizientzia lehenetsi behar dira: xedea da soluzioak topatzea eta arintasunez lan egitea».

Lan mistoaren adibide bat Osakidetzan egiten dute: erakunde sanitario integratu (ESI)² bakoitzak partaidetza sozialeko kontseilu bat dauka. Partaidetza sozialeko kontseilu horiek partaidetza-foro gisa funtzionatzen dute,

eta elkarteek, hirugarren sektoreko erakundeek eta abarrek parte hartzen dute, Osakidetzari iradokizunak egiteko aukerarekin. Hartara, erraztu egiten da Osakidetza eta elkarte horien arteko harremana.

Legea betetzea indartzeko neurriak

Halaber, hainbat neurri planteatu dira, irisgarritasunaren alorreko araudia betetzen lagun lezaketena (ikus 23. Taula eta 24. Grafikoa).

Hasteko, nabarmendu behar da irisgarritasunaren alorreko araudia betetzeak **aurrekontu-zuzkidura areagotzea** eskatzen duela, neurri handi batean. Hala, kontsultatutako eragileek baieztatzen dute beharrezkoa dela babes ekonomikoa eskaintzea legea betetzen dela bermatzeko. Laguntza ekonomikoen eskari horietako asko etxebizitzaren irisgarritasunarekin daude loturik.

Araudia betetzen dela zaintzea da indartu beharreko beste jarduketa-ildo bat, eta inkestan esku hartu duten eragileek adierazi dute garrantzitsua dela bermatzea betetzen direla lege-eskakizunak. Alabaina, araudia betetzen aurrera egiteko, adierazten da ezinbestekoa dela, era berean, **ahaleginak egitea indarrean diren arau eta araudi teknikoak sinplifikatzeko**, irisgarritasuna egokitzeko jarduketak errazte aldera. Planteatzen da beharrezkoa dela araudia argia eta zehatza izatea, eta, ez-betetzen kasuan, zehapenak ipini behar direla, arrazoizko irizpideak baliatuz.

23. taula

Legea betetzea indartzeko hainbat ekintza martxan ipintzeak sortzen duen interes-maila


Adostasun-maila (%)	Ez da interesgarria	Interesgarri samarra	Interesgarria	Oso interesgarria	Ez daki/ez du erantzuten	Batez besteko adostasuna (0-10 indizea)
Legea betetzeko babes ekonomikoa	% 0,0	% 2,8	% 11,1	% 75,0	% 11,1	% 9,37
Araudia betetzen dela zaintzea	% 2,9	% 8,6	% 28,6	% 51,4	% 8,6	% 8,00

Iturria: Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia diseinatzeko inkesta, 2019, ISEK.

² ESI izeneko antolamendu-egitura Osakidetza Plan Estrategikoaren barruko arreta integralerako eredu bat da, eta lehen mailako arretaren eta arreta espezializatuaren arteko zatiketa asistentziala gainditu, eta demarkazio geografiko jakin baten ardura hartzen du. Eskuarki, ESI batek erreferentziako ospitale bat izaten du, baita inguruko lehen mailako arretako zentroak ere.

35. grafikoa

Legea betetzearekin lotutako hainbat ekintza martxan ipintzearekin dagoen adostasuna, inkesta egin zaion eragile bakoitzeko



Iturria: Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia diseinatzeko inkesta, 2019, ISEK.

- «Laguntza ekonomikoa, aholkularitza eta lankidetzak jabekideen erkidegoekin».
- «Etxebizitzak trukatzeko aukera desgaitasuna duten pertsonentzat edo adinekoentzat, baldin eta irisgarritasuna hobetzeko obrak egin ezin diren edo nahi ez duten erkidegoetan bizi badira».
- «Bainuontzia kendu eta dutxa ipintzeko laguntzak eta bestelako laguntza konkretuak ematea, kolektibo kalteberekin zuzenean aplikatzeko».
- «Ahalegin handiagoa laguntza publikoetan, eraikin zaharretan igogailua instalatzeko».
- «Jabekideen erkidegoei eta haietako kideei dirulaguntzak handitzea, autonomia-erkidegoko higiezinaren parkea egokitzeko».
- «Finantzaketa-programak sortzea erabiltzaileen premiak asetzeko, pertsonak erdigunean ipiniz».
- «Bigarren hezkuntzako eta goi-mailako hezkuntzako ikastetxeen irisgarritasuna hobetzeko planak eta laguntzak».
- «Espazio publikoak zein pribatuak partaidetza bidez hobetzeko programak, finantzaketa-moduak ere berrituz; hala, irisgarritasun-neurriak ez dira ikusiko ordainketa ekonomikoa eskatzen duten inposizio gisa, baizik eta espazio publikoak eta pribatuak hobetzeko aukera gisa».
- «Laguntzak eskuratzeko baldintzak arintzea eta itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak ugaritzea».
- «Ortopedien merkatua malgutzea, babes-produktuak merkataritza-establezimendu gehiagotan eskuratu ahal izatea eta eguneroko bizitzako ohiko produktuekin batera saltzea, arrazoizko prezioetan».

- «Legeria betetzea».
- «Legeak betearaztea teknikariei, profesionali eta esparru guztietan inplikaturiko gainerako eragileei, irisgarritasunaren zeharkakotasuna bermatuta».
- «Araudi gutxi behar da, baina garbia izan behar du. Eta bete egin behar da».
- «Araudia sinplifikatzea».
- «Araudia betetzea eraikingintzan eta urbanizazioan».
- «Irakurketa erraza, azpitoluak eta zeinu-hizkuntzako interpreteak».
- «Agian, bideragarritasun ekonomikoko irizpideak kendu behar dira arau-testuetatik (irisgarritasunak ezinbestekoa izan behar du)».

Ilido horretan, proposatzen da **eskuliburuak edo gidak** egitea, indarrean den araudia ulertzen eta, ondorioz, betetzen dela errazteko.

- «Aldez aurretik elkarrekin adostutako soluzio-gidak prestatzea, oinarrizko irizpideak azaltzeko».
- «Honako hauek bilduko dituen gida teknikoa: dokumentazio grafikoa, terminoen definizioa eta kasu praktikoak».
- «Interpretatzen errazagoak diren araudi eta gida bisualagoak, nolabaiteko malgutasun-maila dutenak, egoera bakoitzera egokitu ahal izateko, haien efikazia murriztu gabe».
- «Gida soil eta bisual bat egitea legearen edukiari buruz, eta esparru teknikoetan zabaltzea, edo aurkezpen-jardunaldien bidez».

Elkarrizketetan aipatu den beste auzi bat zera da, erakunde publikoek bermatu beharko luketela kontratu publikoetan adjudikaziodun irtendako enpresa guztiek betetzen dutela Irisgarritasun Legea. Ilido horretatik,

proposatzen da administrazio publikoak eskuratzen edo azpikontratatzeko dituen ondasun edo zerbitzu guztietarako irisgarritasun unibertsaleko irizpide edo eskakizun bat ezartzea.

- «Ez da ahaztu behar Jaurlearitzak askotan enpresen bidez gobernatzen duela, kontratu publikoen esleipenaren bidez. Garrantzitsua da aldarrikatzea enpresa adjudikaziodunek ondo betetzen dutela legea: obretan, garraioetan...»
- «Administrazio publikoak materialak edo zerbitzuak hornitzeko kontratuak egiten dituenean, komenigarria litzateke irisgarritasun-eskakizun bat sortzea».

Azkenik, interesgarria da adieraztea ez dela itundutako ikastetxeen jarraipena egiten; hau da, Hezkuntza Sailak ez du

berrikusten itunpeko ikastetxeen sarea osatzen duten zentroek betetzen ote dituzten ala ez irisgarritasun-baldintzak.

Prestakuntza hobetzeko neurriak

Hasteko, planteatzen da egokia ote den irisgarritasun unibertsalari eta aniztasun funtzionalari buruzko prestakuntza

txertatzea **hezkuntza-sisteman**, bai bigarren mailako hezkuntzan, bai lanbide-heziketan eta unibertsitatean.

- «Ikastetxeetan, lehen eta bigarren hezkuntzan eta lanbide-heziketan esku hartzea, ikasleak sentsibilizatzeko, kontziente izan daitezen desgaitasunak dituzten pertsonen mugei buruz. Ez da ahaztu behar haurrak direla etorkizuneko ingeniariak, arkitektoak, dendariak, ostalariak...»
- «Unitate didaktikoak txertatzea derrigorrezko hezkuntzan, goi-mailakoan ere edukiak bermatuz».
- «Irisgarritasunaren alorreko prestakuntza ikastetxeetan, lanbide-heziketako zentroetan eta, jakina, unibertsitateetan».
- «Hezkuntzari dagokionez, bildu litezke irisgarritasunarekin lotutako ikasgaiak ikasketetan, prestakuntza gehiago ematea irisgarritasunari buruz».
- «Ikastetxeetan, unibertsitateetan, prestakuntza eskaintzen duten erakundeetan eta abarretan prestakuntza eskaintzea...».
- «Aniztasunean eta tratu onean prestakuntza eskaintzea, lehen mailako hezkuntzan».
- «Lehen edo bigarren mailako hezkuntzan sar liteke zeinu-hizkuntzako ikasgai bat, Suedian egiten duten moduan».

Bestalde, nabarmentzekoa da **profesionalak** irisgarritasunaren alorrean gehiago trebatzearen garrantzia, hala nola teknikariak, irakasleak edo jendaurrean lan egiten duten langileak. Alde

horretatik, azpimarratzen da garrantzi handia dutela hainbat irakasgaiak, hala nola arkitekturak, ingeniariak, osasunaren alorreko ogibideak, sistema judizialekoak eta eraikuntzakoak.

- «Especializazioa eta prestakuntza arkitektoentzat, ingeniarietarako eta osasungintzako langileentzat».
- «Desgaitasuna duten pertsonak tratatzeko prestakuntza-modulu bat egon beharko litzateke Eusko Jaurlaritzan, eta, oro har, administrazio publikoan».
- «Pertsona bat egon beharko litzateke zerbitzu publikoetan, zeinu-hizkuntzan modu oinarrikoan komunikatzeko gauza dena, gorrei arreta eskaintzeko».
- «Laguntza-zerbitzua behar da ospitaleetan eta zentro handietan; esaterako, Aldundian. Pertsonak trebatu egin behar dira, zerbitzu hori eskain dezaten».
- «Diseinu inklusiboari eta irisgarritasunari buruzko ikasgaiak txertatzea ingeniarietarako guztietan, arkitekturan, web-diseinuan, diseinu grafikoan eta osasunarekin lotutako ikasketetan».
- «Prestakuntza espezifikoak inplikaturako langileentzat: finka-administratzaileak, gremioak...»

(.../...)

(.../...)

- «Irigarritasunaren gaineko kontzientziario handiagoa piztu beharko litzateke esparru judizialean. Pentsatu behar da nola inplikatu epaile gehiago, fiskal gehiago...».
- «Elkarteok inoiz edo behin eskaini diegu prestakuntza-ikastaroren bat profesionali».
- «Informazioa ematea erkidegoekin jarduten duten elkargoei, hala nola finka-administratzaileei eta arkitektoei».
- «Ikastaroak egitea, jakintza berriak emateko egungo profesionali».
- «Jardunaldi espezifiko bat antolatzea bide-ingeniarrien elkargoei, beste ogibide batzuetara ere zabaltzeko moduan, betiere espazio publikoaren diseinuarekin eta garraioaren azpiegiturekin loturik badaude».

Era berean, proposatzen da **etengabeko prestakuntza** eskaintzea profesionali irigarritasunari buruz; horrek ahalbidetuko luke irigarritasun unibertsalari

buruzko ezagutza eta kontzientziarioa hobetzea, eta, aldi berean, indarrean den legeria ezagutarazi ahal izango da (araudiaren norainokoa eta aplikazio-eremua).


24. taula

Prestakuntzarekin lotutako ekintzak martxan ipintzeak sortzen duen interes-maila

Adostasun-maila (%)	Ez da interesgarria	Interesgarri samarra	Interesgarria	Oso interesgarria	Ez daki/ez du erantzuten	Batez besteko adostasuna (0-10 indizea)
Irigarritasunari buruzko prestakuntza txertatzea hezkuntza-sisteman (bigarren hezkuntza, lanbide-heziketa eta unibertsitatea)	% 2,8	% 8,3	% 19,4	% 55,6	% 13,9	% 8,26
Profesionalen trebakuntza indartzea irigarritasunaren alorrean (teknikariak, irakasleak eta jendaurrean lan egiten duten pertsonak)	% 0,0	% 2,9	% 25,7	% 54,3	% 17,1	% 8,71

36. grafikoa

Prestakuntzarekin lotutako hainbat ekintza martxan ipintzearekin den adostasuna, inkesta egin zaion eragile bakoitzeko



Era berean, herritarrei oro har, enpresei, administrazioari eta politikariei zuzendutako ekintza-proposamenak ere jasotzen dira, jakintza eta

sentsibilizazio sozialaren maila hobetu ahal izateko, hala nola tokian tokiko informazio-hitzaldiak edo erraz irakurtzeko moduko informazio-liburuxkak.

- «Herritarrek erraz irakurtzeko moduko liburuxkak prestatzea, lege-eskakizunei eta eskura diren laguntzei buruzko informazioarekin».
- «Adibide praktikoen bidez prestakuntza eskaintzea, metatutako esperientziarekin».
- «Prestakuntza- eta kontzientziazio-jardunaldiak ematea bizilagunen elkarteetan edo gizarte-etxeetan».



C ERANSKINA

Araudi-testuingurua

Irisingarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren araudi-testuingurua oro har ikusi ahal izateko, azterlanaren esparru bakoitzerako dokumentuan aipatu ditugun iturri ofizialetako testu osoak eskuratzeko estekak ageri dira ondoren.

I. Nazio Batuen Erakundea

- Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioa, Nazio Batuen Erakundea.
(<https://www.un.org/disabilities/documents/convention/convoptprot-s.pdf>).
- Desgaitasuna duten pertsonen eskubideen Komitea.
(<https://www.ohchr.org/SP/HRBodies/CRPD/Pages/CRPDIndex.aspx>).
(<http://www.convenciondiscapacidad.es/observaciones/>).
- 26/2011 Legea, abuztuaren 1ekoa, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentziara moldatzeko arauak ezartzen dituena.
(<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=-BOE-A-2011-13241>).

- Desgaitasuna duten pertsonen eskubideen Komitea. Amaierako oharrak.

(https://tbinternet.ohchr.org/_layouts/15/treatybodyexternal/TBSearch.aspx?Lang=es&TreatyID=4&DocTypeID=5).

- Nazio Batuen Batzar Nagusia. Garapen Jasangarrirako 2030eko Agenda (garapen jasangarrirako helburuak).

(<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/2015/09/la-asamblea-general-adopta-la-agenda-2030-para-el-desarrollo-sostenible/>).

II. Europar Batasuna

- Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna

(https://www.europarl.europa.eu/charter/pdf/text_es.pdf).

III. Espainia

- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duena.
(<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2013-12632>).
- Doikuntza arazoizkoen konfigurazio juridikoa. Desgaitasuna duten Pertsonen ordezkarien Espainiako Komitea (CERMI).
(<http://www.coag.es/informacion/novedades/archivos/LA-CONFIGURACION-JURIDICA-DE-LOS-AJUSTES-RAZONABLES.pdf>).
- 1494/2007 Errege Dekretua, azaroaren 12koa, desgaitasuna duten pertsonen informazioaren gizarterekin eta gizarte-hedabideekin lotutako teknologiak, produktuak eta zerbitzuak eskuratzeko oinarriko baldintzei buruzko Erregelamendua onartzen duena.
(<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2007-19968>).
- 505/2007 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, irigarritasunerako oinarriko baldintzak onartzen dituena, desgaitasuna duten pertsonen, diskriminatuak izan gabe, urbanizatutako eremu publikoetara eta eraikinetara sartu, eta horiek erabili ahal izateko.
(<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2007-9607>).
- VIV/561/2010 Agindua, otsailaren 1ekoa, espazio publiko urbanizatuak irigarri egiteko eta erabili ahal izateko irigarritasuneko eta diskriminaziorik ezaren oinarriko baldintzen dokumentu teknikoa garatzen duena.
(<https://www.boe.es/boe/dias/2010/03/11/pdfs/BOE-A-2010-4057.pdf>).
- 314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, Eraikingintzako Kode Teknikoa onartzen duena.
(<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2006-5515>).
- 1544/2007 Errege Dekretua, azaroaren 23koa, ezinduek garraibideetan sartzeko eta erabiltzeko irigarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren baldintzak arautzen dituena.
(<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2007-20785>).
- 366/2007 Errege Dekretua, martxoaren 16koa, desgaitasuna duten pertsonen Estatuko Administrazio Orokorrarekiko harremanetan behar dituzten irigarritasun-baldintzak eta diskriminaziorik ezari lotutakoak ezartzen dituena.
(<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2007-6239>).
- 27/2007 Legea, urriaren 23koa, Espainiako keinu hizkuntza errekonozitu eta gorra, gor-itsuak eta entzumen urritasuna duten pertsonentzako komunikazio laguntzak jasotzen dituena.
(<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2007-18476>).
- 1112/2018 Errege Dekretua, irailaren 7koa, sektore publikoko webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen irigarritasunari buruzkoa.
(https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2018-12699).
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.
(<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2017-12902>).

IV. Euskadi

- 59/1981 Dekretua, martxoaren 23koa, hirigintza-oztopoak kentzeko araubideei buruzkoa.
(<https://www.legegunea.euskadi.eus//eli/es-pv/d/1981/03/23/59/dof/eus/html/x59-contfich/eu/>).
- 16/1983 Dekretua, abenduaren 19koa, etxegintzatikako oztopoak kentzeko araubideari buruzkoa.
(<https://www.legegunea.euskadi.eus//eli/es-pv/d/1983/12/19/291/dof/eus/html/x59-contfich/eu/>).
- 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, irisgarritasuna sustatzekoa.
(http://www.legegunea.euskadi.eus/x59-preview/eu/contenidos/ley/bopv199706324/eu_def/index.shtml).
- 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena.
(<https://www.legegunea.euskadi.eus//eli/es-pv/d/2000/04/11/68/dof/eus/html/x59-contfich/eu/>).
- 126/2001 Dekretua, uztailaren 10ekoa, Garraioan Irisgarritasun-baldintzei buruzko Arau Teknikoak onesten dituena.
(<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2001004201>).
- 6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa.
(<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2016002096>).

D ERANSKINA

Eusko Legebiltzarraren adierazpen instituzionala,
irigarritasuna sustatzeko legea onartu izanaren
20. urteurrena dela eta

Adierazpen instituzionala: «Euskadik bat egiten du gure herritarrek irisgarritasun unibertsalerako duten eskubidearekin»

1997ko abenduaren 4an, Eusko Legebiltzarrak aho batez onartu zuen Irisgarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legea, zeinak xedetzat baitzuen hiri-ingurunearen, gune publikoen, eraikinen, garraiobideen eta komunikabideen irisgarritasuna bermatzea, pertsona guztiek modu autonomoan erabili eta goza zitzaten zerbitzu horiek guztiak.

Lege hori euskal instituzio publikoen eta desgaitasunen bat duten pertsonak ordezkatzeko zituzten erakundeen arteko lankidetzaren emaitza izan zen, bai eta irisgarritasun-politiken arduradun diren eragile guztien lankidetzaren emaitza ere, eta funtsezko mugari bat izan zen, aukera eman baitzuen hirigintza- eta etxegintza-oztopoak ezabatzeko politikak gainditzeko, eta Euskadiri beste lege-esparru bat emateko, irisgarritasuna herritar guztien eskubide gisa bermatzera zuzendua.

Lege-arau horren ondorengo garapenari esker –bereziki, 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-

baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen, eta 126/2001 Dekretua, uztailaren 10ekoa, Garraioan Irisgarritasun Baldintzei buruzko Arau Teknikoak onesten dituen– , aurrerapausoak eman ziren pertsona guztientzako produktu, ondasun, ingurune eta zerbitzuak lortzeko bidean.

Era berean, Desgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmena aplikazio eta eraginkortasun osokoa da gure ordenamendu juridikoaren parte gisa 2008an berretsi zenetik, eta irisgarritasun unibertsala giza eskubideen eremuan kokatzen du eta baldintza moduan pertsona horiek 'modu independentean bizi daitezten eta bizitzako arlo guztietan bete-betean parte har dezaten' (9. art.).

Hala ere, 20 urte pasa eta gero, oraindik ere, pertsona askok Euskadin ez daukate bizitza politikoan, ekonomikoan, sozialean, hezkuntzakoan, lanekoan eta kulturakoan bete-betean eta berdintasunean parte hartzeko duten eskubidea, ez baitago irisgarritasun unibertsaleko baldintzarik

produktu, ondasun, ingurune eta zerbitzuetan, eta bazterketa eta desparekotasun sozialeko egoerak sortzen dira.

Hori dela eta, Eusko Legebiltzarrak honako adierazpen instituzional hau onartzen du, Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea onartzearen 20. urteurrena bete den honetan:

- 1) Eusko Legebiltzarrak guztiz bere egiten du irisgarritasun unibertsalaren balioa euskal herritar guztien oinarritzko eskubide gisa, pertsona guztien aukera-berdintasuna bermatzen laguntzen baitu, eta konpromisoa hartzen du bere legegintzan, bere jarduera osoan, bere zerbitzu eta ekimen guztietan txertatzeko eta exijitzeko, euskal gizartearen izaera inklusiboa sustatzeko xedez. Era berean, konpromisoa hartzen du administrazio publikoei, eragile publiko eta pribatuei eta euskal gizarte osoari adierazpen honetako printzipio eta balio guztiak helarazteko, gisa horretara irisgarritasun unibertsala sustatzera bideratutako politikak eta neurriak bultzatzen laguntzeko.
- 2) Eusko Legebiltzarrak dei egiten die instituzio publiko eta pribatuei, bai eta irisgarritasuna sustatzeko politiketan eta neurrietan parte hartzen duten eragile guztiei ere, bere gain har dezaten irisgarritasun unibertsala euskal gizartearen eskubide egituratzaile gisa eta gizarte inklusibo baten esparruan pertsona guztien aukera-berdintasuna bermatzeko funtsezko elementu gisa.
- 3) Eusko Legebiltzarrak dei egiten die instituzio publiko eta pribatuei, bai eta irisgarritasuna sustatzeko politiketan eta neurrietan parte hartzen duten eragile guztiei ere, bultzada kualitatibo bat eman diezaieten irisgarritasun unibertsala sustatzeko politikei, horretarako beharrezko diren baliabide ekonomikoak jartzea barne dela.
- 4) Eusko Legebiltzarrak dei egiten die instituzio publikoei irisgarritasun unibertsala sustatzeko estrategia bati ekiteko, eta bereziki egiten dio dei Eusko Jaurlaritzari ekimen horren gidaritza hartu eta bultzatu dezan. Estrategia horrek, egoera-diagnostiko batetik eta ikuspegi transbertsal batetik abiatuz, irisgarritasun unibertsalerako eskubidearen bermean aurrera egiteko beharrezko diren helburu eta neurriak ezarriko ditu, hirugarren sektore sozialeko erakundeekin lankidetzan, bereziki desgaitasunen bat duten pertsonak ordezkatzan dituzten erakundeekin.
- 5) Eusko Legebiltzarrak instituzio publikoei eskatzen die berma dezatela Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea, bai eta lege hori garatzeko arauak ere, guztiz eta modu eraginkorrean betetzen direla, eta egin dezatela ebaluazio eta eguneratze bat irisgarritasun unibertsalaren printzipioa zorrozki bermatzeko aurrera egitea ahalbidetzen duten alderdietan.
- 6) Eusko Legebiltzarrak instituzio publikoei eskatzen die hobetu dezatela irisgarritasunaren alorreko datuen eskuragarritasuna, orobat bultzatuz irisgarritasun unibertsala sustatzeko politiken eta neurrien diseinu eta jarraipen eraginkorra egiteko adierazleak eta informazio benetakoa eta eguneratua edukitzea ahalbidetuko duten ikerketa-eta ebaluazio-politikak

- 7) Eusko Legebiltzarrak instituzio publiko eta pribatuei eskatzen die berma dezatela desgaitasunen bat duten pertsonak osatzen duten hirugarren sektore sozialaren parte-hartzea, benetakoa eta eraginkorra, irisgarritasun unibertsala sustatzeko egiten diren ekintza publikoen politikak eta ildoak diseinatzean, betearaztean, jarraitzean eta ebaluatzean.
- 8) Eusko Legebiltzarrak eskatzen du bultzatzea, hezkuntzan, enpleguan, funtzio publikoan eta erantzukizun publikoko sistema guztietan, irisgarritasun unibertsalaren arloko konpetentziak eta ezagutzak eskuratzea eta garatzea, eta pertsona guztientzat horrelakoak diseinatzea, irisgarritasun unibertsala bultzatzen duten balioak transmititzen eta balio horiek praktikan jartzen laguntze aldera.
- 9) Eusko Legebiltzarrak berrikuntzaren eta ikerkuntzaren arloan eskumena duten instituzio publiko eta pribatuei eskatzen die, bai eta arlo teknologikoan eskumena dutenei ere, egin dezatela apustu bat pertsona guztientzako irisgarritasun unibertsala txertatzearen eta diseinatzearen alde, haien politikak, neurriak eta proiektuak diseinatu, betearazi, jarraitu eta ebaluatzeko funtsezko ardatz gisa.

2017ko azaroa



E ERANSKINA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

NIK, JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO JAUNAK, GOVERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURUA ETA EUSKO JAURLARITZAREN IDAZKARIAK

JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO, CONSEJERO DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO Y SECRETARIO DE GOBIERNO

EGIAZTATZEN DUT:

Eusko Jaurlaritzak, 2020ko otsailaren 4an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

ERABAKIA, IRISGARITASUN UNIBERTSALAREN EUSKAL ESTRATEGIA ONARTZEKO. (EXP. 2020/00042) (A/20200009)

Eusko Legebiltzarrak lege bat onartu zuen: 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, irisgarritasuna sustatzekoa. Lege horren xedea da hiri-ingurunearen, gune publikoen, eraikinen, garraibideen eta komunikazio-sistemen irisgarritasuna bermatzea, pertsona guztiek era autonomoan erabil eta balia ditzaten, eta, bereziki, mugikortasun murriztua, komunikatzeko zailtasunak edo beste edozein muga psikiko edo sentsorial (aldi baterakoa edo iraunkorra) dituzten pertsonak.

Legeak Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua sortu zuen, edukien garapena bultzatzeko parte hartzeko organo gisa. Organo horretan, ordezkaturik daude Eusko Jaurlaritzaren eta gainerako euskal administrazioak, desgaitasun funtzionalen bat duten pertsonak ordezkatzeko diuztzen elkartea,

CERTIFICO:

Que el Gobierno Vasco, en sesión celebrada el día 4 de febrero de 2020 adoptó, entre otros, el siguiente Acuerdo:

ACUERDO POR EL QUE SE APRUEBA LA ESTRATEGIA VASCA DE ACCESIBILIDAD UNIVERSAL. (EXP. 2020/00042) (A/20200009)

El Parlamento Vasco aprobó la Ley 20/1997, de 4 de diciembre, para la Promoción de la Accesibilidad cuyo objeto es garantizar la accesibilidad del entorno urbano, de los espacios públicos, de los edificios, de los medios de transporte y de los sistemas de comunicación para su uso y disfrute de forma autónoma por todas las personas y en particular por aquellas con movilidad reducida, dificultades de comunicación o cualquier otra limitación psíquica o sensorial, de carácter temporal o permanente.

La norma crea el Consejo Vasco para la promoción de la Accesibilidad, como órgano de participación para impulsar el desarrollo de sus contenidos, en el que están presentes el Gobierno Vasco, el resto de las Administraciones Vascas, las asociaciones que representan a las



Naharantzeko, J0D0Z-T1YY3-PM9J biltzean dokumentu hau onartu eta onartu gisa, ala ez jakin liteke egoitza elektronikoa honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T1YY3-PM9J en la sede electrónica <http://euskadi.eus/localizador>



kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak, sustatzaileen eta eraikitzaileen elkarteak eta elkargo profesionalak.

personas con alguna discapacidad funcional, organizaciones de personas consumidoras y usuarias, la asociación de promotores/as y constructores/as, y los colegios profesionales.

Irigarritasun unibertsala sustatzeko konpromisoa hartu du Euskadik, lehendakariak, Irigarritasuna Sustatzeko Legearen onarpenaren 20. urteurrena ospatzeko, Irigarritasunaren Euskal Kontseiluaren 2017ko abenduaren 4ko osoko bilkura berezian egindako adierazpenaren bidez:

En el Pleno extraordinario del Consejo Vasco para la promoción de la Accesibilidad conmemorativo del citado 20 aniversario, celebrado el 4 de diciembre de 2017, Euskadi adquiere el compromiso de impulsar la accesibilidad universal a través de la declaración del Lehendakari. En concreto, en la declaración realizada se recogen las siguientes afirmaciones:

«Ezinbestekoa da legealdi honetan gure erkidegoan irigarritasun unibertsaleko estrategia baten oinarriak ezartzea»

“Es preciso que en la presente legislatura establezcamos las bases de una Estrategia para la Accesibilidad Universal en nuestra Comunidad”

«Irigarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia modu zeharkakoan gauzatu behar da, hainbat diziplinatan eta sektoretan»

“La Estrategia Vasca para la Accesibilidad Universal debe desarrollarse de forma transversal, multidisciplinar y multisectorial”

«Irigarritasun-kontzeptu berri bat definitu behar dugu, era guztietako diskriminazioak saihesten lagunduko duena...»

“Debemos definir un nuevo concepto de accesibilidad que permita evitar todo tipo de discriminación”

«aukera apartekoa da Euskadi gizarte inklusibo eta bidezko bilakatzeko, gizarte modernoagoa eta hobea bihurtzeko»

“Se trata de una oportunidad para hacer de Euskadi una sociedad inclusiva y justa, una sociedad más moderna y mejor”

Aldi berean, 20. urteurrena dela eta, Eusko Legebiltzarrak «EUSKADIK BAT EGITEN DU GURE HERRITARREK IRISGARRITASUN UNIBERTSALERAKO DUTEN ESKUBIDEAREKIN» izeneko adierazpen instituzionala kaleratu zuen. Izan ere, «oraindik ere, pertsona askok Euskadin ez daukate bizitza politikoan, ekonomikoan, sozialean, hezkuntzakoan, lanekoan eta kulturakoan bete-betean eta berdintasunean parte hartzeko duten

A su vez, a raíz de este 20 aniversario, el Parlamento Vasco aprueba también una declaración institucional denominada “EUSKADI COMPROMETIDA CON EL DERECHO DE NUESTRA CIUDADANÍA A LA ACCESIBILIDAD UNIVERSAL”, ya que *“son todavía muchas las personas en Euskadi que no ven garantizado su derecho a participar plenamente y en condiciones de igualdad en la vida*



eskubidea, ez baitago irisgarritasun unibertsaleko baldintzarik produktu, ondasun, ingurune eta zerbitzuetan, eta bazterketa eta desparekotasun sozialeko egoerak sortzen dira».

Hori hala, erakunde-politiken jarduketak eta ikuspegia dira Euskal Autonomia Erkidegoko irisgarritasunaren bizkarrezurra. Politika horiek potentziala dute espazio unibertsalak eskuratzeko eta baliatzeko bidea gidatzeko. Espazio unibertsal horietan, berdintasun-baldintzetan parte hartu ahal izango dute pertsona guztiek, eta, horrela, bakoitzaren aniztasun funtzionalaren ondoriozko diskriminazio oro saihestuko da.

Irisgarritasunaren Euskal Kontseiluaren 2019ko abenduaren 11ko osoko bilkuran aho batez onartu zuen "Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia proposamena".

Estrategia hau prestatzeko hurrengo printzipio inspiratzaileak hartu dira kontuan: aukera-berdintasuna; bizimodu independentea; guztientzako diseinua; zeharkakotasuna; eragile guztien inplikazioa; gizarteratzea eta normalizazioa; eta elkarrizketa zibila.

Agiriak jasotzen duen helburua hurrengoa da: pertsona guztiek sarbide edo erabilera publikoko ingurune fisikoak, produktuak eta zerbitzuak eskuratzeko eskubidea egikaritu ahal izatea, modu aske eta ahalik eta autonomoenean, eta gure gizarteko esparru guztietara modu zeharkakoan iritsiz, diziplina eta sektore ugaritatik.

política, económica, social, educativa, laboral y cultural por la ausencia de condiciones de accesibilidad universal en los productos, bienes, entornos y servicios, generándose situaciones de exclusión y desigualdad social."

Así, las actuaciones y enfoque de las políticas institucionales se constituyen en eje vertebrador de la accesibilidad en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Estas políticas tienen el potencial de liderar un acceso y uso de los espacios universales, en los que todas las personas puedan participar en la sociedad en igualdad de condiciones, evitando cualquier discriminación por causa de la diversidad funcional de cada una.

El Pleno del Consejo Vasco para la promoción de la accesibilidad, en su sesión celebrada el 11 de diciembre de 2019, aprueba por unanimidad el documento "Propuesta de Estrategia vasca de Accesibilidad Universal".

La Estrategia se elabora teniendo en cuenta los principios inspiradores de igualdad de oportunidades; vida independiente; diseño para todas las personas; transversalidad; implicación de todos los agentes; inclusión social y normalización y diálogo civil.

El objeto del documento es conseguir que se haga efectivo el derecho de acceso de todas las personas a los entornos físicos, productos y servicios de acceso o uso público, de manera libre y lo más autónoma posible y alcanzando de forma transversal, multidisciplinar y multisectorial a cada uno de los ámbitos de nuestra sociedad.



Helburu nagusi hori sei helburu estrategikoren bidez mamituko da:

Dicho objetivo general se concretiza a través de seis objetivos estratégicos:

- Kontrola. Irigarritasun unibertsalaren arloan indarrean den legeria betetzen dela bermatzea.

- Control. Garantizar el cumplimiento de la normativa vigente en materia de accesibilidad universal.

- Sustapena. Irigarritasuna kudeaketa publikoan txertatzea, oinarrizko eta zeharkako elementu gisa.

- Fomento. Incorporar la accesibilidad como elemento básico y transversal en la gestión pública.

- Sentsibilizazioa. Gizarte osoaren sentsibilizazioa eta kontzientziaketa hobetzea.

- Sensibilización. Mejorar la sensibilización y la concienciación del conjunto de la sociedad.

- Prestakuntza. Irigarritasunaren arloko prestakuntza sustatzea.

- Formación. Impulsar la formación en materia de accesibilidad.

- Berrikuntza. Garapen teknologikoa sustatzea, eta ikerketa, berrikuntza eta kalitatea bultzatzea.

- Innovación. Fomentar el desarrollo tecnológico y promocionar la investigación, la innovación y la calidad.

- Gobernantza. Gobernantza-eredu berri bat sortzea strategiaren lidergoa hartzeko eta jakintza sortzeko.

- Gobernanza. Crear un nuevo modelo de gobernanza para liderar la estrategia y generar conocimiento.

Dokumentuak jasotzen du, halaber, zereginak eta jarduketak lau urteko ekintza-planen bidez egingo direla, eta plan horiek zehaztu eta zehaztuko dituztela ezarri beharreko jarduerak, denbora-tartean eta dagozkion baliabideekin, adierazitako helburuak betetzea erraztuz.

El documento contempla, asimismo, que las tareas y actuaciones se calendarizarán a través de Planes de Acción cuatrienales que vendrán a definir y concretar el conjunto de actuaciones a implantar, en el periodo temporal y con los recursos que correspondan, facilitando el cumplimiento de los objetivos señalados.

XI. Legegintzaldiko Gobernu Programak barne hartzen ditu datozen lau urteetarako, Euskadi 2020rako, Jaurlaritzak euskal gizartearekin hartutako konpromisoak. Giza Garapen Iraunkorrean aurrera egitea.

El Programa de Gobierno de la XI Legislatura incluye los compromisos adquiridos por el Gobierno con la sociedad vasca de cara a los próximos cuatro años, para la *Euskadi 2020. Avanzar en el Desarrollo Humano Sostenible*.

Dokumentuak 4 zutabeen artean "giza garapena, gizarteratzea, berdintasuna eta kalitatezko zerbitzu publikoak" jasotzen ditu. Herriaren 15 helburuen artean "integrazioerako eta berdintasunerako agenda soziala" jasotzen da. Azkenik, konpromisoen artean,

El documento recoge entre los 4 pilares "El desarrollo humano, la integración social, la igualdad y los servicios públicos de calidad". Entre los 15 objetivos de País se contempla la "Agenda social para la integración y la igualdad". Finalmente,



Etxebizitzaren Legean aitortutako etxebizitzarako eskubide subjektiboa garatzea (142. konpromisoa) eta eraikitako parkea birgaitzen laguntzea (144. konpromisoa) aipatzen dira.

Eusko Jaurlaritzak, 2018ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste: 2018-2020 aldirako Etxebizitzaren Gida Plana ezagutzera ematea eta Eusko Legebiltzarrari helaraztea. Agirian hurrengo jasotzen da: Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-parkearen ezaugarriak bere antzintasun handia eta horri lotutako arazoak eta irisgarritasun edo energia eraginkortasun eza direla.

2018-2020 aldirako Etxebizitzaren Gida Planaren Laugarren ardatzak birgaitzea jorratzen du etxebizitza-politikaren funtsezko elementu gisa, eta beste bultzada bat ematen dio jada abiatutako jarduera biziari. Horren barruan bereziki nabarmentzen ditu energia eraginkortasunaren eta irisgarritasunaren arloko helburuak, baita birgaitze integratua eta hiri-berroneratzea ere.

Ildo horretan, Gida Planaren laugarren ardatzak 7 jarduera-ildo eta 29 ekintza ditu. 4.1. ildoak etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko jarduketak pizgarrira bideratuta dago, eta ekintza bat aurreikusten du, batez ere irisgarritasuna bultzatzen duten jarduketak beste jarduketa batzuen aurrean bultzatzean datzana.

Bestalde, 4.2 ildoak irisgarritasun unibertsala bermatzeko jarduerak bultzatu eta positiboki diskriminatu nahi ditu, lehentasunezko esku-hartzearen beharrak identifikatuz eta jarduera horiek egitea errazteko informazioa eta laguntza eskainiz.

entre los compromisos se señala el desarrollo del derecho subjetivo a la vivienda reconocida en la Ley de vivienda (Compromiso 142) y el apoyo a la rehabilitación del parque edificado (Compromiso 144).

El Consejo de Gobierno, en la sesión celebrada el 10 de abril de 2018, acuerda la toma en conocimiento y la remisión al Parlamento Vasco del Plan Director de Vivienda 2018-2020. En el citado documento se indica que el parque de viviendas de la Comunidad Autónoma del País Vasco se caracteriza por su antigüedad y los problemas asociados, como la falta de accesibilidad o de eficiencia energética.

El cuarto Eje del Plan Director de Vivienda 2018-2020 se centra en la rehabilitación como elemento clave de la política de vivienda, dando nuevo impulso a la intensa actividad ya desplegada y haciendo énfasis en objetivos de eficiencia energética y accesibilidad, así como en la rehabilitación integrada y la regeneración urbana.

En este sentido, el eje cuatro del Plan Director se estructura en 7 líneas de actuación y 29 acciones. La línea 4.1. se orienta al incentivo de las actuaciones de rehabilitación de viviendas y edificios y prevé una acción que consiste en favorecer principalmente las actuaciones que favorezcan la accesibilidad frente a otras actuaciones.

Por su parte, la línea 4.2 trata de impulsar y discriminar positivamente las actuaciones tendentes a garantizar la accesibilidad universal, identificando las necesidades de intervención prioritaria y ofreciendo información y apoyo para facilitar llevar a cabo dichas actuaciones.



Etxebizitzaren Gida Planaren eta Irigarritasun Unibertsalaren Euskal Estrategiaren aurreikuspenak bat datoz beste plan estrategiko batzuekin, hala nola 2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoarekin eta 2013-2020 Osasun Planarekin.

Zehazki, 2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoan zehazten da sektorean enplegu-aukerak sortzea bilatuko duela birgaitze-laguntzen bidez: birgaitze indibidualerako eta jabe-komunitaterako laguntzak, birgaitze integraturako laguntzak eta birgaitze integratuko eremuetan (ARI) eta bizitegi-eremu degradatuetan ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko planak egiteko laguntzak, eta hiri-berroneratzeko jarduketak eremuetan. Hirigintzako arazo bereziekin eta Ekimen nagusietako bat kontserbazioa eta irigarritasuna sustatzea da, ardatz nagusi gisa.

Bestalde, Osasun Planaren helburuetako bat da "osasunean eta osasun arloko ekitaterik ezetan eragiten duten egiturazko eta bitarteko determinatzaileetan jardutea", eta horien artean dago etxebizitza duin eta egoki bat eskuratzea. Planak zahartzen ari diren pertsonen ongizatean eta tratu onean aurrera egiteko beharra azpimarratzen du, "Zahartze osasungarria sustatzea" helburutzat hartuta, eta etxebizitzaren arloan irigarritasuna hobetzeko beharra aipatzen da, oztopoak minimizatuz.

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2017ko urtarrilaren 17an egindako bileran, Jaurlaritzaren 2017-2020 XI. Legegintzaldirako

Las previsiones del Plan Director de Vivienda y de la Estrategia vasca de Accesibilidad Universal se alinean con otros Planes estratégicos como el Plan Estratégico de Empleo 2017-2020 y el Plan de Salud 2013-2020.

En concreto, en el Plan Estratégico de Empleo 2017-2020 se determina que el mismo buscará la generación de oportunidades de empleo en el sector a través de las ayudas a la rehabilitación: ayudas a la rehabilitación individual y de comunidad de propietarios, ayudas a la rehabilitación integral y ayudas a la elaboración de planes para la rehabilitación del patrimonio urbanizado y edificado en áreas de rehabilitación integrada (ARI) y áreas residenciales degradadas y las actuaciones de regeneración urbana en áreas con problemáticas especiales de índole urbanístico y social. Una de las principales iniciativas es la potenciación de la conservación y la accesibilidad como ejes centrales.

Por su parte, uno de los objetivos del Plan de Salud es "actuar sobre los determinantes estructurales e intermedios que inciden en la salud y en las inequidades en salud", entre los que se encuentra el acceso a una vivienda digna y adecuada. El Plan incide en la necesidad de avanzar en el bienestar y el buen trato a las personas que envejecen estableciendo como objetivo "Promover el envejecimiento saludable", y en materia de vivienda se alude a la necesidad de mejorar la accesibilidad, minimizando los obstáculos.

El Consejo de Gobierno Vasco, en sesión celebrada el día 17 de enero de 2017 adoptó, entre otros, el Acuerdo por el que

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Plan Estrategikoak onartzeko Erabakia hartu zuen, besteak beste, eta horien artean ez dago Euskal Autonomia Erkidegoko Irisgarritasunaren Euskal Estrategia.

Aurrekoa gorabehera, irisgarritasuna sustatzeko Euskal Kontseiluak 2017ko abenduaren 4an egindako osoko bilkura berezian lehendakariak hartutako konpromisoari erantzuteko, eta kontuan hartuta Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztientzako irisgarritasuna bermatzea Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu behar duen konpromisoa dela, bere jardun-arlo guztietatik jardun integrala eta integratzailea eginez, honako hau Egokitzen jotzen da Irisgarritasun Unibertsalaren Euskal Estrategia.

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren proposamenez, nahitaezko txostenak egin ondoren eta dagokion eztabaida egin ondoren, Gobernu Kontseiluak, egindako bilkuran, erabaki hau hartu du.

ERABAKIA

“Lehena.- Onartzea Irisgarritasun Unibertsalaren Euskal Estrategia dokumentua, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurak proposatutakoa, 2019ko abenduaren 11n egindako bilkuran. Erabaki honen eranskinean dago jasota.

se aprueban los Planes Estratégicos del Gobierno para la XI Legislatura 2017-2020, entre los que no se encuentra la Estrategia Vasca de Accesibilidad de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

No obstante lo anterior, a fin de atender el compromiso adquirido por el Lehendakari en la sesión extraordinaria del Pleno del Consejo Vasco para la promoción de la accesibilidad celebrado el 4 de diciembre de 2017, y teniendo en cuenta que garantizar la accesibilidad a todas las ciudadanas y ciudadanos de la Comunidad Autónoma es un compromiso que debe asumir el Gobierno Vasco en su conjunto con una actuación integral e integradora desde todas sus áreas de actuación, se considera procedente que la Estrategia vasca de Accesibilidad Universal sea aprobada por el Consejo de Gobierno.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, habiéndose emitido los informes preceptivos y previa la correspondiente deliberación, el Consejo de Gobierno adopta el siguiente

ACUERDO

“Primero.- Aprobar el documento “Estrategia vasca de Accesibilidad Universal” propuesto por el Pleno del Consejo Vasco para la promoción de la Accesibilidad, en su sesión celebrada el 11 de diciembre de 2019, y que se contempla en el Anexo del presente Acuerdo.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Bigarrena.- Eusko Legebiltzarrari Irigarritasun Unibertsalaren Euskal Estrategia helaraztea eta akordio honen edukiaren berri ematea”.

Segundo.- Trasladar al Parlamento Vasco la Estrategia vasca de Accesibilidad Universal e informar del contenido del presente Acuerdo”.

**ERABAKIAREN ERANSKINA
IRIGARRITASUN UNIBERTSALAREN EUSKAL
ESTRATEGIA**

**ANEXO AL ACUERDO
ESTRATEGIA VASCA DE ACCESIBILIDAD
UNIVERSAL**

Eta, hala ager dadin, eta ondore egokiak izan ditzan, honako ziurtagiri hau egin dut, Vitoria-Gasteizen, 2020ko otsailaren 11n.

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expido la presente certificación en Vitoria-Gasteiz, a 11 de febrero de 2020.

